



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



ENPRESA IKASKETEN UNIBERTSITATE ESKOLA
ESCUELA UNIVERSITARIA DE ESTUDIOS EMPRESARIALES
DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN

Diru zuritzea eta bere prebentzioa

Erakunde finantzarioak

2015eko Ekaina

Gradu Amaierako Lana

Donostiako Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola

Leire Sorazu Urresti

Tutorea: Ana Beraza Garmendia

EDUKIA

0. Aurkezpena	5
0.1 Sarrera	5
0.2 Zergatik da arazoa?	5
0.3 Ikerketaren mugatzea	6
0.4 Metodologia	6
0.5 Egitura.....	7
1. Diru zuritzea zer da?	8
1.1 Kontzeptua	8
1.2 Marko legala	11
1.2.1 Nazioarteko Marko legala	11
1.2.1.1 Mundu mailan diru zuritzearen prebentzio alorreko neurri eta gertaerak	11
1.2.1.2 1988ko abenduaren 12ko Basileako printzipioen deklarazioa	13
1.2.1.3 1988ko abenduaren 20ko Vienako Nazio Batuen hitzarmena	14
1.2.2 Diru zuritze kontzeptuaren eboluzioa Espainiako legegintzan	14
1.3 Historia.....	15
1.4 Globalizazioa	16
1.4.1 Globalizazio finantzarioa	17
1.4.1.1 Hedge funds	17
1.4.2 Globalizazioa diru zuritzearen faktore	18
1.5 Ezaugarriak	18
2. Diru zuritzearen ondorioak	20
2.1 Sektore pribatua	20
2.2 Ikuspuntu makroekonomikoa	21
2.3 Gizartea	22
3. Dirua zuritzeko faseak	23
3.1 Kolokazioa	23
3.2 Estalketa.....	24
3.3 Integrazioa	24
4. Metodoak	26
4.1 Paradisu fiskalak	26
4.1.1 Banku-sekretua.....	28
4.1.2 Paradisu fiskalen funtzionamendua.....	28
4.1.2.1 Nola eraman dirua paradisu fiskalera?	28
4.1.2.2 Nola zuritu dirua paradisu fiskalean?	29
4.1.3 Prebentzioa	31
4.2 Fondoerako transferentzia informaleko zerbitzuak.....	31

4.2.1 Hawala.....	32
4.2.2 Prebentzioa.....	35
4.3 Organizazio kriminalak.....	35
3.3.1 Prebentzioa.....	38
4.4 Pitufeo edo zatikatze sistema.....	38
4.5 Sariak erostea.....	39
4.6 Kasinoak.....	39
4.7 Ondasunen erosketa.....	39
4.8 Enpresa zilegien kapitalizazioa.....	40
4.9 BEZaren karrusela.....	40
4.10 Produktu edo zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresak sortzea.....	42
4.10.1 Prebentzioa.....	43
5. GAFiren 40 Gomendioak.....	44
6. Espainiako prebentzio sistema.....	48
6.1 10/2010 Legea erakunde finantzarioetan.....	48
6.1.1 Diru zuritzearen definizioa eta objektua.....	49
6.1.2 Obligaziodun Subjektuak.....	50
6.1.3 Eginbeharrezko egintzak eta Know Your Customer.....	51
6.1.3.1 Egintza normalak:.....	51
6.1.3.2 Egintza sinplifikatuak:.....	52
6.1.3.3 Egintza sendotuak:.....	52
6.4 Komunikazio betebeharra eta dokumentuen kontserbazioa.....	53
6.1.5 Barne kontrolerako neurriak.....	55
6.1.6 Finantza titulartasuneko fitxategiak.....	56
6.1.7 Antolakuntza instituzionala.....	56
6.1.7.1 SEPBLAC.....	57
6.1.8 Araubide zehatzailea.....	58
6.1.8.1 Arau hauste oso larriak.....	58
6.1.8.2 Arau hauste larriak.....	59
6.1.8.3 Arau hauste arinak.....	60
6.1.9 Diru zuritze prebentzio neurrien aplikazioa eta eraginkortasuna.....	60
7. Proposamen berria: Danimarka.....	63
8. Irtenbide bat: eskudiruaren amaiera.....	65
9. Etika eta koordinazioa.....	70
10. Eranskina: estatistikak.....	72
10.1 Espainia.....	72
10.1.1 Bide penala.....	72

10.1.2 Bide Administratiboa	72
10.2 Europa.....	74
11. Ondorioak	76
Bibliografia	79

GRAFIKOAK

1.Grafikoa: Merkataritzan subfakturazioarekin zuritzea	21
2.Grafikoa: Diru zuritzeko faseak	23
3.Grafikoa: Espainiak paradisu fiskaltzat dituen herrialdeak	27
4.Grafikoa:Hawala sistemaren funtzionamendua.....	33
5.Grafikoa:Hawala sistema erabiltzeko arrazoiak	34
6.Grafikoa:2013an Krimen Organizatua Espainian.....	37
7.Grafikoa:BEZaren karrusela	40
8.Grafikoa:2013an zantzuengatik aztertutako eragiketa deliktiboen jarduerak	54
9.Grafikoa:Informazio elkartrukea	57
10.Grafikoa:SEPBLAC aurrekontua milaka €-tan	61
11.Grafikoa:Danimarka eta Espainiako merkatu irekiko interes tasak	66
12.Grafikoa:Ekonomia ezkutua eta ordainketa elektronikoak	68
13.Grafikoa:2010ean zantzuengatik eginiko jakinarazpen kopurua.....	75

TAULAK

1.Taula:Zantzuengatik erakunde finantzarioen jakinarazpen kopurua SEPBLAC-eri ...	54
2.Taula:Eskudirutan ordaintzeko mugak European	69
3.Taula:Diru zuritzeagatik kondenen iraupena.....	72
4.Taula:Kondenetan ezarritako isunen zenbatekoa	72
5.Taula:Komunikazio sistematikoko eragiketa kopurua	73
6.Taula:Bide administratiboan eginiko arau haustegatik ezarritako sartzio kopurua	73
7.Taula:Bide administratiboko prebentzio neurriak ez betetzeagatik ezarritako sartzioen zenbatekoak	73

0. Aurkezpena

0.1 Sarrera

Iruzur fiskala, zerga-ihesa, ekonomia ezkutua, ustelkeria, diru beltza, diru zikina, paradisu fiskalak eta diru zuritzea. Ba al dakigu benetan zein den hitz hauen esanahia eta beraien artean dagoen ezberdintasuna?

Hedabideetan egunero entzuten ditugun hitzak dira, eta sistema finantzarioa eta ordena sozioekonomikoa kolokan jar dezaketen jarduera edo kontzeptuak dira. Horregatik, ezer baino lehen definitu egingo ditugu hitzok.

- Iruzur fiskala (*fraude fiscal*): “zergadun batzuek errenta edo aberastasunagatik administrazioari ordaindu beharreko zergak ez ordaintzearen ondorioa da. Iruzur fiskalak bere baitan hartzen ditu zerga ihesa zein ezkutuko ekonomia. Iruzur fiskala delitu fiskala izango da egindako iruzurra 120.000€ baino handiagoa denean” (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2015).
- Zerga ihesa (*evasión fiscal*): “diru sarrerak ezkutatzea (norbere lurraldean edota kanpo lurraldetan, paradisu fiskaletan) edo ondare gehikuntzak ez aitortzea” (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2015).
- Ekonomia ezkutua (*economía sumergida*): “Ogasunaren zirkuitu fiskaletan sartzen ez den jarduera ekonomikoa” (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2015).
- Ustelkeria (*corrupción*): “erakundetako (batez ere publikoak) funtzio eta baliabideak probestu edo erabiltzea norberaren gozamenerako, gehienetan ekonomikoak” (RAE, 2015).
- Diru beltza (*dinero negro*): jarduera zilegietan jatorria duen eta administrazioari ezkututzen zaion dirua.
- Diru zikina (*dinero sucio*): jarduera ez zilegietan jatorria duen eta administrazioari ezkututzen zaion dirua.
- Paradisu fiskala (*paraíso fiscal*): “bertan bizi edo kokatuta ez dauden hiritar eta enpresei zerga-sistema bereziak ezartzen dizkien lurralde edo estatua” (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2015).
- Diru zuritzea (*blanqueo de capitales*): jatorri deliktiboa duten ondasunei legitimitate itxura ematen dioten prozedura eta mekanismo multzoa.

0.2 Zergatik da arazoa?

Lan honen bitartez diru zuritzearen eta bere prebentzioaren inguruko ondorengo galderei erantzuna bilatu nahi diegu:

1. Zer da diru zuritzea eta zeintzuk dira bere ezaugarri eta faktoreak?
2. Zein ondorio ditu gizartean eta ekonomian?
3. Nola zuritzen da?
4. Sistema prebentiboko neurriak erakunde finantzariotan zein dira eta zein da hauen eraginkortasuna?
5. Zer egin daiteke diru zuritzea murrizteko?

0.3 Ikerketaren mugatzea

Lan honen hasierako planteamendua prebentzio alorra jorratzea zen, aldiz, gaiaren inguruko ezjakintasunak bultzatuta, diru zuritze jardueraren azterketa sakonagoa egin behar izan dugu. Honela esan genezake lanaren lehen lau atalak, ondoren prebentzio alorra ulertzeko beharrezko egin zaizkigula. Beraz, gerta daiteke diru zuritzeko metodoak edo bideak guztiz osatuta ez egotea. Hala eta guztiz ere, ahalegina egin dugu finantza sistemako sarbidea ahalbidetzen duten metodoetan arreta handiagoa jartzen.

Sistema prebentiboan ere gidalerroa berdina izango da, erakunde finantzarioetan zentratua. 1980 urtetik gaur egunera arte Espainiako zein nazioarteko legedian garrantzi handiena izan duten neurri edo hitzarmenak aipatuko ditugu. Aldiz, 10/2010 Legea (Europar Batasuneko Hirugarren zuzentaraua transponitu zuen legea) eta 2012ko berrikusketa ondorengo GAFIren (*Grupo de Acción Financiera Internacional sobre el Blanqueo de Capitales*) 40 Gomendioak soilik azalduko ditugu (Europar Batasuna preparatzen ari den laugarren zuzentaruaren oinarria).

Bide beretik, 10/2010 Legeak diru zuritzea eta terrorismoaren finantzaketa saihestea helburu badu ere, terrorismoaren finantzaketari ez diogu aipamen berezirik egingo.

Diru zuritzea murrizteko proposamentzat eskudiruaren amaiera azalduko dugu. Honek izan ditzakeen abantaila eta desabantailak aipatuko ditugu soilik, aplikazioa aztertzeo datuak eta agintariak proposamen hau aztertzeo duten prestutasunaren inguruko informazioa falta izan baitzaizkigu. Honela, Danimarka eredutzat jarriko dugu, merkataritza ganbarak parlamentura eraman duelako proposamena eta ordainketa bideen inguruko datu ugari dagoelako.

Azkenik aipatu behar, diru zuritzea jarduera deliktiboa denez gero, ezinezkoa dela honen inguruko datu errealak jasotzea. Horregatik, testuan munduko Barne Produktu Gordinaren (BPG) %5 zuritzen dela edo urtero 3 bilioi \$ zuritzen denaren estimazioa aipatuko dugu. Estimazio hutsa. Honela, zeharka jasotako datuak erabiliko ditugu, eranskinakoak barne.

0.4 Metodologia

Lan hau egiteko eskuliburuak, artikulak, txostenak, tesiak zein hedabideetan argitaraturiko albisteak erabili ditugu. Azken urte hauetan hedabideetan izandako filtrazio edo ikerketei esker ustelkeria kasuak ari dira azaleratzen. Hedabideak politiko zein agintariak ari dira estutzen, horregatik gure lana burutzeko iturri fidagarri kontsideratu ditugu, beti ere iturriak berretsiz.

Honez gain, Donostiako Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskolan Libia Arreguik, Ertzaintzako delitu ekonomikoen arloko buruak, 2015eko apirilaren 22an eginiko hitzaldia lanaren abiapuntutzat erabili dugu.

Metodologiari dagokionez, metodo analitikoak erabili dugu. Metodo honekin, fenomeno baten deskonposizioa egiten da, fenomenoak osaturik dagoen elementuak aztertuz. Honela, fenomenoaren zatiak ikertzen dira fenomeno bera ere aztertuz (Rodríguez, García, & Peña, 2005). Gure kasuan diru zuritzea da fenomeno eta honen ezaugarri, faktore, metodo, fase zein eraginak aztertuz kontzeptua osotasunean ulertzea lortuko dugu eta elementu hauek aztertu ondoren prebentzio alorra ulertzeko gai izango gara.

0.5 Egitura

Planteatu ditugun galderei erantzuna ematen saiatuko gara lan honetan eta ezer baino lehen iruzur fiskala, ekonomia ezkutua edo diru zuritzea kontzeptu ezberdinak direla argitu dugu.

Gure laneko lehen atalarekin planteatu dugun lehen galderari erantzuna ematen saiatuko gara. Diru zuritze kontzeptuari dagokionez Kode Penalak eta Jurisprudentziak ematen duten definizioa izango dugu oinarri, eta honi jarraiki historian zehar diru zuritzetzat zein jarduera kontsideratu diren aipatuko dugu. Honela marko legalean sartuko gara eta azken 20 urtetan diru zuritzearen aurka borrokatzeko helburuarekin nazioartean egin diren hitzarmenen ondorioz hartu diren neurriak aztertuko ditugu. Atal berean, diru zuritzearen ezaugarri eta faktoreak zeintzuk diren bilatzeko, globalizazioa eta honen ondorio izan diren finantza arloko desarauketa eta kapitalen mugimendu askea aztertuko ditugu.

Bigarren atalean diru zuritzea zergatik den arazoa azalduko dugu, hau da, zein ondorio dituen sistema ekonomikoan eta gizartean.

Hirugarren eta laugarren atalean nola zuritzen den galderari erantzuna ematen saiatuko gara dirua zuritzeko prozesuan dauden faseak eta metodoak azalduz. Metodoei dagokionez, finantza sistemako sarbidea dutenetan arreta handiagoa izango dugu, batez ere paradisu fiskaletan. Esan genezake, lau atal hauetan sistema prebentiboa aztertzeko beharrezkoa den informazioa azalduko dela.

Honela, bosgarren eta seigarren ataletan GAFIren 40 Gomendioak eta 10/2010 Legea jarraiki erakunde finantzarioek bete beharreko egintzak aztertuko ditugu. Atal hau amaitzeko neurrien eraginkortasun eta aplikazioa izango dugu aztergai.

Zazpigarren eta zortzigarren ataletan diru zuritzea murrizteko proposamen batek izan dezakeen aplikazioa eta ondorio posibleak aztertuko ditugu: eskudiruaren amaiera. Danimarkan, dirudienez, eskudiruaren erabilera mugatuko dute eta herrialde eskandinaviar honen ezaugarriak aztertuta proposamenaren aplikazioa ea posible izango litzatekeen landuko dugu. Ondoren, Europar Batasunean eskudirua ezabatzearen abantaila eta desabantailak aztertuko ditugu, proposamen soil bat eginez eta bere aplikazioa eztabaidatu gabe.

Lanaren amaiera aldera heltzean, etika edo gizakiaren jokatzeko modua jorratuko dugu. Bertan botere, influentzia, prestigio eta kontrol nahiak ustelkeria edo diru zuritzearekin duten erlazioa aztertzeaz gain, elkarrekintzak, uniformetasunak eta batasunak duten indarra azpimarratuko dugu.

Eranskin moduan datu estatistiko batzuk atxikitu ditugu, testuan azaldutako informazioaren gehigarri dena eta zenbait azalpenen justifikazioa egon daitekeena. Eta azkenik gure lana laburbiltzen duten ondorioak atera ditugu.

1. Diru zuritzea zer da?

1.1 Kontzeptua

Kontzeptuetan sartu aurretik bereizketa edo azalpen bat egin beharra dago: bide errepresibo edo penala eta bide administratibo edo prebentiboa. Gaur egun Espainian diru zuritzea Kode Penaleko 301-305 artikuluetan eta Diru Zuritze eta Terrorismoaren Finantzaketaren Prebentzioko 10/2010 Legean dago araututa. Baina zein eremutan jarduten du zuzenbideko arlo bakoitzak?

Kode Penalak diru zuritzea arautzearen helburua, honen jatorrian dagoen delituaren **errentagarritasun ekonomikoa gabetzea** da (Pena Beiroa, 2012). Jarraian aipatuko den moduan, zigorrak ezartzen dizkio bai diru zuritzearen aurretik buruturiko delituari eta baita diru zuritzeari ere.

Bide administratiboan 10/2010 Legea dugu, **helburua sistema ekonomiko finantzarioa babestea** duena (L 10/2010, de 28 de abril). 6. atalean azalduko den lege honetan Obligaziodun Subjektuak eta hauen egin beharreko egintzak barneratzen ditu aplikazio eremuan. Egin beharreko egintzak ezarri zaizkien subjektuek, erakunde finantzarioak kasu, obligazioak betetzen ez dituztenean zigortuko dira, bide administratibotik.

Beraz, diru zuritzea eta honen jatorrian dagoen jarduera deliktiboa Kode Penalak zigortzen du, eta diru zuritzea prebenitzeko bide administratiboan erabiliko den 10/2010 Legeak bertan adierazitako subjektuei obligazioak ezarri eta berauek zigortuko ditu.

Bereizketa egin ondoren, Kode Penala aztertzen hasiko gara. Nazioartean 1980-1990 hamarkadetan erregulatzen hasi bazen ere, Espainiako Kode Penalean 1995an arautu zen lehendabizikoz diru zuritzea. Azterketari ekiteko diru zuritzea arautzen duten artikuluek jasoko ditugu, garrantzitsutzat jotzen baitugu diru zuritzea zer kontsideratzen den jakitea. Ondoren jasotzen den 301 artikuluek honela dio:

Norberak edo hirugarren batek **jatorrian delitu bat duen jardueratik lorturiko ondasunak** eskuratu, hauen jabe izan, erabili, bihurtu edo transmititzen duenak, edo eta ondasun hauen jatorri ez-zilegia ezkututzen duenak, edo horretan laguntzen duen ororen egintzek ondorio legalak izango dituzte. 6 hilabete eta 6 urte bitarteko espetxe zigorra eta ondasunen balorearen hirukoitza isun moduan ezarriko dira zigor moduan. Gainera, 3 urteko desgaitasuna ezarri ahal izango diote (bere lanbide edo industrian) epaile edo auzitegiek delitugileari, honen egoera pertsonala aztertu ondoren.

Zigorra goiko erdian ezarriko da ondasunek Kodearen 368 eta 372 artikuluetan deskribatutako droga toxikoen, sorgogarrari edo gai psikotropikoekin trafikarekin erlaxionatutako delituetan dutenean jatorria.

Modu berean, zigorra goiko erdian ezarriko da ondasunek jatorria dutenean Kode Penaleko V, VI, VII, VIII, IX kapituluetakoko delituetan edo X kapituluako XIX tituluan edo I kapituluako XVI tituluko delitu batzuetan.

2) Modu berdinean zigortuko da ondasunen edo ondasun hauen eskubideen jatorria, izaera, kokalekua, helmuga, mugimendu edo jabetza ezkutatzea; jakinaren gainean egonik hauen jatorria aurreko atal batean azalduko delitu baten dagoela, edo hauetako egintza baten parte-hartzean.

3) Egintzak zuhurtziagabekeria larri baten ondorioz burutzen badira, espetxe zigorra 6 hilabete eta 2 urte bitartekoa izango da, eta hiru halako arteko isuna.

4) Ondasunak atzerrian buruturiko delitu batetik badatoz, edo aurreko ataletan aipaturiko egintzak atzerrian burutu ezker, erruduna berdin-berdin zigortzen jarraituko da.

5) Errudunak irabaziak lortu izan balitu, Kode Penaleko 127 artikuluari jarraiki konfiskatuak izango zaizkio. (Art. 301 CP)

Beraz, diru zuritzea kontsideratzen da ondasunek jatorrian delitua dutela jakinaren gainean egonik, hauek eskuratu, erabili, bihurtu, transmititu edo ezkutatzea. Baina delitu independenteak ahal dira diru zuritzea eta aurretik buruturiko delitua?

Doktrina zein jurisprudenzia ez dira bat etorri azken urteetan diru zuritze delituak eta delitu aurrekariak, biak pertsona berdinak burutzen dituenaren kasuan, delitu independenteak izan beharko luketen edo ez erabakitzean.

- Batzuek uste dute auto-diru-zuritzeak, hau da, jarduera ez zilegia eta diru zuritzea pertsona berak burutzea, ez duela zuzenbideko “*non bis in ídem*” printzipioa betetzen. Printzipio honen arabera, egitate beragatik ezin da bi aldiz zigortua izan.
- Aldiz, beste batzuek, Auzitegi Goreneko 2012ko azaroaren 8ko sententzia kasu, uste dute auto-diru-zuritzearen kasuan, aurretik buruturiko delitua eta diru zuritze delitua autonomo eta independenteak direla.

Auto- diru-zuritzearen inguruan Auzitegi Gorenak emaniko bi sententzia berri ditugu apirilaren 29ko 265/2015 eta maiatzaren 19ko 286/2015 sententziak.

- 265/2015ean bereizketa bat egiten da: arauaren helburua ordena sozioekonomikoa mantentzea denez, ondasunen eskuratze edo transmisio hutsak ez du merkatu zilegia aldatzen. Aldiz, ondasun hauen jatorria ezkutatzuz merkatu zilegietara jotzen bada, honek eragin negatiboa izan dezake.

Honela, adibide moduan jartzen da jatorri ez zilegiko funtsak egunerokotasunean erabiltzearen helburua ez dela ondasun hauek ezkutatzea ondoren legitimotasun itxurarekin sistema ekonomikoa sartzeko. Adibidez alokairu ordainketa edo hegazkin txartelak erostea. Baina, kotxe bat hirugarren baten izenean jartzearen kasuan, ondasunak bere jatorri ez zilegietatik ezkututzen direnez auto-diru-zuritzea egongo litzateke eta bi zigor jarriko lirarteke.

- 286/2015 sententzian azaltzen da ondasun ez zilegi jakin bat aurretik kondenatua izan bada ezin dela zigor bikoitz bat egon.

Beraz, doktrina ez dago bateratua eta oraindik ikusteko dago zein ildo nagusituko den.

Diru zuritzearen ezarpen eremua zabalduz joateko, Kode Penaleko 305 artikuluan, Gizarte Segurantzaren eta Ogasun Publikoaren aurkako delituak aipatzen dira ondorengo moduan:

Norbaitek, egitez edo ez-egitez, estatuko, autonomia erkidegoko, foru aldundiko edo tokiko herri-ogasunari iruzur egiten badio, zergen ordainketari, atxikitako edo atxiki beharreko kopuruen ordainketari, edo gauzez egindako ordainsarien konturako sarreren ordainketari itzuri eginez edo bidegabe itzulketak lortuz, edo zerga-onurak ere bidegabe hartuz, betiere **120.000 euro baino gehiagokoa** denean iruzurpeko kuotaren zenbatekoa, edo bidegabe lortu nahiz hartutako atxikipenen, konturako sarreren, itzulketen edo zerga-onuren ordaindu gabeko zenbatekoa, orduan, pertsona horri urtebetetik bost arteko espetxealdizigorra ezarriko zaio eta aipaturiko kantitatearen sei halako arteko isuna, beti ere artikuluko honetako 4 apartatuari jarraiki zerga erregularizazio bat egin ez badu. (Art. 305 CP)

301 artikuluan diru zuritzea egoteko, ondasunen jatorrian delitu bat egon behar dela aipatzen da, baina Ogasunari defraudaturikoa delitutzat har ahal daiteke?

Galdera honi erantzuteko bi ikuspuntu daude:

- Autore batzuk diote iruzurra ezin daitekeela diru zuritzearen aurretik gertatzen den delituzat kontsideratu, ez baituelako bere ondarea handitzen iruzurrarekin.
- Beste autore batzuk, aldiz, delitu fiskala diru zuritze delituaren aurretik gertatzen den delitua dela diote. Delitua existitzen dela diote (120.000€-tako iruzurra) eta ondorioz diru zuritze delitua ere egon daitekeela (Garrigues, 2013).

Auzitegi Gorenak gai honen inguruan lehenengo sententzia eman zuen 2012ko abenduaren 5ean, beraz, jurisprudenziak honakoa dio:

Defraudaturiko kuota Kode Penaleko 301 artikuluan adierazten den ondasun definizioan sartzen da eta Ogasun Publikoaren kalterako izango da iruzurra. Gainera, diru zuritze delitu kontsideratu daitekeen delituaz probestu edo onura jaso dezake. Ondorioz, Kode Penaleko 301 artikuluan adierazitako **jokabideen barnean iruzur fiskala onartuko da**. (STS 974/2012 de 5 diciembre)

Beraz, iruzur fiskala 120.000€ baino handiagoa bada, iruzur fiskalaz gain diru zuritze delitua burutuko da. Horrela, arau-hauste administratiboa eta delitu bereizketa egin dezakegu:

- Demagun geurea den etxebizitza bat alokatzen dugula baina errenta aitorpenean ezkutatu egiten dugula alokairutik lorturiko irabazia. Adibide honetan autoritateen helburu bakarra irabazien ezkutatzea prebenitzea, ikertzea eta zigortzea izango da (errekargua) eta **arau-hauste administratiboa** izango da soilik (zerga-saihestea <120.000€).
- Aldiz, diruak jarduera ez zilegi batean duenean jatorria, **delitu** bat egongo litzateke, hala nola, droga trafikoa, legearen aurka pertsona trafikagai hartzea ... 2012ko Auzitegi Gorenaren sententziak dioten moduan, 120.000€ gainditzen duen zerga saihestea delitua izango da.

Kontzeptu gehiago aztertzeko bidean, har dezagun Auzitegi Gorenak emaniko sententzia berean egiten den beste bereizketa bat:

Zuritu behar diren ondasunen jatorriak delitu bat izan behar du. Horregatik diru zikina garbitzen da, eta ez beltza. Diru zikina delitu batetik dator, aldiz, beltza ezkutuan mantentzen dena da. Diru zikina duenaren helburua, berau garbitzea izango da, zuri bihurtzea. Diru zikinarekin inolako susmorik sortu gabe zergak ordaintzean lortuko du diru zuritzaileak bere helburua. (STS 974/2012 de 5 diciembre)

Diru zikinaren jatorrian jarduera ez zilegia dago, aldiz, diru beltzaren jatorrian dagoen jarduera zilegia da, baina berau Ogasunari ezkututzen zaio. Horregatik, diru zikina duenaren helburua inolako susmorik sortu gabe zergak ordaintzea izango dela aipatzen da Auzitegi Gorenako sententzia honetan.

Diru beltzaren kasuan, administrazioari ezkututzen zaionez ez dira zergak ordaintzen eta ondorioz beltza da. Baina, diru beltza duenak 120.000€ baino gehiagoko iruzurra burutu badu, delitu baten aurrean egongo litzateke eta Kode Penaleko 301 artikulua aplikazio eremuan sartuko litzateke.

Diru zuritzearen definizioa osatzen joateko, estatu ezberdinek edo mundu mailan prebentzio arloan dauden erakundeek ematen dituzten definizioak ikusiko ditugu orain.

Espainiako ekonomia eta lehiakortasun ministerioak honela definitzen du: “Jatorri deliktiboa duten ondasun eta aktiboei legezketasun edo legitimotasun itxura ematea helburu duten mekanismo eta prozedurak dira” (Ministerio de Economía y Competitividad, 2015).

Ameriketako Estatu Batuetako (AEB) Altxortegi Sailak (U.S. Department of the Treasury) honakoa dio: “Kriminalak, organizazio terroristak barne, finantza eragiketen bidez jarduera ez zilegietan lorturiko irabazien jatorria ezkutatzea dute helburu. Finantza eragiketa hauetan burutzen da zuritzea. Diru zuritzeak delitu kriminal gehiago egotea errazten du eta, finantza sistemaren integritatea mehatxatzen du”.

GAFI (FATF, *Financial Action Task on Money Laundering*) 1989an zazpi herrialde industrializatuenek¹ sorturiko erakunde internazionala da eta diru zuritzearen inguruan ondorengo kontzeptua ematen du: “Jabetzaren jatorrian delitu kriminala dagoela jabetzen den orok, jabetza transferitzen edo bihurtzen badu, dirua zuritzen ari dela kontsideratuko da. Gainera, dirua zuritzen ibiltzearen ondorio juridikoak saihesten laguntzea ere delitutzat hartuko da” (GAFI, 2012).

Doktrinari dagokionez, gehiengoa bat dator diru zuritzearen definizioarekin. Adibidez Diez Ripollés-ek honakoa dio: “Jarduera ez zilegietatik lorturiko irabaziak ekonomian eta finantza sisteman legalki sartzea helburu duten prozesuak dira”.

Gomez Iniestak “jatorri ez zilegiko kapitala ezkutatu, ordezkatu, transformatu edo zirkuitu ekonomiko-finanzariora itxura legalarekin itzultzen duten operazioak. Delituaren objektua diru efektiboa nahiz ondasunak izan daitezke, higigarri zein higiezinak”.

Alvarezek eta Eguidazuk euren eskuliburuan Cassiniren definizioa azpimarratzen dute (*Le blanchissage d’argent*), honek ematen dituen xehetasunengatik:

Baliabideen existentzia, jatorri ez-zilegia edo erabilera disimulatzea da diru zikinaren zuritzea, modu zilegian eskuratu zirela erakusteko helburuarekin. Ekonomia legalean diru hori sartzea da, legaltasun itxura emanez. Dirua zuritzen laguntzen duena, nahiz eta delitua ez burutu, dirua zuritzen ari da. (Álvarez & Eguidazu, 2007)

1.2 Marko legala

Kontzeptuak marko legal batekin osatzen dira, legegintzan izandako eboluzio edo garapenak egungo egoera ulertzen laguntzen baitu. Honela, modu berezian aztertuko ditugu Espainian eta nazioartean dirua zuritzearen prebentzioan eman diren neurri edo gertaerak. Hala eta guztiz ere argitu behar da prebentzio alorra 5 eta 6 atalean landuko dela bereziki.

1.2.1 Nazioarteko Marko legala

Ezinbestekoa iruditzen zaigu nazioartean diru zuritzearen borrokan paper garrantzitsua izan duten neurriak zerrendatzea, neurri hauek izan duten eboluzioaren ondorio baita gaur eguneko Espainiako araudia. GAFIren 40 Gomendioak 5 . atalean aztertuko ditugu.

1.2.1.1 Mundu mailan diru zuritzearen prebentzio alorreko neurri eta gertaerak

Droga trafikoak kezkatu, 80ko hamarkadan AEBko presidentea zen Ronald Reagan-en gobernuak nazioarteko hitzarmenak bultzatu zituen, ezinbestekotzat jo baitzituen legegintzan zein jarduera polizialean ere.

¹ Zazpi herrialde industrializatuenak: Alemania, Erresuma Batua, Estatu Batuak, Frantzia, Italia, Japonia eta Kanada.

Zigor Zuzenbidean eragina izan dute 1988ko Vienako Hitzarmenak, 1990ko Estrasburgoko Hitzarmenak eta Europar Batasuneko 91/308CEE Zuzentarauak. Hauei jarraiki herrialdeek euren Kode Penalean droga trafikoa erregulatu zuten, baina diru zuritzea modu ezberdinean. Espainiaren kasuan 1995eko Kode Penalean ez zen “diru zuritze” izen espezifikoa aipatzen 5/2010eko Lege Organikoa erredaktatu zen arte (301-304 artikulua).

Baina bide penalaz gain berebiziko garrantzia izan zuten eta duten erakundeak sortu ziren, erdi-privatuak izango direnak, prebentzio alorra sustatuko dutenak.

1989an **GAFI** sortu zen, G7-k eta Europako Batzordeak sortu zuten nazioarteko erakundea. Diru zuritzea eta terrorismoaren finantziakzioa saihestea; eta nazioarteko finantza sistemaren integritatea mantentzea da bere helburua. Hori lortzeko, gomendioak ematen ditu, hots, ez du izaera arauemailea. Beraz, beharrezko ikusten dituen politikak aurrera eramatea bultzatzen duen organoa da (FATF, 2012).

GAFIz gain beste hainbat nazioarteko erakundeak diru zuritzearen inguruan hainbat testu eta deklarazio burutu zituzten: Nazio Batuen Erakundea (NBE), Nazioarteko Moneta Funtza (FMI), Munduko Bankua, Munduko Aduanen Erakundea eta Munduko Balore Higitarriko Batzordeen Erakundea (Alvarez & Eguidazu, 2007).

Eboluzioa honakoa izan da:

- 1970 Banku Sekretuko Legea (AEB).
- 1986 Diru Zuritzearen Kontrolerako Legea (AEB). Krimen federala bilakatu zen diru zuritzea.
- 1988 Vienako Nazio Batuen Hitzarmena. Delitu moduan tipifikatu zen diru zuritzea (narkotrafikoa eta drogak).
- 1988 Basileako Printzipioen Deklarazioa. Jatorri kriminaleko funtsak erakunde finantzarioen bitartez zuritzea prebenitzen zuen deklarazioa zen.
- 1989 GAFIren sorrera Parisen.
- 1990 GAFIk diru zuritzearen aurkako 40 Gomendio argitaratu zituen.
- 1991 91/308/CEE Zuzentzaraua. Erakunde finantzario bitartez zuritzen zen diruaren prebentzio alorrean Europako lehenengo araua izan zen.
- 1995 Egmont Taldearen sorrera. Munduko 101 Finantza Inteligentziako Unitate (FIU) bildu zituen taldea.
- 1996 GAFIren 40 Gomendioen berrikustea. Diru zuritzearen aurretik gertatzen ziren delitu gehiago sartu zituen (narkotrafiko eta drogetatik haratago), delitu larritzat kalifikaturik. Gainera, diru zuritze tipologien txosten bat argitaratu zuen.
- 1999 Terrorismoaren Finantzarioaren aurkako NBEko Hitzarmena.
- 2000 NBEko Palermoko Hitzarmena. Bertan antolaturiko delikuentziaren aurkako neurriak hartu ziren.
- 2000 Wolfsberg Taldearen sorrera. Munduko 12 banku globalek, banka pribaturako diru zuritzearen aurkako printzipioak adierazi zituzten.
- 2001 Terrorismoaren finantzaketaren aurkako GAFIren VIII Gomendio bereziak.
- 2001 Banku Ikuskaritzako Basileako Batzordeak “Eginbeharreko eginbideak bankuko bezeroekin” dokumentua argitaratu zuen.
- 2001 2001/97/CEE Zuzentzaraua. Finantza erakundeak ez ziren erakundeei betebeharrak jarri zizkien zuzentzaraua.
- 2001 Patriot (*Uniting and Strengthening America by Providing Appropriate Tools Required to Intercept and Obstruct Terrorism Act*) Legea (AEB).
- 2003 GAFIren 40 Gomendioen berrikusketa.

- 2004 GAFIren IX. Gomendio berezia, eskudiruaren mugimenduei zuzendua.
- 2005 2005/60/CE Zuzentaraua. Zuzentarau hau transponitzeko eman zen Espainiako 10/2010 Legea.
- 2012 GAFIren 40 Gomendioen berrikusketa, IX gomendio bereziak 40 gomendioen barnean sartu ziren (Pena Beiroa, 2012).
- 2014ko Fiskalitate Alorreko Informazio Elkartruke Automatikorako Deklarazioa. OECDko 34 Estatu kidek onartu zuten banku sekretuari amaiera emango dion deklarazioa.

Zerrendaturiko gertaera edo neurrien artean prebentzio alorrean garrantzia handiena izan duten neurriak azalduko ditugu ondorengo puntuetan.

1.2.1.2 1988ko abenduaren 12ko Basileako printzipioen deklarazioa

Jatorri kriminaleko diru zurikeriaren inguruan eginiko erregela deontologikoen deklarazioa izan zen, inolako obligazio legalik gabekoa. Bertan, diru zurikeriaren desagerpena helburu izanik, erakunde finantzarioek aplikatu beharreko jarraibide edo prozedurak adierazi ziren. Prozedura hauek, hasiera batean, bankuetako kudeatzaileek bermatu beharreko neurriak ziren. G10²-eko banku zentraletako ordezkari eta moneta arloko agintariak eginiko deklarazioa zen.

Jokaera deontologikoa barneratu ziren neurriak ondorengoak dira:

- I. Bezeroen identifikazioa: oinarrizko neurria da, pertsona fisikoen kasuan arazorik gabe burutzen dena. Aldiz, fiduziario, pertsona juridiko edo sozietate instrumentaletan oso zaila da jabeak identifikatzea. Deklarazioak aipatzen du bankuek ahalegin guztiak egin beharko dituztela kontuen titularrak eta segurtasun kaxak erabiltzen dituztenak identifikatzeko.
- II. Legeen betetzea: bi zatitan bereizten da, erakundeen jardura eta erakundeen bezeroek eginiko operazioak.
Lehenengoen kasuan, bankuetako erantzuleak izango dira buruturiko jarduerak arau deontologiko eta erregulazioa betetzen dutela ziurtatuko dutenak. Gainera, administrazioak ere kontrolak burutuko ditu erakunde finantzarioetan.
Bezeroen kasua ezberdina da, izan ere, batzuetan ezinezkoa da diruaren jatorria jardura zilegi batetik datorren edo ez jakitea, edo hauek arau-hauste bat egin dutela ohartzea. Deklarazioak ez du besterik gaineratzen, beraz, erakunde finantzarioetako langileek arau-urratze kasu argi baten aurrean daudenean soilik hartuko dituzte neurriak.
- III. Agintarien kooperazioa legeen betearaztean: herrialde baten mugen barnean burutzen diren operazioetan ordenamendu juridiko nazionala erabiliko da. Aldiz, nazioarteko transakzioetan ohikoa izaten da informazio elkartruke klausula jasotzea. Klausula honi jarraiki, kontratuari lotuta geratzen diren Estatuetakoa Administrazioek interesatzen zaien datu edo informazioa elkartrukatzeko dute.

Legeen betearazte prozesuan, bankuetako langileek paper garrantzitsua izango dutela aipatzen da atal honetan. Hauek diruaren jatorrian delitu zantzurik sumatuko balute, aholkularitza zerbitzuak eten beharko lituzkete, zein kontu korrontea ezeztatu.

² G10: Alemania, Belgika, Kanada, Estatu Batuak, Frantzia, Italia, Japonia, Herbehereak, Erresuma Batua eta Suedia. Baita Suitza ere.

1.2.1.3 1988ko abenduaren 20ko Vienako Nazio Batuen hitzarmena

Nazio Batuen 1988ko “Sorgogarrari eta Gai Psikotropikoen Trafiko Ez Zilegia” Hitzarmena sinatu zuten Estatuetakoko legedian lehen aldiz diru zuritzea arautu zen. Vienan ospatu zen Hitzarmenaren gidalerroak jarraituz, diru zuritzea martxoaren 24ko Kode Penalaren Erreforma Droga Trafiko alorrean 1/1988 Lege Organikoarekin erregulatu zen lehen aldiz Espainiako Kode Penalean.

Vienako hitzarmenak, **narkotrafikoa** diru zuritzearekin lotzen du zuzen-zuzenean. Hitzarmen honek nazioarteko arautegian narkotrafiko eta diru zurikeriaren erabilpen bateratua ondorio izan zuen. Beronen helburu nagusia narkotrafikotik (jarduera ez zilegia) lorturiko irabaziak zuritzean eragozpenak jartzea da. Izan ere, narkotrafikotik lorturiko etekinek Administrazio Publikoko egitura eta jarduera zilegiak kaltetzen dituzte.

Diru zuritzearen definizioa honela azaltzen da hitzarmeneko 3.1.b.I eta 3.1.b.II artikuluetan:

- I. Ondasunen transferentzia edo bihurketa, jakinaren gainean egonik ondasun hauen jatorrian hitzarmeneko a) atalean tipifikaturiko delitu bat dagoela. Baita delitu hauetan parte hartzea, helburua ondasunen jatorri ez zilegia ezkutatzea izanik; edo eta delituetan parte hartzen duen edonori ondorio juridikoak saihesten laguntzea.
- II. Ondasunen edo ondasun hauen eskubideen jatorria, izaera, kokalekua, helmuga, mugimendu edo jabetza ezkutatzea; jakinaren gainean egonik hauen jatorria hitzarmenean tipifikaturiko delitu batean dagoela. (Nazio Batuak, 1988).

1.2.2 Diru zuritze kontzeptuaren eboluzioa Espainiako legegintzan

Has gaitezen Espainiako legedian diru zuritzetzat zer kontsideratu izan den aztertzen. Baina lehendabizi, prebentzio alorrean eman diren lege edo neurriak zerrendatuko ditugu.

- 1993 Diru Zuritzearen lehen prebentzio Legea, 19/1993 Legea.
- 1995 Lehen Prebentzio Legea garatzen duen Erregelamendua, 925/1995 Errege Dekretua.
- 2002 Herrialde Arriskuen eguneratzea, 1080/91 Errege Dekretua eta 2652/2002 Ministro-Agindua.
- 2003 Terrorismoaren Finantzazioaren lehen Prebentzio eta Blokeo Legea, 12/2003 Legea.
- 2003 Diru Zuritzearen Prebentzio Legearen aldaketa, 19/2003 legea.
- 2005 Obligaziodun Subjektuen Garapen eta Orientazioen Erregelamenduaren aldaketa, 54/2005 Errege Dekretua.
- 2006 Eskudiruaren Mugimendurako Deklarazioa, EHA/1439/2006 Ministro-Agindua.
- 2007 Kanpoko Adituen Txostenaren Erregulazioa, EHA/2444/2007 Ministro-Agindua.
- 2010 Diru Zuritzearen bigarren Prebentzio Legea eta Terrorismoaren Finantzaketa, 10/2010 Legea.

Espainiako legedian izaniko eboluzioa zerrendatu ostean, prebentzio alorrean diru zuritze kontzeptuan emaniko aldaketak aztertuko ditugu.

Aipatu dugu 301 artikuluan jasotzen dela jatorrian delitua duen jardueratik etorritako ondasunak jaso, erabili, bihurtu, transmititu edo jabetzan izatea dela dirua zuritzea. Honela, edozein delitu egonda ondasunen jatorrian diru zuritzea egongo litzateke.

Lehenengo konparaketa Diru Zuritzea Prebenitzeko neurrien 19/1993 Legearekin egingo dugu. Lege honek Diru Zuritzea prebenitzeko Finantza Sistemaren Erabilerarako 91/308/CEE Zuzentaraua transponitu zuen eta bide administratiboko lehen prebentzio neurria izan zen. Azter dezagun ezarpen eremua:

- Droga toxiko, sorgogarri edo gai psikotropikoekin loturiko jarduera deliktiboak.
- Banda armatu eta organizazio edo talde terroristekin loturiko jarduera deliktiboak.
- Banda edo talde organizatuekin loturiko jarduera deliktiboak (L19/1993, de 28 de diciembre).

Diferentzia nabarmen bat ikusten dugu 1995eko Kode Penal eta 19/1993 Legearen artean: 19/1993 Legeak zehaztu egiten du ezarpen eremua, berau mugatuz, aldiz, Kode Penalak delitu guztiak barneratzen ditu .

Uztailaren 4ko 19/2003 Kapital Mugimenduen eta Atzerriarekin Buruturiko Transakzio Ekonomikoen Erregimen Juridikoaren inguruko Legeak 19/1993 Legearen aldaketa batzuk barneratu zituen. Diru zuritzearen aurretiazko delituen mugatzea aldatu zuen, **3 urte baino gehiagoko espetxe zigorra** zuten delituetan parte-hartzea diru zuritzearen aurretiazko delitu moduan kontsideratuz. Honela, diru zuritzearen aplikazio eremua zabaldu zen (Olivares, 2010).

Beraz, 19/2003 Legea eta Kode Penalaren artean ere ezberdintasuna ikusten dugu, batak 3 urteko espetxe zigorra duten delituak aipatzen baititu eta besteak delituak, larriak eta ez hain larriak.

Gaur egun 19/1993 Legea indargabetu zuen **10/2010 Legea bat dator Kode Penalaren definizioarekin**, delitu hitza erabiltzen baita bertan.

1.3 Historia

Prestamista eta merkatariak Erdi Aroan hasi ziren dirua zuritzen interesak kobratzerako orduan (interesak kobratu zituztela ezkutatu nahi zuten).

Beste adibide bat XVI- XVIII mendeetan dugu, piratek Atlantikoko nabe komertzialak erasotzen zituzten eta lorturiko urrea ezkututzen edo zuritzen zuten.

1920ko hamarkadan, mafia europarra heroinaren trafikotik lorturiko irabaziak zuritzen hasi zen AEBetan. Al Capone eta beste hainbat mafiosok 20ko hamarkadan garbitokiak (*laundrettes*) eta antzerako negozioak erosi zituzten (kotxe garbitokiak, makina automatikodun saltokiak...) hauen helburua: jatorri zilegia zuten irabaziak ez zilegia zutenekin nahastea.

1929ko crash-aren ondoren AEBko gobernuak esku hartu zuen ekonomian (New Deal), baina diru zuritze alorren ez zen estandarizaziorik eman.

1970 hamarkadan Italian tipifikatu zen lehenengo aldiz diru zurikeria eta hurrena AEB izan zen 1980ko hamarkadan (Cesano). Espainiako 10/2010 Legean honakoa esaten da: “Diru zuritzearen prebentzio politikak 1980 hamarkadako amaieran hasi ziren, droga trafikoak finantza arloan izango zituen eraginak saihestu nahian” (L 10/2010, DE 28 de abril).

Baina zergatik 1980 urte arte ez da tipifikaziorako pausurik ematen?

80ko hamarkadan **droga trafikoko organizazio kriminalen aurka** hasi zen borroka kriminalean dugu diru zurikeriaren erregulazioaren jatorria. 1.2.1.2 atalean azaldu dugun Nazio Batuen Basileako Printzipioen Deklarazioa izan zen nazioarte mailan emaniko lehen prebentzio urratsa.

90ko hamarkadan Europako Kontseiluko Hitzarmenak (1.2.1 atala) diru zurikeriaren kontzeptua narkotrafiko delituetatik haratago zabaldu zuen, gainerako **krimen organizatuak** ere barneratuz. 91/308/CE Zuzentarauean Europar Batasunaren (EB) kezka sumatzen dela dio Francisco Bonatti-k. Abokatuak aipatzen du merkatuen liberalizazio eta teknologia berrien zabalkuntzek organizazio handiei diru zuritzean emango zien erraztasunak kezka sortu zuela. Finantza sistemaren egonkortasuna babestu nahi zen.

1997ko azaroaren 21eko Hitzarmenean **ustelkeria politikoa** diru zuritzearen kontzeptuaren barne sartzen da. Bertan “Nazioarteko transakzio komertzialetan, atzerritar funtzionario publikoen funtzionario-eroskeria”-ri aurre egin nahi da.

2001eko irailaren 11an New York-eko Torre Bikien atentatua inflexio puntua izan zen. Al-Qaeda-ren finantziario sistemaz izututa eta merkatu finantzario globalizatuan ezkutatuan burutzen zituen kapital mugimenduak murriztu nahian, nazioarte mailan **terrorismoa** tipifikatu zen (Bonatti).

Herrialde guztiek delitu moduan tipifikatu beharko dute terrorismoaren finantzaketa, ekintza terroristak eta organizazio terroristak. Herrialdeek diru zurikeriaren aurretik gertatzen diren delitua dela ziurtatu beharko dute. (GAFI, 2012)

Aurrerago egin den galdera erantzuntzat emateko, aipatu behar da, nazioarte mailan erregela orokor moduan hartua izan dela atzerriko kapitalen sarrera sustatzea. Diru funts hauen sarrerak garapen ekonomikoan laguntzen zuen eta nazioarteko merkatuetan lehiakortasuna handitu. Oro har, herrialdeek lege bigunak zituzten; prebentzio alorrean giza baliabide eta material urriak; eta gizartean “onartuta” zegoen iruzur fiskala. Horregatik 2001erarte prebentzio alorrean ez zen aurrera pausu handirik eman.

Merkatuen liberalizazioak eta teknologia berrien zabalkuntzak ere garrantzia izan zuten prebentzioan eman zen aurrera pausuan. Hori horrela, gure azterketaren hurrengo puntua globalizazioa izango da.

1.4 Globalizazioa

Nazioarteko Moneta Funtsa (FMI): “Munduko herrialdeen elkar-dependentsia da globalizazioa, nazioarteko ondasun eta zerbitzuen eta nazioarteko kapital funtsen transakzioek bultzatu dutena. Globalizazioak teknologiaren zabalkuntza orokorra eta bizkorra dakar” (FMI, 2000).

Jose Luis Sampedrok ikuspuntu kritiko batetik honela definitu zuen globalizazioa. “Irabazi asmoko eta botere ekonomiko handiko zentroen konstelazioa da. Interes paraleloek elkartzen dituzte, eta euren erabakiek munduko merkatuak nagusitzen dituzte, batez ere finantzarioak. Horretarako teknologia aurreratua eta desarauketa egoera aprobetxatzen dute” (Sampedro & Sequeiros, 2002).

Globalizaziok positiboki eragin duela esan genezake ondorengo puntuetan:

- Oinarrizko produktu batzuen prezio murrizketa.
- Produktu eta pertsonen garraio kostuen merkatzea.
- Merkataritzako-hesien ezabaketa.

- Informazioa partekatzea.

Globalizazioaren ikuspuntu optimista dutenek efektu hauek azpimarratzen dituzte:

- Ekonomiaren hazkundera.
- Mugikortasun geografikoaren ondorio positiboak lan munduan.
- Globalizazio eta liberalizazioak inflazioa murrizten dute epe luzera, lehiakortasuna handitzen delako.

Baina globalizazioaren ikuspuntu pesimista dutenek globalizazioaren ondorioetatik dituzte:

- Langabeziaren igoera eta soldaten jaitsiera herrialde garatuetan.
- Aberastasunaren murrizketa, erabakiak hartzerako garaian malgutasun faltagatik.

1.4.1 Globalizazio finantzarioa

Gaur egun globalizazio finantzarioa (nazioarteko fluxu finantzarioen bitartez buruturiko erlazio globalak) erabatekoa dela esan daiteke, ondorengo ezaugarriak betetzen baitira:

- Merkatu finantzarioen integrazioan ezinbesteko ezaugarria izan da atzerriko merkatuetan sartzeko oztoporik ez egotea, hau da, merkatu finantzario nazionalako **desarauketa** eta nazioarteko **finantza fluxuen kontrolen liberalizazioa**.
- Garrantzitsua da **kapitalaren mugimendu internazionala**, kapital bolumen handia modu azkarrean eta oztoporik gabe merkatu batetik bestera pasatzean baitu oinarria globalizazio finantzarioak.

80ko hamarkadan garapen ikaragarria izan zuen globalizazio finantzarioak, batez ere modu orokortu batean finantza liberalizazioa eman zelako. Baina ezin da ahaztu prozesu honetan teknologia garapenak izan duen eragina. Informazio eta komunikazio alorrean eman ziren garapen teknologikoei, kapitalaren nazioarteko mugimendu azkarra ahalbidetu zuten, koste gehigarririk gabe. Gainera, tresna finantzarioak hobetu eta berriak sortu ziren, eta arbitraia eta espekulazio eragiketen hazkuntza eman zen, nazioarteko merkatu finantzarioen eraginkortasuna handituz (Calvo, 2007).

Baina merkatu finantzarioen globalizazioak **ekonomiaren finantziarizazioa** izan du ondorio (Garcia & González-Tablas, 2001), ekonomia erreala eta espekulatiboa nahastuz. Burtsa eta banku jarduerak espekulazioa izan dute jainko eta errege eta aurrez aipatu moduan tresna finantzario oso arriskutsuak sortu dituzte, *hedge funds* dugu kasu.

1.4.1.1 Hedge funds

Hedge funds-a globalizazio finantzarioaren adibide garbia dugu. "Epe laburreko erabakiak hartzeko edo, mailegu bidez palanka-efektua erabiltzeko edo deribatuak zuzendaritza helburuekin inbertitzeko baimenduta dauden inbertsio funts, enpresa eta sozietateen forma guztiak dira" (Fothergill & Coke, 2001).

Inbertsio kolektiboko funtsak dira hauek eta oso agresibo bezala definitu daitezke. Funts hauen ezaugarri moduan esan dezakegu gehienak paradisu fiskaletan eratzen direla eta profesionalak kudeatzen dituztela. Gainera, inbertsio funts hauetara sartzeko hesiak egoten dira, 1.000.000\$eko sarrera kapitala ohikoa izanik.

Hedge funds ek ekonomia ezkutua eta diru zuritzea errazten dute (Prado & Illera, 2013), eta funts hauen %60 paradisu fiskaletan kokatuta dago (2010), %37 Caiman uharteetan eta %27 Delaware-n. Orokorki bankuek New York eta Londresen kudeatzen dituzte funts hauek.

1949an AEBn sortu zen lehen *hedge fund*-a baina 90 hamarkada amaieran izan zuen hedapena. Oso instrumentu arriskutsuak dira eta **palanka-efektuaren** erabilera dute ezaugarri nagusi. Besteren finantzamendua erabiltzen dute baloreak erostean, honela irabaziak egon ezkerro errentagarritasuna (ROE, *return on equity*) handiagoa da, aldiz, galerak baldin badaude, globalizazio finantzarioaren ondorioz, mundu guztian zabalduko dira (Garzón Espinosa, 2011).

Deribatu finantzarioetan inbertitzen da funts hauetan (opzioak, futuroak, swapak ...) eta besteren baliabideak erabiltzen dira berauek finantzatzeko. Hori horrela izanik, suposa dezagun gure produktu finantzarioak emaitza txarra ematen duela, tresna finantzatu digun bankuak (adibidez) ez ordaintze bat izango du. Domino efektua gertatuko da.

1.4.2 Globalizazioa diru zuritzearen faktore

Aurretik aipatu moduan globalizazio finantzarioak kapital mugimenduen liberalizazioa izan du ondorio. Gainera, azken hamarkadetan erakunde finantzarioetan desarauketa eman da eta sistema finantzarioaren kontrolak sinplifikatu dira, diru zuritzea erraztuz.

Honez gain, globalizazio ekonomiko, sozio-kultural eta teknologikoak ere izan dute eragina diru zuritzean.

Munduko ekonomiaren globalizazioak droga trafikoaren, pertsona, kapital, zerbitzu nahiz ondasunen mugimendua erraztu du. NAFTA, MERCOSUR edo Europar Batasuna integrazio ekonomikoen adibide ditugu. 4.1.2.1 atalean mugimendu askatasunak diru zuritzea errazten duela baieztatu dezakegu.

Teknologia aurrerapenak eragin zuzen zuzena izan du diru zuritzean. Erakunde finantzarioetako transakzioak azkartu eta merketu dira, eta diru zuritzea erraztu dute. Banka elektronikoa, banka zuzena edo banka telefonikoa, kutxazain automatikoa... egunerokotasunaren zati bilakatu dira eta geroago aipatuko den **know your customer** prozesuak, nolabait, zentzua galdu du.

2009an dugu teknologia berri eta diru zuritzearen arteko erlazioaren adibide garbia: *Bitcoin*-a. 2014ko ekainean Parisen diru birtualen inguruan batzarra egin zen, eta GAFI-k txosten bat argitaratu zuen haren inguruan. Bertan aipatzen da diru birtualak anonimotasuna eskaintzen duenez, eskudiruak moduan, diru zuritzearen arrisku potentziala handitzen dela (FATF, 2014). El Confidencial egunkarian otsailean argitaraturiko albiste batek zion Zerga Administrazioiko Estatu Agentziak ez zekiela nola tributatzen zen eskubide erreal hau. Gainera, SEPBLAC (*Servicio Ejecutivo de Comisión de Prevención de Blanqueo de Capitales e Infracciones Monetarias*)-ek ere ez omen zuen argi ea *bitcoin*-ak kudeatzen dituzten enpresek Diru Zuritzearen Prebentziorako Legea bete behar zuten (Luna, 2015).

Libia Arreguik, Ertzaintzako Ikerketa Kriminal eta Polizia Judizialeko Unitateko Delitu Ekonomikoen Arloko Burua denak, argi utzi zuen gaur egun ezin dela kontrolatu zer gertatzen den sarean.

1.5 Ezaugarriak

Daniel Álvarez Pastor eta Fernando Eguidazu Palaciosek euren “*Manual de prevención del blanqueo de capitales*” eskuliburuan diru zuritzeak ondorengo ezaugarriak dituela aipatzen dute (2007, p.21):

- Nazioarteko izaera duen jarduera da. Funtsen mugimenduak zaildu egiten du antzematea, eta batez ere arlo honetan legegintza permisiboa duten herrialdeak aukeratzen dira. **Legegintzan oraindik koordinazioa falta** da.
- Jarduerak duen bolumen handiak, berezi egiten du. Bolumen handi horiek bihurtzeko geroz eta egitura konplexuagoak sortzen dituzte.
- Diru zuritzean jarduten duten organizazioak profesionalizatuta daude. Oso teknika sofistikuak erabiltzen dituzte eta organizazio egituratuak dira, kolaboratzaile zein konplizeak dituztenak (batzuetan erakunde finantzarioak).
- Erabiltzen diren teknikak anitzak eta aldakorrak dira. Gainera finantza sistemarako sarbidea lortzen dute gero eta prozedura garatuagoak sortuz.

2. Diru zuritzearen ondorioak

Estimazio batzuen arabera, 3 bilioi dolar zuritzen dira urtero munduan eta honek ekonomian dituen eraginak aztertuko ditugu puntu honetan.

Kontuan hartu behar da, diru zuritzearen eragin negatiboak larriagoak direla garapen bidean dauden herrialdeetan, merkatu txikiagoak direlako eta egitura sozial ahula izan ohi dutelako.

2.1 Sektore pribatua

Diru beltza edo ez-zilegia zuri bihurtzeak **inbertsio, arrisku eta errentagarritasun ekonomiko parametroak distortsionatzen** ditu. Organizazio deliktiboek jarduera komertzialetan hartzen dute parte dirua zuritzeko, honen ondorio izanik merkatuen ezegonkortzea. Izan ere, eskarian eta eskaintzan desoreka eragiten dute enpresa fatxadek.


Enpresa fatxadek ez dute kapitalen merkatura jo beharrik finantziazioa lortzeko, ondorioz lehiarako abantaila lortzen dute eta **lehiarako askatasuna murrizten** dute (STS 811/2012).

Enpresa fatxadek normalean jarduera komertziala burutzen dute, baina enpresa hauek euren jarduerarekin lortu nahi dutena dirua zuritzea da. Horretarako jatorri zilegiko eta ez-zilegiko sarrerak nahasten dituzte, eta askotan testafarroak egoten dira enpresa hauen atzean ohikoa izanik enpresa hauek atzerrian kokatuta egotea (bilatzen zailagoak direlako) (del Cid Gómez, 2009).

Enpresa hauek **merkatuan desorekak** eragiten dituzte, produktuak eurei gehien komeni zaien prezioan, lehiakideek baino merkeago saltzen dituztelako (transakzio ez zilegiekin subentzionatzen dituzte salmentak) edo salmentak gain fakturatzen dituztelako (Brot, 2002). Delitugileek diru zurizetik lortzen dituzten irabaziak herrialde batzuetako sektore edo industria jakin batzuk kontrolatzeko erabiltzen dituzte. Higiezinaren sektorea dugu horren adierazgarri.

Ondorengo irudian honakoa gertatzen da: droga trafikotik lorturiko 900.000€ garbigailuak erosteko erabiltzen dira. A eta B enpresak herrialde ezberdinetan daude kokatuta, baina jabe bera dute. A enpresak garbigailuak “saltzen” dizkio Bri, kasu honetan merkatuko prezioa (900.000€ tan erosi dira) baino merkeago eta honek C enpresari A enpresak erosi dituen prezio berean saltzen dizkio. B enpresak 600.000€ tan erosi dituela eta 900.000€ tan saldu dituela aitortzen duenez, 300.000€ko irabaziak zuritzen ditu. 300.000€ horien justifikazioa merkataritza jardunean egin duen irabazia da.

1.Grafikoa: Merkataritzan subfakturazioarekin zuritzea



Iturria: elaborazio propioa. Oinarria (OECD, 2009)

2.2 Ikuspuntu makroekonomikoa

Garapen bidean dauden herrialdeetan batez ere, **merkatu finantzarioen integritatea ahultzen** da diru zuritzearen ondorioz. Kapital ez-zilegien sarrerak baloreen kotizazioak aldatzen dituzte, inbertsio irizpideak distortsionatuz. Sistemaren sinesgarritasuna kolokan jartzen da eta kapital edo funtsen irteera saihestea zaila izaten da (Sanz,2009).

Politika ekonomikoaren kontrola galdu daiteke. Garapen bidean dauden herrialdeetan eragiten du batez ere, eta politikaren formulazioan erroreak eman daitezke estatistika distortsionatuak erabiltzearen ondorioz. Gainera, organizazio kriminalek funtsen transferentziak burutzen dituzte herrialde batetik bestera, ondorio izanik arrazoirik gabeko aldaketak moneta eskarian. Esan genezake garapen bidean dauden herrialdeetako kanbio-tasen eta interes tasen hegakortasunaren arrazoi bat diru zuritzea dela (Gómez, 2009).

Ekonomia erreala distortsionatzen du. Politika makroekonomikoa erabakitzeko beharrezko diren errenta banaketa edo gainerako datu ekonomikoaren faltsutasunak, politika ekonomikoaren kontrola zailduko du (Quirk, 1997).

Delitu fiskalen ondorioz **Ogasun Publikoak diru gutxiago jasotzen** du eta iruzurgilearen ondarea handitzen da (STS 974/2012 de 5 diciembre).

Izen ona galtzeko arriskua egongo da, herrialde batek transmititzen duen segurtasun eta sinesgarritasuna erabakigarriak dira inbertitzaileentzat. Hala, dirua zuritzen duen instituzio batekin harreman komertzialak dituen orok, bere izen ona kolokan jar dezake, eta honekin batera etorkizunean izan ditzakeen harremanak. Gainera, oso arriskutsua da kriminalek finantza erakundearen kontrola eskuratzea, finantza sistemaren integritatea arriskatzen delako, eta inbertitzaileek euren kapitala herrialdetik atera dezaketelako (Aninat, 2002).

Diru zuritzearen **prebentzioak gastu** bat du, estimazioen arabera, arlo pribatuko entitate finantzarioek 10.000 milioi \$/urteko gastua egiten dute prebentzioan (KPMG, 2014). SEPBLACen 2014ko aurrekontua, hau da, gastu publikoa 10.134.000 € izan zen (SEPBLAC, 2014).

2.3 Gizartea

Libia Arregik diru zuritze kasuen ugaritzearen arrazoietakoa bat **ustelkeria** kasuen ugaritzea dela dio, zuritzeak posible egiten baitu ustelkeriatik lorturikoa berriz ere sisteman sartzea.

Ustelkeria arazo etikoa dela dio Antonio Argandoña. Pertsonengan eta gizartearengan eragin negatiboa du ustelkeriak, ikasketa moralaren prozesuan, pertsonen gaitasunean eta jokaeran eragiten baitu. Gaitasunen galerak (edo bizioen eskurapenak) modu ustel batean jokatzeari eragiten dio bai pertsonari eta baita gizarteari ere. **Portaerak imitatu** egiten dira eta erresistentzia soziala murriztu egiten da (Argandoña, 2000).

Honela, **legezkotasun jarrera ez izatea sustatzen** dute delitu fiskal, ustelkeri politiko, zein diru zuritze kasuek. Ogasuneko inspektoreek amnistia fiskalaren inguruan egindako deklarazioetan halaxe adierazi zuten, arduratuta zeudela gizartean izango zuen eraginaz (Llorente, 2014).


3. Dirua zuritzeko faseak

Diru zuritzearen prebentzian dagoen arazoetako bat diru zuritze metodo ezberdinentzat baliagarria den soluzio optimoa bilatzea da. Kazetarien artean interes handia piztu da gai honen inguruan, iritzi publikoan honek sorrarazten duen interesa dela eta. Baina diru zuritzean erabilitako teknika onenak ez dira argitaratuak izan (Interpol, Europol, Eurojust, AEBko Altxorreko Saila...) (Alvarez & Eguidazu, 2007).

Bernasconi, Zünd, AEBko Altxor Saila edo Ackermann (Sanz, 2009) ditugu diru zuritzearen prozesuko eskema posibleen adibide, baina guk gehiengoak onartzen duen eskema azalduko dugu, GAFI -rena.

1990an GAFIk “Diru zuritzearen tipologia” deituriko dokumentua argitaratu zuen, bertan 3 fase ezberdin zituelarik: kolokazioa (*placement*), estalketa (*layering*) eta integrazioa (*integration*). GAFIk eginiko bereizketa hau, nazioartean zabaldurik dagoen eta gehiengoak onartzen duena da. Eskema hau, ordea, praktikan ez da modu absolutuan ematen, gerta daitekeelako faseak nahastea, edo etapa bat ez burutzea. Kasuistika oso konplexua da, baina diru zuritze prozesua honela burutzen dela azaldu dezakegu:

2.Grafikoa: Diru zuritzeko faseak



Iturria: elaborazio propioa

3.1 Kolokazioa

Behin jatorri ez-zilegiko dirua eskuartean dagoenean, diruarekin dagoen lotura ezkutatzen saiatzea izango da fase honen helburua. Dirua edo edozein motako ondasun izan daiteke, baina gehienetan billete txikitan adierazita egongo den eskudiru kantitate handia izango da.

Lehenengo fase honetako ohiko operazioak dira:

- Erakunde finantzarioen bitartez. Sistema finantzarioan inolako susmorik gabe dirua kolokatu nahi duenak, kontuan hartzen du:
 - Espainian 3.000€ gainditzen duten banku operazioak egin ezker, hauek Zerga Administrazioako Estatu Agentziari jakinarazten diote. Beraz, modu honetan kolokatu nahi duenak, kontuan hartu beharko du herrialde bakoitzak duen muga *reporting*-ak egiterako orduan.
 - Bankuko pertsonalarekin harremana izan ezker, edo bankua organizazio kriminal baten esku badago, kantitate handiak transferitu ahal izango dira.

- Funtsen titulartasuna ezkutatzeko, dokumentu faltsuak erabili daitezke, hala nola, zor-agiriak, txekueak ...
- Entitate finantzarioetako segurtasun kaxen erabilera. Aukera hau beste irtenbide bat bilatzen den bitartean erabili ohi da.
- Eskudiruaren kontrabandoa, droga ekoizten duten herrialdeetan oso erabilia da. Europa barneko frontierak desagertzeak eta nazioarteko garraioan eman diren aurrerapausoek sistema honen erabilera erraztu dute. Dirua garraiatzen duenak komisio bat jasotzen du ordainetan.
- Balio handiko ondasunen erosketa eskudirutan. Dirua zuritzeke metodo klasikoa da etxeak, barkuak, kotxeak, erlojuak ... erostea.
- Dibisak aldatzeko entitateak, zerbitzu postalak eta telegrafikoak, kasinoak, interneteko kasinoak... erabiltzen dira dirua zuritzeke. 10/2010 Obligaziodun Subjektu bihurtu ziren hauek ere, beraz, entitate finantzarioetan erabiltzen diren antzeko sistemak erabili behar dituzte dirua kolokatzeko.

Lehenengo fase hau erabakigarria izango da diru zuritzaileentzat, diru kantitate handia izango dutelako esku artean, eta gero eta neurri zorrotzagoak dituztelako inolako susmorik sortu gabe berau kolokatzeko. Libia Arregiren arabera, behin fase hau gauditutakoan oso zaila da delitugileak harrapatzea, ondasunak transformatuta egongo direlako.

3.2 Estalketa

Bigarren fase honetan ahalik eta operazio gehien egiten dira, jatorri ez zilegiko ondasunekin finantza ingeniarietako operazioak burutuko dira. Helburua bakarra izango da: elkar nahasitako, kateaturiko operazioen zantzua ahalik eta gehien ezkutatzea autoritateei.

Estalketa fasean ohikoak diren operazioak dira:

- Lehenengo fasean erositako ondasunen salmenta, adibidez, etxebizitzak, kotxeak, urrea edo balore handiko beste hainbat ondasun. Salmenta herrialdean bertan edo atzerrian egin daiteke, eta helburua titularraren identifikazioa zailtea da.
- Funtsen transferentzia elektronikoa. GAFI -k aipatzen duenaren arabera, metodo hau da estalketan gehien erabiltzen dena, teknologiaren garapenak eman duen azkartasunaren ondorioz.

3.3 Integrazioa

Azkeneko etapan itxura legala ematen zaio jatorri kriminaleko ondareari. Behin estalketa amaitu ondoren, zuritzaileak justifikazio bat behar du ondasunen legaltasuna erakusteko. Integrazio prozesuan horixe egingo da, funtsak ekonomian integratu legaltasun itxura emanez.

Integrazio fasean benetan zaila izango da funtsen jatorri ez zilegia antzematea, aurreko etapak horretara bideratu baitira.

GAFIk ondorengo metodoak aipatzen ditu:

- Ondasun higiezinaren salmenta: ondasun hauen balioa ez da erreza zenbateteko, horregatik agintari fiskal entzatzat zaila da ondasunarengatik ordaindu den kantitatea deklaratuaren berdina den ziurtatzea. Prezio errealaaren determinazioan dagoen zailtasunak posible egiten du benetan saldu dena baino prezio baxuagoan saldu dela esatea. Honela erosleak saltzailearekin adostutako zenbatekoa diru beltzarekin osatzen du. Gainprezioarekin ere berdín egiten da, deklaratzén den baino kantitate baxuagoa ordainduz, plusbalio faltsu bat egonik. Baina metodo honekin lortzen den gauza bakarra diru beltza erosletik saltzailera, edo saltzailetik eroslerara pasatzea da.
- Enpresa pantaila eta maileguak 4.1 atala.
- Esportazio eta inportazioko faktura faltsuak 4.10 atala.

4. Metodoak

Atal honetan dirua zuritzeko metodo erabilienak aztertuko ditugu, baina batez ere paradisu fiskaletan zentratuko gara. GAFIren dirua zuritzeko faseen eskeman aipatu ditugu batzuk, baina orain sakonago aztertuko ditugu. Gainera, diru zuritzean eta zerga-saihestean erabiltzen diren metodoak antzekoak dira, beraz, azterketa honetan biak landuko ditugu. Ondorengo metodoak izango ditugu aztergai:

- Paradisu fiskalak
- Fondon transferentzia informalen zerbitzuak, Hawala
- Organizazio kriminalak
- Pitufeoak
- Sariak erostea
- Kasinoak
- Ondasunen erosketa
- Enpresa zilegien kapitalizazioa
- BEZaren karrusela
- Produktu edo zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresen sorrera

Prebentzio alorrean emaniko aurrerapausoek eragina izan dute diru zuritzean erabilitako metodoetan. Izan ere, arlo honetako araudia geroz eta garatuago eta zehatzago den heinean, sistema eta teknika sofistikatuagoak erabiltzen dituzte. Honela, metodo edo bide bakoitzaren bukaeran ahal den heinean prebentzio alorreko hutsuneak adierazten saiatu gara.

Interesgarria iruditu zaigu 10/2010 Legea aztertu aurretik dirua zuritzeko metodoetan barneratzea, sistema prebentiboaren eraginkortasuna ulertzen lagunduko baitigu. Hala ere, zenbait kasutan informazio gehigarria beharrezko izan daiteke, horretarako ikus 6. atala.

4.1 Paradisu fiskalak

Paradisu fiskalen jatorria XVII mendean dugu. Espainiak eta Portugalek Amerikan zuten Inperioa desegin nahian, Frantziako eta Ingalaterrako erregeek kortsarioak subentzionatu zituzten. 1540 eta 1650 urte bitartean urte eta zilarrez betetako 11.000 itsasontzi atera ziren Amerikatik Espainiarantz, eta horietatik 107k pirata erasoak jasan zituzten. Ebatsitako urrea Bahamak artxipelagora, Caiman Uharteetara edo Belizera eramaten zuten, gaur egun paradisu fiskalak izaten jarraitzen dutenak. Herrialde hauek baldintza bakarra jartzen zuten: euren lurraldetik kanpo burutzea lapurreta (Cervera, 2015).

Paradisu fiskala, atzerritarrei zerga ordainketa salbuesten edo zerga oso baxuak ezartzen dizkien jurisdikzioa da. Herrialde hauek euren lurraldeetan sozietateak eratzen dituzten edo banku kontuetan inbertsioak dituzten atzerritarrei onurak eskaintzen dizkiete. Herrialde hauen helburua ekonomia nazionalari bultzada emateko atzerritar inbertsioa erakartzea da (Salvados, 2007).

Paradisu fiskalaren definizio adosturik ez dago, baina OECDk (Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundea) 1998an lau giltzarri identifikatu zituen (Tobin & Walsh, 2013).

- **Zerga baxu edo nulua** dituen lurralde edo herrialdea.
- **Gardentasun falta** lege mailan, erregulazio mailan eta funtzionamendu administratiboan.

- Lurralde hauek eskaintzen dituzten onurak aprobetxatzen dituzten atzerritarren inguruko **informazio fiskalaren elkartruke nulua** gainerako herrialdeekin.
- **Estankotasuna**, salbuespen fiskalaz gozatzeko herrialdeek ez dute jarduera ekonomiko erreal, edo herrialdearentzako funtsezko den jarduerarik galdatzen (OECD, 1998).

Espainiako ordenamendu juridikoak ez du paradisu fiskalarentzat definiziorik, zerrendak ditu horren ordez. 1991 urtean Zerga Ezarpen Bikoitza Saihesteko Hitzarmena sinatu ondoren Ogasunak 48 herrialde sartu zituen zerrenda horretan Dekretu baten bidez. Zerga ezarpen bikoitzaren aurkako hitzarmenak atzerriko inbertsioa sustatzeko sinatzen dituzte, herrialde bakarrean ordaintzean bikoizketak ekiditen dira. Honela, 2003ko otsailaren 2an 15 herrialdek paradisu fiskal izaera galdu zuten: Andorra, Holandarren Antillak, Aruba, Zipre, Arabiar Emirerri Batuak, Hong Kong, Bahamak, Barbados, Jamaika, Malta, Trinidad eta Tobago, Luxenburgoko, Panama, San Marino eta Singapur.

2015eko urtarrilaren 1etik aurrera, 36/2006 Legeko 2. atalean aipatzen da paradisu fiskalen zerrenda ondorengo irizpideen arabera eguneratuko dela:

- Zerga ezarpen bikoitza saihesteko hitzarmena badago herrialde horrekin, informazio elkartruke klausula duena, paradisu fiskalen zerrendatik aterako da.
- 36/2006 legeko 4 atalean aurreikusitako zerga informazio elkartruke eraginkorrik ez egotea.
- Gardentasuneko Foro Globalak eta Helburu Fiskaletako Informazio Elkartrukeak buruturiko ebaluaketak kontuan hartuko dira (Ministerio de Hacienda, 2014).

3.Grafikoa: Espainiak paradisu fiskaltzat dituen herrialdeak



Iturria: Garbayo, I. (2015/02/23). El Correo.

<http://www.elcorreo.com/bizkaia/economia/201502/16/chollo-paraisos-fiscales-20150202175254.html>
helbidetik eskuratua

OECDren zerrenda ezberdina da, honek 3 lista baitzituen: lista beltza, grisa eta kooperatzen ez duten finantza zentroak. Gaur egun ez dago kooperatzen ez duen herrialderik, baina 2002an 7 jurisdikzio zeuden lista horretan: Andorra, Liechtenstein,

Liberia, Monako, Marshall Uharteetako Errepublika, Nauruko Errepublika eta Vanuatuko Errepublika. Costa Rica, Filipinak, Malaysia eta Uruguayk osatzen zuten lista beltza ere desagertu da.

Egun, OECD-rekin zerga helburuetarako gardentasun eta informazio elkartruke eraginkorrerako konpromisoa hartu dute 38 jurisdikziok (OECD, 2010).

4.1.1 Banku-sekretua

Paradisu fiskalen ezaugarri baliagarri eta erakargarrienak **opakutasuna** eta **banku-sekretua** dira. Banku-sekretua duten herrialdeetan, atzerriko Ogasun Ministerioek ez dute herrialde horretan kontua duten hiritarren informazioa jasotzeko aukerarik. Salbuespen bakarra muturreko kasuak dira, hala nola, droga edo arma trafikoeekin loturiko hiritarren informazioa.

Baina nazioarteko prebentzio alorrean ematen ari diren aurrera pausuen adierazgarri dugu banku-sekretuaren inguruan Europar Batasunean egin den hitzarmena. Adostasun politiko honen helburua zerga-saiheste eta iruzur kasuei aurre egitea da **banku-sekretuari amaiera** emanez. Alemania, Erresuma Batua, Espainia, Frantzia, Italia eta Polonia izan dira neurri honen sustatzaileak eta 2016ko urtarrilaren 1an ezarriko da zuzentaraua, 2017an hasiera emanez informazio elkartrukeari. Austria eta Luxenburgo informazio elkartrukearen aurka agertu ziren, baina azkenean Europar Batasuneko 28 herrialdek onartu dute.

4.1.2 Paradisu fiskalen funtzionamendua

Modu ezberdin eta anitzetan zuritu daiteke dirua paradisu fiskaletan, horregatik gehien erabiliak aztertuko ditugu. Jose Maria Pélaezek dion moduan “dirua zuritzean dagoen arazo bakarria dirua edukitzea da” (Peláez Martos, 2015).

4.1.2.1 Nola eraman dirua paradisu fiskalera?

Banka pribatua

Aberastasun handia dutenei zuzenduriko bankaren alorra da. Konfidentzialtasuna eta trataera pertsonalizatua bermatzen duten jarduerak dira, finantza sektoreko garatuenak. Banku pribatuen filialek eta atzeritar bankuen sukurtsalek finantza sektoreko agenteekin batera, banka pribatu jarduerak burutzen dituzte. Baina, nola funtzionatzen du banka pribatuak diru zuritze prozesuan?

Galderari erantzuteko Jose Maria Pelaezen azalpenak erabiliko ditugu:

- Banka pribatuko bezero izateko baldintzak bi dira.
 - 500.000€ izatea (edo 100.000 € zenbait kasutan).
 - Protokoloa segurtasun neurriak pasatzea: mafioso, droga trafikatzailerik edo terrorista ez zarela frogatu eta diruaren jatorria adierazi.
- Paradisu fiskalera eraman nahi dugun dirua esku artean dugunean, telefono dei bat egin beharko diogu banka pribatuari.
- Bankuaren filial bateko edo banku korrespontsaleko gestorea gure etxera etorriko da diruaren bila eta ordainagiri bat emango digu.
- Gestoreak bere izenean gordailutuko du banku komertzial batean, eta gure izena ez da inon agertuko.
- Transferentzia sinple batekin, dirua paradisu fiskalean egongo da (Peláez Martos, 2015).

Bankuek ez dituzte sukurtsalak munduko herrialde guztietan. Beraien bezeroei atzerrian produktu eta zerbitzuak eskaintzen jarraitzeko erakunde laguntzaileak bilatu behar dituzte eta erakunde hauen artean sortutako harremanari korrespontsal erlazioa deitzen zaio. Banku korrespontsalak eskaturiko agindu eta eragiketak burutzen ditu eta bankua kokatzen den herrialdeko monetan kontu ireki bat mantenduko da.

Gure dirua paradisu fiskal batean kolokatzeak izango duen kostua 1.000€ ingurukoa izango da. Erraza.

Kotxe bidaiia

Maiatzak 3ko EHA/1439/2006 Aginduak erregulatzen ditu ordainketa bideen mugimenduak.

- Espainian sartu edo Espainiatik irteteko pertsonako eta bidaiako ezingo da gainditu 10.000€ko muga. Banku billete, moneta nazionalean edo beste moneta batean adierazitako eramaile-txeke eta elektronikoki adierazitako ordainketa bideei aplikatuko zaie.
- Nazio barruan eginiko eskudiru mugimenduek ezingo dute gainditu 100.000€ pertsonako muga. Banku billete, moneta nazionalean edo beste moneta batean adierazitako eramaile-txeke eta elektronikoki adierazitako ordainketa bideei aplikatuko zaie. Zerrendatutako ordainketa bideak edukitzailearen bizilekutik leku aldatzea mugimendutzat kontsideratuko da.
- Txeke izendunei eta kreditu zein zordunketa txartelei ez zaie Agindua aplikatuko.
- Aurreko kantitateak gainditu nahi dituenak deklarazio orri bat bete beharko du kapital mugimendua burutzeko (OM 1439/2006, de 13 de Mayo).

Hau kontuan izanik, demagun, kotxe batean 5 pertsona doazela Espainia eta Frantziako mugara 500.000€ eraman ahal izango dituzte, eta hortik aurrera 50.000€/bidaiako adibidez Suitzara edo Andorrara joan nahi badute. Baina kokapen geografikoak eragina du paradisu fiskala aukeratzeko orduan, arriskua baitago diruz betetako maleta batekin Europa erdia bidaiatzean. Horregatik, normalean espainiarrek Gibraltar aukeratuko dute, edo bestela Andorra izango da euren helmuga. Hala ere, Andorrarekin egin diren azken hitzarmenek informazio elkartrukea ahalbidetzeko pausua egin dute, nahiz eta hauen eraginkortasuna, oraindik, ikusteko dagoen.

EHA/1439/2006 Aginduan **prebentzian hutsunea** ikusten dugu. Aurretik, globalizazio finantzarioko ezaugarri garrantzitsu moduan aipatu dugu **kapital mugimenduen liberalizazioa**. Honela, globalizazio finantzarioa diru zuritzearen faktore dela baieztatu dugu. Ideia hori berretsi dezakegu orain.

4.1.2.2 Nola zuritu dirua paradisu fiskalean?

Maileguak

Lehendabizi *offshore banku* terminoa azalduko dugu. Normalean paradisu fiskaletan kokatzen diren bankuak dira eta lege bereziek arautzen dituzte. Honela, tratamendu fiskal hobea izan dezakete, edo askatasun handiagoa izan dezakete euren operazioak burutzerako orduan. Euren helburu biztanleria atzerritar inbertsioa da, pertsona fisiko zein juridikoak, eta ezarrita dauden herrialdeko biztanleek ez dute banku hauetan sarbiderik (World Wide Banking, 2015).

Offshore banku batean dagoen dirua zuritzeko metodo bat denok ezagutzen dugun banku batean, paradisutik kanpo, mailegu bat eskatzea da. Mailegua eskatzean, *offshore* bankuko gordailua banku-abal moduan jartzen da. Metodo honen prozedura sinplea da: mailegua ez da ordaintzen eta bankuak abala jasotzen du *offshore* kontutik. Dirua zuritu da.

Diru zuritzeko metodo moduan maileguak erabili zituztenen adibide ditugu Carlos Fabra eta bere emazte zen María Amparo Fernández. Maileguak erabili zituzten dirua zuritzeko, kasu honetan diru beltzarekin ordaintzen zituzten kuotak. 33 kreditu eskatu zituzten 5.000.000€ zuritzeko asmoz.

Aurre ordaindutako txartelak

Bankuek eskaintzen dituzten txartel hauek ohiko kreditu txartelen erabilera bera dute, baina diru zuritzeko ezaugarri ezin hobea eskaintzen dute: **anonimotasuna**. Txartel hauek ez daude kontu korronteei lotuta eta aurretik, kontutik independente, kargatutako saldora egongo da mugatuta txartela (VISA, 2015).

Bi motatako aurre ordaindutako txartelak daude, irekiak eta itxiak. Txartel irekiak dira diru zuritzean erabiltzen direnak, posible delako txartel hauekin munduko edozein herrialdeko kutzazain automatikoetan dirua ateratzea edo saltokietan erabiltzea. Oso ohikoa da *offshore* bankuek aurre ordaindutako txartelak eskaintzea, honela, dirua zuritu nahi duenak bere funtsak eskuragarri izango ditu edozein herrialdeko kutzazain automatikotan (Miguel & Gómez).

2010ean eginiko txosten baten arabera, estatubatuarren %17ak aurre ordaindutako txartelak erabiltzen zituen eta 2017rako estimazioa munduko merkatuaren %53ak erabiltzea zen (Souto, 2012).

Shell companies edo sozietate instrumentalak

Kaleko hizkuntzan enpresa pantaila moduan ezagunak direnak eta ingelesez IBC (*International Business Company*). Enpresa hauek paradisu fiskaletan eratzen dira, sozietate sekretua eta banku sekretua lagun dituztelarik eta enpresa jarduera izan dezakete edo ez. Akzioak eramaile moduan adierazita egon daitezke eta ez da beharrezkoa akziodunen erregistro publikoa. Enpresa hauek ez dituzte urteko kontuak publiko egiten eta enpresa erregistratuta dagoen herrialdeetik kanpo burutzen badituzte eragiketak zerga salbuespena lortzen dute (Lexdir, 2014).

Pertsona fisiko edo juridiko batek paradisu fiskal ezberdinetan sozietate instrumentalak eratu ditzake. Malaya kasua dugu horren adibide, Juan Antonio Rocak 71 enpresa pantaila eratu zituen, eta inon ez zegoen jasota bere izena testafarroak erabili baitzituen (Flores, 2013).

Era honetan definitzen du RAEk testafarroa: “Pertsona batek beste bati bere izenean kontratu, pretentsio edo negozio bat egitea onartzea”.

Jatorri ez zilegiko kapitala duten enpresa pantailetatik dirua zuritzeko, funtsak transferitzen dituzte. “Mailegu” izaeran jasotzen dituzte funtsak enpresa pantailen benetako jabeek (Alvarez & Eguidazu, 2007).

4.1.3 Prebentzioa

Aipatu dugu paradisu fiskal batera dirua eramatea erraza dela. Europar Batasuneko Funtzionamendu Hitzarmeneko 63 artikuluan jasotzen den moduan, kapitalen mugimenduak mugatzea debekatuta dago. Horra lehenengo hutsunea.

Banku sekretua eta emaniko prebentzio neurriak aipatu ditugu ondoren, ea 2017rako hitzarmenean adosturikoa betetzen duten.

Eta azkenik dirua zuritzeko hiru modu azaldu ditugu. Honi lotua, kasu bat aipatu nahi dugu. Audientzia Nazionala Banco Madrid ikertzen ari da, erakundea dirua zuritu nahi zutenen esku jarri zutelako. Obligaziodun Subjektu moduan zituzten barne kontrolak ezabatu edo gutxiagotu zituzten, jakinaren gainean egonda jatorri ez zilegiko funtsak zuritzeko aukera zegoela, eta gainera, entitatea bera, helburu horietarako prest agertu zuten (Guindal, 2015).

Maileguaren metodoan, bankua Obligaziodun Subjektua da (6. Atala), eta Banco Madriden kasuarekin lotu nahi dugu. Banco Madrid-ek kapital gehiago erakartzeko helburuarekin barne kontrolak ez zituen bete. Banku bati maileguaren abal moduan Suitzako gordailu bat eskaintzen badiote, eta ez-ordaintze bat badago, **obligaziodun subjektuaren eginkizunak beteko** ditu? Abisatuko al dio Sepblack-eri? Edo berdin izango dio diruaren jatorriak, Banco Madrid-i moduan?

Gobernuak paradisu fiskalei 2012an eman zien erantzuna **Amnistia Fiskala** edo 12/2012 Lege Errege Dekretua izan zen. Bertan dirua zuritzea ahalbidetu zuen diru beltzaren %10 ordainduz. Erregularizazio fiskalaren helburua zerbitzu publikoen mantenua zen, hau da, Ogasun Publikoaren baliabide beharra (RD-1 12/2012, de 30 de marzo).

Paradisu fisikaletan hain preziatua den banku sekretuari lotuta, Suitzako bankuetako bezero zirenen informazioa gobernu ezberdinen eskutan utzi zuen Hervé Falcianik (AEB, Frantzia zein Espainia) eta Rudolf M. Elmerrek Wikileaks-en eskutan. Biak kartzelan egonak. Paradisu fiskalekin amaitzeko **salakeriaz** gain beste biderik ba ahal dago?

4.2 Fondoaren transferentzia informaleen zerbitzuak

TIF sistemak (*Transferencias Informales de Fondos*) Administrazioako kontrol fisikaletik kanpo geratzen diren sistemak dira eta ondorengo ezaugarriak dituzte:

- Ez dute finantza sistema nazionalean jarduten.
- Funtsen mugimendurik ez dago, ez fisiko ez elektronikoa.
- Transferentziak liburuetan apuntatzen dira eta behin amaituta suntsitu egingo dira (Mallada Fernández, 2012).

Ekonomian eragin negatiboa duten transferentziak dira hauek, politika monetario eta kanbio tasetan eraginez batez ere. Dibisen balantzan eta inbertsioetan eragin negatiboa dute eta funtsak irteten diren herrialdeetan hazkundera moteldu dezakete.

Politika fisikaletan eragin negatiboa dute baita ere, ekonomiako ziklo ofizialetik irteten diren funtsek, baliabideak urritzen baitituzte.

Gainera, herrialdeek informazio galera dute politika makroekonomikoa ezartzerako garaian, datu eta estatistikak distortsionatzen direlako (Lombardero Expósito, 2015).

4.2.1 Hawala

Ekialdeko Asian eta Ekialde Ertainean IX mendean sortu zen sistema da Hawala. Gaur egun milioika etorkinek euren familiei dirua bidaltzeko erabiltzen duten sistema da eta sorta informal hauen bidalketak ez du identifikazio beharrik. Diru bidalketa erregulatu gabeko sare baten bidez burutzen da eta transferentzia ezkutuan mantentzea ahalbidetuko du sistema honek.


Hawaladars deituriko bitartekariak ohorezko gizonak dira, horregatik **konfiantzan** oinarritzen den sistema da. Bitartekari hauek euren bezeroen datuak isilpean gordetzen dituzte eta milaka pertsonak erabiltzen dute ondorengo arrazoiengatik:

- Erakunde finantzario ez eraginkorrek eta komisio altuak dituzten herrialdeetako etorkinek erabiltzen dute.
- Sistema hauek erabilia komisioez gain, zergak saihesten dituzte.
- Herrialde batzuk dituzten kapital mugimenduen mugak saihesten dira (Jost & Sandhu, 2003).

Funtzionamendua sinplea da, baina esan bezala, konfiantzan oinarritzen dena. Lau pertsonaia ditugu hawala sisteman: transferentzia burutzen duena, *hawaladarra* jatorrian, *hawaladarra* helmugan eta hartzailea.

Funtzionamendua aztertuko dugu adibide honen bidez. Hawala erabiliz Espainiatik Pakistanera dirua bidali nahi duenak, *hawaladarraren* dendara joan beharko du eskudiruarekin. Bitartekari hauek enpresa fatxadak izan ohi dituzte, hala nola, lokutorio, telefonia denda zein kanbio etxeak. Eskudirua ematean komisio bat ere ordaindu beharko du eta hartzailearen datuak (helbidea eta datu pertsonalak) emango dizkio Espainiako *hawalarradari*. Hartzailearen datuak transakzioa burutu ondoren borratuko ditu, Zerga Administrazioetik at dauden eragiketak baitira eta aztarna guztiak borratu nahi izango dituelako. Espainiako *hawaladarra* Pakistango bitartekariarekin jarriko da harremanetan eta kode edo pasahitz bat partekatuko dute. Ez da transferentziarik egiten, banku konpentsazio sistema batek bezala funtzionatzen baitu. Gure kasura joz, Pakistangoak ere transferituko du dirua Espainiara, beraz, **konpentsazioarekin likidatzen dira**. Mugimendu fisiko edo elektronikoa konpentsazioan gertatuko da.

4.Grafikoa:Hawala sistemaren funtzionamendua




Iturria: elaborazio propioa

Nahiz eta sistema hau funtsen transferentzia zilegietan erabilia izan daitekeen, eskaintzen duen **anonimotasunak** eta **dokumentazio edo identifikazio minimoak** jarduera ez zilegiak finantzatzeko sistema aproposa bilakatu dute. Faktore kultural eta ekonomikoek erakusten dute bere erakargarritasuna. Alde batetik merkeago, seguruago, arinago eta burokrazia gutxiago eskaintzen duen sistema bat da. Beste aldetik, herrialde hartzailetan finantza erakunde ez-eraginkorrek (interes falta erakutsi dute sorten inguruan) eta finantza polizia errepresiboak fondoerako transferentzia informalaren zerbitzuak sustatu dituzte (El-Oochi, 2002).

Ondorengo taula, GAFIko kide diren 25 herrialderi luzaturiko galdeketako emaitzen laburpen grafikoa da. 22 herrialdek erantzun zuten eta bertan Hawala sistema zergatik existitzen zen galdetu zitzaie, ardatz bertikalean herrialde kopurua dago adierazita, horizontalean Hawala erabiltzeko arrazoiak. 22 herrialdetatik 10ek uste dute hawala sistema prozesu kriminalak finantzatzeko erabiltzen dela, eta 11k zergak saihesteko erabiltzen dela.

5.Grafikoa:Hawala sistema erabiltzeko arrazoiak



Iturria: elaborazio propioa, datuak: *The role of hawala and other similar service providers in ml/tf*, GAFI 10/2013

Nazio Batuen Erakundearen arabera Ekialde Hurbileko banku transakzioen %25 opakoak dira eta urtero 200.000 milioi dolar baino gehiago mugitzen dira munduan sistema honekin.

Espanian 200-300 bitartekari edo *hawaladar* daude, gehienak Katalunian eta sistema hau erabilia 300 milioi euro mugitzen dira urtero. Segurtasun indarrek ez dakite, ordea, 300 milioitatik zenbatek finantzatzen duten terrorismoa (R.R., 2014).

Aurretik aipaturiko GAFIren diru zuritze eta terrorismoaren finantzaketa eskema aztertu dezakegu hawala sistemarekin.

- Kolokazioa: esan dugun moduan enpresa fatxadak dituzte (lokutorioak, jatetxeak...) eta enpresa hauen izenean sartu dezakete dirua banketxetan, edo enpresako gastuak ordaintzeko erabili dezakete.
- Estaltzea: diruaren mugimendu fisikorik ez dago ia, konpentsazio bidez likidatzen dituztelako sortak. Gainera, ez dago ia dokumentu edo frogarik, behin atzerriarekin harremanetan jartzean paper guztiak suntsitzen direlako. Honenbestez, oso zaila izango da antzematea.
- Integrazioa: *hawaladarrek* lorturiko komisioekin enpresa jarduera berriak sor ditzakete edo paradisu fiskaletako kontuetan sartu. Bestalde, bidalitako dirua organizazio terrorista batek erabiliko du (helburua hori bazen).

Terrorismoaren finantzaketarako hawala bide erabilienetarikoa dela aipatzen dute iturri batzuk, 11M Atocha-ko atentatua egiteko 50.000€ erabili ziren edo 11S burutzeko 292.000-365.000€. Analsi batzuen arabera yihadistek urtero 5.000.000€ lortzen dituzte eta hawala sistema erabilienetako bat da (de Pozuelo, 2014).

4.2.2 Prebentzioa

SEPBLAC-ek eskudirua erabiltzen duten zuritzeko sistemen inguruan, hawala barne, ondorengo ezaugarria dutela aipatzen du: “Identifikatu gabeko portaerek neurri prebentiboen inplementazioa zailtzen dute, hori horrela izanik, hautemateko elementuak erabiltzeko ezintasuna gertatzen da (SEPBLAC, 2008).”

Banku sistemaren unibertsalizazio eta hazkundeak transakzioen azkartasuna eta segurtasuna bideratu dute. SEPBLAC-en aburuz, banku sistemaren garapenak eskudiruaren erabileraren murrizketa nabarmena izan beharko zukeen ondorio, baina ez da hala izan. Zergatik? Prebentzio alorrean eman diren neurriek banku sistemaren atak itxi dizkietelako diru zuritzaileei. Ondorioz, hawala bezalako erregulatu gabeko sistema tradizioaletara jotzen dute.

4.3 Organizazio kriminalak

Dirua zuritzeko metodoak ari gara aztertzen, baina kasu honetan elkarketa mota jakin bat aztertuko dugu, krimenak burutzen dituzten taldeak, alegia. Diru zuritzearen prebentzioaren jatorrian, organizazio hauek burutzen dituzten jarduerak murrizteko eta kontrolatzeko helburua zegoen. Atal honetan aipatuko den moduan, lortutako etekinak jarduera ez zilegiak finantzatzeko erabiltzen dituzte organizazio hauek. Honela, neurri prebentiboak horretan zentratu ziren: jardueren finantziazioa galarazten bazuten, krimen gutxiago egongo zen. AEBn eman ziren lehen prebentzio urratsak droga trafikoa kontrolatzeko eman ziren, eta aurretik 1.3 atalean azaldu ditugun gertaerek ondorio izan dute diru zuritzea, jarduera bezala, prebentzea.

Estatuen eta gizartearen segurtasuna arriskuan jarri dezaketen nazioz haraindiko organizazioak dira. Organizazio hauen ezaugarri nabarmenenak lau dira:

- Jarduera anitzak burutzen dituzte errentagarritasun jakin batzuk lortzeko. Hala nola, droga trafikoa, gizakien salerosketa, prostituzioa, eroskeria ...
- Nazioartean mugitzen dira. Merkatuen globalizazioak sustatuta herrialde ezberdinez osaturiko sareak osatzen dituzte euren jarduerak aurrera eramateko.
- Indarkeriaren erabilera euren identitatearen zatia da.
- Jarduera ez da momentu puntualetan gauzatzen, iraupena ez da epe laburrekoa. Helburuak lortu ahal izateko jarduera iraunkorrak burutzen dituzte (Cordero Blanco, 1997).

J. Fernandezek azpimarratzen du krimen organizatua izateko jarduerak iraunkorra izan behar duela eta modu hierarkizatuan funtzionatu.

Kode Penaleko XXI Tituluko (Konstituzioaren aurkako delituak) IV Kapituluko 515.1 artikuluan elkarketa ez zilegiak zigortzen dira. Aldiz, 2015eko uztailaren 1etik aurrera 1/2015 erreforma tarteko, 238 artikuluan honela tipifikatuko da:

Elkarketa ez zilegiak zigorgarriak izango dira, kontuan hartuta:

1º Objektua delitu bat burutzea dutenak edo eratuak izan ondoren delitua burutzea sustatzen dutenak.

2º Jarduera burutzeko, nahiz eta jarduera zilegia izan, pertsonalitatearen kontrol edo alterazio edo eta indarkeria erabiltzen duten taldeak.

3º Izaera paramilitarreko organizazioak.

4º Ideologia, erlijio edo pentsaera arrazoiak tarteko; edo etnia, arraza edo nazio, sexu, orientazio sexual, egoera familiar, gaixotasun edo desgaitasuna duten pertsona, talde edo elkartearen aurka, modu zuzenean edo zeharka, gorroto, diskriminazio, areriotasun edo indarkeria pizten, sustatzen edo bultzatzen duten organizazioak. (LO 1/2015, de 30 de marzo).

Prozedura Kriminalaren Legeko 282 bis artikuluko laugarren lerroaldean aipatzen dira organizazio kriminalek burutzen dituzten delituak.


Gaur egun organizazio kriminalen inguruko berriak oso ugariak dira. Espainian kartel kolonbiarrak, mafia turkiarra, yugoslabiarra, errusiarra, errumaniarra eta txinatar triadak nagusitzen dira eta modu laburtu batean hauen jarduerak aipatuko ditugu. Beraz, esan dezakegu Espainian zuritzen den diruaren zati garrantzitsu baten jatorria ondorengo jardueretan dagoela.

- Mafia jamaikarrak. 22.000 kide inguru dituzte eta droga trafikoa, arma trafikoa eta bahiketa dira beraien jarduera deliktibo nagusiak.
- Kartel mexikarrak. Ezezaguna da kide kopurua, baina estimazioen arabera 11.000 dira espetxean eta 3.500 kalean. Droga trafikoa, gizakien salerosketa, ustelkeria eta estortsioa dira jarduera deliktibo nagusiak.
- Kartel kolonbiarrak. 22.000 kide inguru dituzte eta jarduera deliktibo nagusiak droga trafikoa (kokaina batez ere), ustelkeria, estortsioa eta diru zuritzea dira.
- Banda nigeriarrak. 5.000-20.000 kide bitarte dituzte eta burutzen dituzten jarduera deliktibo nagusiak droga trafikoa, giza salerosketa eta prostituzioko delituak dira.
- Mafia italiarrak. 16.000 kide inguru dituzte eta jarduera deliktibo nagusiak droga trafikoa, artelanen trafikoa, estortsioa eta joko ez zilegia dira.
- Mafia yugoslabiarrak. Erabat ezezaguna da kide kopurua eta jarduera nagusiak droga trafikoa, jabetzaren aurkako delituak, gama altuko kotxeen lapurretak eta prostituzioko delituak dira.
- Mafia errumaniarrak. Ezezaguna da kide kopurua eta droga trafikoa, jabetzaren aurkako lapurretak, gama altuko kotxeen lapurretak eta prostituzioko delituak dira beraien jarduera deliktibo nagusiak.
- Mafia turkiarrak. Ezezaguna da kide kopurua baina 12 klan daude. Droga trafikoa (heroina), ustelkeria, dokumentu faltsutasuna eta jabetza intelektualaren aurkako delituak dira beraien jarduera nagusiak.
- Mafia errusiarrek. 35.000 kide inguru ditu eta jarduera deliktibo nagusiak droga trafikoa, arma trafikoa, prostituzioa, diru zuritzea eta material nuklearraren trafikoa dira.
- Mafia txetxeniarrak. Ezezaguna da kide kopurua eta droga trafiko, arma trafiko, ustelkeria, estortsio eta bahiketengatik dira ezagunak.

- Mafia georgiarrak. 5.000 kide baino gehiago dituztela estimatzen da eta burutzen dituzten jarduera deliktibo nagusiak kontrabandoa, diru zuritzea, estortsioa, bahiketak eta iruzurra dira.
- Triada txinatarrak. 170.000 kide inguru dituzte eta burutzen dituzten jarduera deliktibo nagusiak droga trafikoa, arma trafikoa, giza salerosketa, kotxe lapurretak, jabetza intelektualaren aukako delituak, prostituzioa eta haur pornografia dira.
- Yakuza (Japonia). 85.000 eta 110.000 kide bitartean dituela esaten da eta droga trafikoa, arma trafikoa, estortsioa, diru zuritzea, prostituzioa, haur pornografia eta joko ez zilegia nagusitzen dira beraien jarduera deliktiboetan (Fernández, 2008).

Zenbakiak harrigarriak dira, 500.000 pertsona baino gehiagok jarduten dute krimen organizatuan. Baina, zenbat diru gastatzen dute estatuek ekintza hauek prebenitzen? Eta organizazio hauek burutzen duten iruzurra zenbatekoa da?

6.Grafikoa:2013an Krimen Organizatua Espainian



Iturria: elaborazio propioa. Datuak:

http://www.interior.gob.es/documents/10180/1207668/Bal_CICO_crimen_organizado_2013.pdf/b7cc99ce-a05f-4389-bd86-1fa7a9f20694

Krimen Organizatuaren Aurkako Inteligentzia Zentroak burutzen du urteroko balantzea eta barne ministerioak argitaratzen ditu datuok. Grafikoan oinarritutako 2013ko datuak 2014ko uztailean argitaratu ziren. Grafikoan ikus daitekeenez detektaturiko taldeen jarduera nagusia droga trafikoa zen, baina argitu behar da taldeek jarduera bat baino gehiago izan zezaketela. Honela, organizazio hauen %6ak jarduera nagusitzat zuen diru zuritzea.

Organizazio hauek zuritzean erabiltzen dituzten metodoen artean aurkitzen dira:

- Dirua garraiatzea alde batetik bestera, krimen organizatua finantzatzeko erabiltzen dute zati bat eta bestea **negozio berrietan** inbertitzen dute.
- **Produktu finantzarioak** erosten dituzte atzerrian.
- **Ondasunak erosten** dituzte, hala nola, etxeak, yateak, gama altuko kotxeak.
- **Enpresak kapitalizatzen** dituzte.

3.3.1 Prebentzioa

Aipatu den moduan, krimen organizatuan bi prebentzio jarduera daude, lehena talde hauek burutzen dituzten jarduerak geldiaraztea (jarduera polizialak), eta bigarrena diru zuritzea prebentzioa.

Gauzak honela, AEBko diruzaintza sailak 2015eko martxoaren 6an informe bat argitaratu zuen, Banca Privada d'Andorra (BPA) diru zuritze alorrean kezka sorrarazten duen bankua dela definituz. Txostenean ondorengo baieztapenak azaltzen dira:

- BPAko zuzendaritzak organizazio kriminalari, ustelkeria, giza salerosketa, diru zuritzean oinarrituriko merkataritza eta iruzurra burutzen zuten indibiduo eta taldeei finantza transakzioak erraztu dizkie.
- Finantza sistemako sarbidea eman die BPAk organizazio kriminalari.
- Diru zuritze jarduerak erraztu ditu BPAk diru zuritze eta terrorismoaren finantzaketako prebentzio kontrol ahulen ondorioz.
- Transakzio ez zilegiak burutzeko bankuko langileak prest zeuden (Department of the Treasury, 2015).

Organizazio kriminal hauek dirua ez zuritzeko helburua duten prebentzio neurriak daude, eta erakunde finantzarioak Obligaziodun Subjektuak dira, 6. atala. 10/2010 Legea aztertzean sakonduko dugu finantza sistemaren sarbiderako prebentzio neurriak. Kasu honetan argi ikusi dezakegu neurri hauen betearazpen edo eraginkortasunak sortzen duen zalantzagarritasunaren zergatia.

4.4 Pitufeo edo zatikatze sistema

Pitufeo edo *smurfing-a* jatorri hegoamerikarra duen sistema da, kantitate txikiko transakzio ugari egiteagatik bereizten dena. Espainiako kasuan 3.000€ gainditzen duen banku transferentzia, edo hiruhileko 3.000€ gainditzen duen diru bidalketa egiten bada bezeroaren identifikazio datuak beharrezkoak dira, Ogasunari bidaltzeko obligazioa baitago (Obligaziodun Subjektuak). Hori horrela izanik, Espainiatik Kolonbiara dirua bidali nahi duenak, muga hori ez du gaindituko.

Oso ohikoa izaten da lokutorioak bezalako establezimenduak erabiltzea dirua transferitzeko. Adibide batekin azalduko dugu zergatia. Aurreko kasua jarraituz, Espainiatik Kolonbiara diru beltza bidali nahi duenak lokutorio baten bitartez dirua bidaltzea erabakitzen du. Ogasuneko kontrolak saihestu nahi dituenek, hirugarren pertsona bat erabiliko da transferentzia burutzeko. Nola? Jo dezagun Espainian lan egiten duen kolonbiar batek bere soldataren zati bat bidaltzen duela hilero Kolonbiara. Hirugarren pertsona honen identifikazio datuak erabiliko dituzte (honek ezer jakin gabe) diru zikina zuritu nahi duen pertsonaren diru bidalketa egiteko. Hilero 300€ bidaltzen baditu, hiru hilabetetan 900€ bidaliko ditu, beste 2.100€tarako bezeroaren datuak aprobetxatuko dituzte eta dirua zurituko dute.

4.5 Sariak erostea

Carlos Fabra 12 urtetan 9 aldiz izan zen saritua loterian eta Juan Antonio Roca 6 hilabetetan 5 aldiz, 646.033€-rekin. Saritua izan edo erosi?

Argi dago honen atzean zer dagoen, baina sistema honen funtzionamendua nolakoa da? Ondorengo pausuk ematen direla dio Carlos Cruzadok, Gestha-ko (*Sindicato de Técnicos del Ministerio de Hacienda*) presidenteak.

- Kasu gehienetan prozesua loteriako saria bankuan sartzean hasten da. Bankuko langileak abisua pasatzen du eta sarituari eskaintza bat luzatzen zaio.
- Eskaintzaren zenbatekoa sarituriko zenbatekoaren gain %20 inguru dela estimatzen dute Gesthan. Hala ere, 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera (abenduaren 27ko 16/2012 Legeko 11 artikulua aldatzearen ondorioz) loteriako edo apustueta saridunek %20ko zerga ordaindu behar dute eta honek gainprezioa %10-%30 bitartean egotea eragin du.

Baina dirua ez da zurriz, eroslearen eskuetara diru zuria heltzen da, baina sarituarenera beltza. Sarituak eskaintza onartzen badu eta Ogasunak inolako justifikazio gabeko milaka euroen jatorria galdetzen badu eta gainera iruzurrak 120.000€ gaitzen baditu, delitu fiskal eta arazo baten aurrean egongo litzateke pertsona saritua (J.T., 2015).

Sistema honen erabilera asko murriztu dela adierazi dute Gesthan, honen arrazoia %20ko zergaren ezarpena izan delarik.

4.6 Kasinoak

Funtzionamendua oso sinplea da. Pertsona batek dirua fitxengatik aldatzen du, eta kasinoan dagoen beste taldekide bati ematen dizkio fitxak. Bigarren pertsona honek esango du fitxak irabazi egin dituela. Zuritu da dirua.

Baina 10/2010 Legean Obligaziodun Subjektuak (6. atala) dira kasinoak eta 7.5 artikuluan arautzen da hauen funtzionamendua. 2.000€ gaitzen duten fitxen salmenta edo erosketa burutu nahi duenaren identifikazio datuak jasotzea beharrezkoa izango da.

Libia Arregiren esanetan, interneteko kasinoetan burutzen dena kontrolatzea ezinezkoa da, eta askotan mafiek sortzen dituzte.

4.7 Ondasunen erosketa

Metodo hau kolokazio fasean erabiltzen dela aipatu dugu 3.1 atalean. Ondasun higiezinak gain, bitxiak, urrea, artelanak eta antigoleko ondasunak erabiltzen dira diru zuritzeko. Ondasun garraigarriak dira, bolumen txikia dutelako, eta mundu osoan balioa dutenez gero, erraz saldu daitezkeen ondasunak dira.

Gainera, oso ohikoa izaten da ondasun higiezinetan testaferra edo enpresa pantailak erabiltzea jabetza ezkutatzeko helburuarekin.

4.8 Enpresa zilegien kapitalizazioa


Metodo hau erabiliz dirua zuritu nahi dutenek enpresa zilegiak kapitalizatzen dituzte. Enpresa hauek koiuntura egoeratan aurkitzen dira eta diru beltzarekin egoera ekonomiko finantzarioa hobetzen dute. Helburua jatorri zilegiko eta ez zilegiko kapitalak nahastea edo eta enpresen kontrola lortzea izan daiteke, etorkizunean diru gehiago zuritzeko. Behin dirua zurituta enpresa hauek deskapitalizatzea ere ohikoa izaten da (Prieto del Pino, García, & Martín, 2010).

4.9 BEZaren karrusela

BENELUXen du jatorria iruzur honek, eta Europar Batasuneko (EB) merkatu bakarraren sorrerak estatu kide guztiak erabiltzea izan zuen ondorio. Sistema hau erabiltzean agertzen diren pertsonaiak ondorengoak dira:

- *Conduit Company* edo jatorriko enpresa, EBeko kide den herrialdeko enpresa bat izango da. Salmenta burutzen duen enpresa da eta %0 jasanaraziko du VAT edo BEZa, salbuetsita dago.
- *Missing Trader* edo enpresa “trucha” (A) EB barneko eskurapena egiten duen enpresa nazionala da, erosketa egin duela deklaratu beharko lukeen enpresa. Enpresa truchak BEZa jasan eta konpentsatu, biak egiten ditu, operazioa neutroa izanik Ogasunarentzat. A enpresak nazioko beste enpresa bati salduko dio BEZa jasanarazita. Enpresa hau desagertu egingo da salmenta hau burutzean eta Ogasunari ez dio ordainduko jasanarazitako BEZagatik egokitzen zaion kuota. Enpresa hauen aurrean testafarroak egoten dira, kaudimen gabeko pertsonak, eta iruzurra burutzeko sortuak izan diren enpresak dira, aktibitate errealik gabekoak.
- *Buffers* edo enpresa pantailak (sozietate instrumentalak) (B). Truchek irabazi margen txikiarekin saltzen die enpresa pantaileri, BEZean ahalik eta diferentzia txikiena egoteko. Enpresa hauek obligazio fiskalak beteko dituzte, enpresa truchatik BEZa jasanaz eta azken kontsumitzailetik jasanaraziz. Enpresa hauek A eta C enpresen artean dagoen erlazioa ezkutatzeko helburuarekin jarduten dutelako dira pantaila izenez ezagunak.
- C enpresa zilegia edo kontsumitzailea izango da, zenbat eta enpresa pantaila gehiagok hartu parte sisteman, zailagoa izango da tramaren atzean daudenak antzematea (Miranda, 2012).

7.Grafikoa:BEZaren karrusela



Iturria: elaborazio propioa

BEZaren karruselean parte hartzeko helburuak ezberdinak izan daitezke.

- Batzuen helburua ondasunen prezioa jaitea da. BEZa deklaratu gabe margen txikiagotan ibiltzen dira eta honela, lehia desleiala eginez, merkatuan prezio erakargarriagotan jarduten dute.
- Beste kasu batzuetan ez dago benetako jarduera komertzialik, faktura faltsuak erabiltzen dira eta helburua etekin bat lortzea izaten da.

Gogora dezagun Ogasunari iruzurra egitea arau-hauste administratiboa izango dela eta iruzurrak 120.000€ gainditzen baditu delitua izango dela. Esan moduan, delitu hauek diru zuritzearen aurretik gertatzen diren delituak dira. Baina BEZaren karruselean parte hartzen dutenak, helburu deliktiboak dituzten organizazio internazionalak izaten dira. Hori horrela izanik, ez zaie zigor administratibo batekin bakarrik zigortuko.

Prebentzio alorrean aldaketa nabarmen bat eman da prozesu honetan. Lehen, urteko BEZaren deklarazioan ikusten zen enpresa truchak ez zuela deklaratu, hau da, hurrengo urteko urtarrilean. 2013tik aurrera erosketak burututakoan deklaratu behar da eskurapena (Art.76, LIVA 37/1992, de 28 de diciembre). LIVAKo 25 artikulua araberako produktuak garraiatzen hasi diren eguna erreferentziatzen izanik, hurrengo hilabeteko 15ean zergaren sortzapena burutuko da, aurretik faktura egin ez bada behintzat (TaxConsultor, 2013). 2013ra arte enpresek denbora luzeagoa izaten zuten desagertzeko, orain epeak laburtu dira eta "trucha" hauen "arrantzua" erraztu nahi da.

4.10 Produktu edo zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresak sortzea

Paradisu fiskaletan aipatu ditugu sozietate instrumentalak, eta BEZaren karruselean ere aipatu ditugu enpresa pantailak, biak sinonimoak. Esan dugun moduan hauek enpresa jarduera burutzen dute, baina jatorri ez zilegiko kapitalarekin nahasten dituzte irabaziak. Diru zuritzearen prebentzio alorrean eman diren neurriek finantza sistemaren erabilera zaildu dute, baita kasino, kanbio-etxe zein ausazko jokoena ere.

Hori horrela izanik, dirua zuritzeko beste irtenbide bat bilakatu da moduluen bitartez zergak ordaintzen dituzten enpresak eratzea. Autonomoentzako PFEZ-aren (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga) Zenbatespen Objektiboaren bitartez, enpresariak zergak ez ditu etekinaren arabera ordaintzen. Ondorengo baldintzak betetzen dituztenek erabili ahal izango dute moduluen bidezko zerga ordainketa:

Jarduerari dagokionez, enpresariak modulu bitartez ordaindu ahal izango dute honako kasuetan (kontuan izan sektore bakoitzaren barnean jarduera batzuk soilik sar daitezkeela, xehetasun gehiagotarako ikus 2014ko azaroaren 27ko HAP/222/2014 Agindua) :

- Nekazaritza eta abeltzaintza
- Arrantza
- Txikizkako merkataritza
- Ostalaritza
- Garraioa
- Beste zerbitzu batzuk
- Eraikuntza
- Industria

Aurrez zerrendaturiko jarduerak burutzeaz gain jarraian aipatuko diren baldintzak bete beharko dira:

- Sarreren zenbatekoak ezingo du gainditu 450.000€/urteko edo 300.000€/urteko nekazaritza eta abeltzaintza eta garraio eta komunikazioei dagokionez. 2016 urtean mugak zorrotzko dira, 150.000€/urteko eta 200.000€/urteko hurrenez hurren.
- Erosketen zifrak (inbertsioak kontuan izan gabe) ezingo du gainditu 300.000€/urteko (BEZ gabe). 2016tik aurrera 150.000€/urteko.
- Fakturretan %1eko atxikipenak dituzten autonomoek modulu bitartez ordaindu ahal izango dute. 2016an Zenbatespen Objektibotik kanpo geratuko dira.
- Atxikipenak egitera behartuta dauden autonomoen aurreko urteko errendimenduek ezingo dute gainditu 225.000€ edo 50.000€ (errendimenduen %50a baino gehiago adierazten badute).
- Ez du Zenbatespen Objektiboan beste jarduerarik burutzen.
- BEZ sinplifikatuaren erregimenari ez dio uko egin edo ez dago kanpoan, ezta nekazaritzakoan ere (O HAP/222/2014, de 27 de noviembre).

Aurretik aipaturiko baldintza guztiak betetzen dituztenek, modulu bitartez ordaindu ahal izango dute. Ogasunak parametro objektibo batzuk ezartzen ditu errendimendu garbia kalkulatzeko: langile kopurua, lokalaren tamaina, instalaturiko elektrizitate potentzia... Eta hauei minorazioko koefiziente batzuk, hala nola inbertsiorako edo enplegurako pizgarriak eta zuzenketako indizeak aplikatzen zaizkie (biztanleria, jarduera burutzen den jardunaldiaren luzera...). Baina nola zuritu?

Jo dezagun droga trafikotik 200.000€ lortu dituen delitugile batek taberna bat duela, eskudirua erabiltzen den negozio bat. Egunean eginiko salmentei fikziozko salmentak

gehituko dizkio, sarrera errealak faltsutuz. Enpresariak benetako sarrerei diru beltza gehituko die, aurretik aipatu den moduan 450.000€ fakturatu ahal izango du modulu bitartez zergak ordaintzeko. Tabernaren benetako fakturazioa 250.000€ bada, droga trafikotik lortutako 200.000€ak gehituko dizkio, eta honela ez du ordainduko 450.000ren %35a. Esan den moduan, Ogasunak ezarritako zenbateko finko bat ordainduko du. Zuritu ditu 200.000€ak.

4.10.1 Prebentzioa

Modulu bitartez eginiko zerga ordainketekin enpresari txikiei lagundu nahi zaie, baina azken urteetan Ogasuna geroz eta muga gehiago ari da jartzen diru zuritzea prebenitzeko helburuarekin. Abenduaren 5eko 960/2013 Errege Dekretua eta 2014ko azaroaren 27ko HAP/2222/2014 Agindua izan dira azken erreforma fiskalak. El Economista egunkariaren arabera, azken erreforma fiskalarekin 2015ean 300.000 autonomo moduluetan ordaintzetik kanpo geratu dira (elEconomista, 2014).

2016rako baldintza zorrotzagoak jarriko dituzte, prebentzio alorra garatu da. Baina kasu honetan esan genezake diru zuritzearen prebentzioan laguntzen duten neurriek, enpresari txikiei kalte egiten dietela.

5. GAFIren 40 Gomendioak

Finantza sistema babesteko helburuarekin diru zuritze alorrean interesa duten erakunde edo Estatuekin kolaboratzen du eta gaur egun 40 Gomendio ditu. Diru zuritzearen prebentzioan nazioarteko estandarrak dira Gomendio hauek eta hauen inplementazio prozesua ikuskatzeaz ere arduratzen da GAFI. Lehendabiziko Gomendioak 1990an argitaratu ziren eta berrikusketak izan dituzte 1996, 2001, 2003 eta 2012an. Europar Batasuneko Lehen (91/308/CEE), Bigarren (2001/60/CE) eta Hirugarren (2005/60CE) Zuzentarauak Gomendio hauetan oinarrituta daude (Jourova, 2015). Beraz, Espainiako Legeek diru zuritze eta terrorismoaren finantzaketaren prebentzioko GAFIren Gomendio guztiak betetzen dituztela baieztatu dezakegu. Espainiako 10/2010 Legeak 2003an buruturiko berrikuspena du oinarri.

Europar Batasunean, Laugarren zuzentzaraua ari dira prestatzen 2012ko berrikusketa oinarri izanik. Honela labur ditzakegu 2012ko berrikusketa ondorengo gomendioak:

A. Diru zuritze eta terrorismoaren finantzaketaren aurkako politikak eta koordinazioa

Herrialdeek diru zuritzearen **arriskuak identifikatu, ebaluatu eta ulertu** beharko dituzte. Horretarako *Risk Based Approach* enfokea aplikatu beharko dute, identifikaturikoaren arabera ebaluazioa egingo delarik, eta beharrezko neurriak hartuko direlarik.

Risk Based Approach (RBA) edo arriskuan oinarritutako planteamenduaren arabera, herrialde bakoitzak bere ezaugarriengatik dituen arriskuen arabera arindu edo gogortu beharko dituzte obligazioak. Espainiaren kasuan, kokapen geografikoa dela eta, Marokoar hachisak Espainian du Europarako sarbidea, edo bere klimak erakarritako atzeritar aberats askok etxeak erosten dituzte. Sistema prebentiboa garatzerako orduan ezaugarri hauek kontuan hartu beharko lituzkela dio RBA-k, eta horren fede emaile dugu higiezinetakako promotoreak Obligaziodun Subjektuak direla.

Herrialde bakoitzak mekanismo edo autoritate bat izendatu beharko du arriskuak identifikatzeko eta hauen ondorengo ebaluaketarako. Espainiaren kasuan SEPBLAC da FIU-a. Prozesu guzti honetan garrantzitsua izango da autoritate polizial, gainbegiratzaile eta beste autoritate edo mekanismoen koordinazioa.

B. Diru zuritzea eta konfiskazioa

Herrialdeek diru zuritzea Vienako eta Palermoko Hitzarmenei jarraiki tipifikatu beharko dute. Hitzarmen hauetan aipatzen den moduan baita ere, arlo honetan kompetentzia duten autoritateek jarraian adieraziko diren **ondasunak konfiskatu edo izozteko** gaitasuna izango dute, fede ona duten hirugarrenen kasuan ezik:

- Zuritutako ondasunak.
- Diru zuritze delituan erabilitako instrumentuak.
- Terrorismoa finantzatzeko erabilitako edo erabiltzeko prestatuak ondasunak.
- Antzeko balioa duten ondasunak.

C. Terrorismoaren eta ugaritzearen finantzamendua

Herrialdeek terrorismoaren finantzamendua Nazioarteko Terrorismoaren Finantzamendurako Errepresio Hitzarmenari jarraiki **tipifikatu** beharko dute. Ekintza terrorista jakinekin erlaziorik ez duten organizazio terroristak ere barneratuko dira.

Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluko Ebazpenak jarraiki, herrialdeek finantza santzioak jarriko dizkiete terrorismoaren finantzaketa eta honen ugaritzearen finantzamenduan parte hartu dutenei. Gainera funtsen izozketa emango da.

Irabazi asmorik gabeko organizazioei dagokionez, hauen erabilera desegokia oso kaltebera da, horregatik legeen eta erregulazioen egokitasuna aztertu beharko dute herrialdeek.

D. Prebentzio neurriak

1. Erakunde finantzarioak

Erakunde finantzarioetan kontu anonimoak edo fikziozko titularrak dituzten kontuak debekatuko dira eta hauek bezeroekin eginbeharrezko egintzak izango dituzte ondorengo kasuetan:

- Merkataritza erlazioak daudenean.
- Noizbehinkako transakzioak burutzen dituztenean: 15.000€ baino gehiagokoak edo 16. Gomendioak³ adierazten duen kasuan egonik transferentzia elektronikoak egiten direnean.
- Dirua zurtzen ari denaren edo terrorismoa finantzatzen ari denaren susmoa dagoenean.
- Bezeroak eskaintako identifikazio datuen egiazkotasuna zalantzan jartzen duenean finantza erakundeak.

Herrialde bakoitzak bezeroekin egin beharrezko egintzak lege bitartez edo neurri hertsatzaile bidez azalduko ditu eta egin beharrezko egintzak honakoak dira:

- Bezeroa identifikatu eta egiazkotasuna aztertu iturri independenteek eskaintako dokumentu, datu eta informazio fidagarriarekin.
- Onuradunaren identifikazioa.
- Erlazio komertziala ulertu eta behar denean informazioa eskuratu.
- Jarduera komertzialaren jarraipena eta operazioaren analisia egin.

Erakunde finantzarioek eginbeharrezko egintzak aplikatu beharko dituzte eta *Risk Based Approach*-aren bitartez neurriak ebaluatu.

Dokumentuen kontserbazioari dagokionez, erakunde finantzarioek 5 urtez gorde beharko dituzte bezeroen datuak, eta beharrezko denean kompetentzia duten autoritateen esku jarri beharko dute informazioa.

Esposiziopeko politikari eta hauen familiarren kasuan egin beharrezko egintza arruntez gain, eginbehar gehiago daude 12. Gomendioan adierazita.

³ 16.Gomendia: mugaz haraindiko ordainketa elektronikoak, serieko ordainketak eta estaldura ordainketak. Beharrezko informazioa izango da:

-Agindu emailearen izena, kontu zenbakia eta helbidea / NAN zenbakia / bezeroaren identifikazio zenbakia edo jaioteguna.

-Onuradunaren izena eta kontu zenbakia.

Banku korrespontsalari dagokionez, eginbeharrezko egintza normalez gain, besteak beste, ordezkaturiko erakundeko diru zuritze alorreko kontrolak ebaluatu eta operazioko alderdiak aztertu beharko ditu. Gainera, banku pantailekin korrespontsal erlazioak izatea debekatuta dute.

Diru eta baloreen transferentzia zerbitzuei dagokienez, herrialdeek zerbitzu hauek eskaintzen dutenak lizentziak dituztela eta erregistraturik daudela ziurtatu beharko dute. Honela, dagokien Gomendioen aplikazioa kontrolatu ahal izango da.

Teknologia berrien inguruan, herrialde bakoitzak arriskuak identifikatu eta ebaluatu beharko ditu. Identifikaturiko arriskuak finantza sisteman eraginik ez izateko helburuarekin, erakunde finantzario eta herrialdeek neurriak jarri beharko dituzte.

Transferentzia elektronikoetan, herrialdeek ziurtatuta izan beharko dute finantza erakundeek transferentzia elektronikoak monitoreatzen dituztela. Honela, transferentziak burutzeko beharrezko informazioa jasotzen dela bermatu daiteke.

Egin beharrezko egintzen burutzapena hirugarren erakunde bati delegatu daiteke, beti ere hirugarren erakundea erregulatuta eta informazioaren elkartrukea bat-batekoa den kasuetan.

Erakunde finantzarioek barne kontrolak eta GAFI-ren Gomendioak aplikatu beharko dituzte, sukurtsal zein atzerriko filialak barne.

Atal honetan aipatzen da baita ere arrisku handiagoko herrialdeetan kontrol zehatzago eta zorrotzagoak aplikatu beharko direla.

Aurretik zerrendaturiko Gomendioak aplikatu ondoren, eragiketa batean jatorri kriminaleko funtsak erabili direla edo terrorismoa finantzatu denaren susmoa badago, erakunde finantzarioek edo hauen zuzendari, funtzionario eta langileek FIU bati jakinarazi beharko diote, Espainiaren kasuan SEPBLAC-eri. Gainera jakinarazpen honen azaleratzea debekatuta dago.

2. Finantza jarduera ez duten erakunde eta profesionalak

Erakunde finantzarioetan aipatu diren egin beharrezko egintzak aplikatuko zaizkie baita ere ondorengo jarduera eta profesionaleri (zehaztasun gehiagorako ikus 22. Gomendioa):

- Kasinoak
- Higiezineta agenteak
- Harri bitxi eta metal preziatuetako merkatariak
- Abokatu, notario eta profesional juridiko independenteak
- Sozietate zerbitzuetako hornitzaileak eta fideikomisoak

E. Gardentasuna eta onuradun diren azken pertsona juridiko eta beste egitura juridiko batzuk

Pertsona juridikoen bitartez buruturiko diru zuritzea prebenitzeko, herrialdeek neurriak hartu beharko dituzte azken onuradunaren informazio egokia jasotzeko.

F. Konpetentzia duten autoritateen erantzukizun eta gaitasunak eta beste neurri instituzional batzuk

Erakunde finantzarioek erregulazio bat dutela eta honen betearazpena burutzen dela bermatu beharko dute herrialdeek. Ezinbestekoa izango da kriminalek eta hauen konplizeek erakunde hauetan sarrera mugatuta izatea eta horretarako herrialdeek Gomendioak eraginkortasunez bete beharko dituzte. Banku pantailen ezarpena guztiz debekatu behar dute herrialdeek.

Gainbegiratzaileek inspektzioak egiteko autorizatuta egon beharko dute, honela monitoreoko informazioa eskuratu ahal izango dute eta santzioak aplikatu.

Herrialde bakoitzak bere Finantza Inteligentzia Unitatea izango du eta hauek eragiketa susmagarrien jakinarazpenak jasotzeaz gain, analizatu egingo dituzte. Honela, ikerketak burutzeko konpetentzia duten autoritateek beharrezkoa den informazioa eskuragarri dutela ziurtatu beharko dute herrialdeek.

Eskudiruaren garraioari dagokionez, herrialdeek garraio fisikoa detektatzeko instrumentuak izan beharko dituzte. Eskumena duten autoritateek diru edo negoziagarriak diren instrumentuak izozteko gaitasuna izan beharko dutelarik.

Herrialdeek gaiaren inguruko estatistikak argitaratu beharko dituzte. Bertan buruturiko ikerketak, prozesuak, kondenak, izozturiko diru kantitateak... azaldu beharko dute. Espainiaren kasuan lan honetan aurretik aipatu dugun txostena (2013ko krimen organizatuko taula oinarriturik dagoen txostena) izan zen azkena argitaratu zena.

Arlo penal, zibil zein administratiboak ezarritako santzioak eraginkorrak eta proportzionalak izan beharko dute eta erakunde finantzarioei aplikatzeaz gain, finantza erakundeak ez diren erakunde zein jarduera profesionala burutzen dutenei, eta hauetako zuzendari eta goi mailako kudeatzaileei ezarri ahal izango zaie.

G. Nazioarteko kooperazioa

1988ko Vienako Hitzarmena, 2000ko Palermoko Hitzarmena, 2003ko Ustelkeriaren aurkako Nazio Batuen Hitzarmena eta 1999ko Nazioarteko Terrorismoaren Finantzamenduari Hitzarmena ezarrita izan beharko dute herrialdeek. Gainera, Estatuak bultzatzen zaie 2001eko Europako Kontseiluko Krimen Zibernetikoaren Hitzarmena, 2002ko Interamerikako Terrorismoaren aurkako Hitzarmena eta 2005eko Europar Kontseiluaren Hitzarmena Delitu baten ondorio izaniko Zuritze, Detentzio, Bahitura eta Konfiskazioan eta Terrorismoaren Finantzamendua inplementatzea.

Estatuak elkarrekiko asistentzia legala bermatu beharko dute. **Kooperazioa** hobetzeko beharrezkoa izanik tratatu, hitzarmen eta mekanismoak ezartzen utziko duen oinarri juridiko ona. Honela Estatuak diru zuritze eta aurreko delituetan beharra dutenean modu eraginkor eta azkarrean lagundu ahal izango diote elkarri.

39. Gomendioak aipatzen du estradizioa duten delituak direla diru zuritzea eta terrorismoaren finantzazioa. Horregatik estradizioa burutzeko beharrezko diren prozesuak egon beharko dira.

Eta azken Gomendioak dio bi alderditako akordioak behar dituen autoritateak garaiz negoziatu beharko duela. Prozesu argiak eta eraginkorrak ezinbestekoak izango dira informazio elkartruckerako. (GAFI, 2012)

6. Espainiako prebentzio sistema

Espainian diru zuritze alorreko prebentzioa garatzearen oinarrian hiru faktore daude:

- Nazioarteko ingurunea. 80ko hamarkadan Estatu ezberdinek diru zuritzea zigortuz hasi zuten krimenaren aurkako borroka.
- Espainia nazioarteko erakundeetako kide bilakatzen hasi zen, baita erakunde hauetako hitzarmenak sinatzen ere.
- Espainiako ekonomiaren garapenak diru zuritzearekin loturiko delitu eta krimenen gorakada izan zuen ondorio.

Diru zuritzearen aurkako borroka bi sistemen bitartez burutzen da Espainian, elkar kolaboratzen duten bi sistema sendo. Aurretik aipatu baditugu ere, gogora ditzagun:

- Sistema errepresibo edo penala: Kode Penaleko 301-304 artikuluetan arautzen da eta helburu nagusia diru zuritze aurretik gertatzen den delituari errentagarritasun ekonomiko edo ondare errentagarritasuna kentzea da. 1995eko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organiko bitartez arautu zen Kode Penalean diru zuritzea. 1.1 atalean azaldu dugu.
- Sistema prebentibo edo administratiboa: erakundeei ezarritako obligazio jakin batzuen bitartez, jatorri deliktiboetako ondasun zein aktiboei finantza sistemako sarrera mugatzea da helburua. Bi xede dira nagusiak: sistema ekonomiko finantzarioa babestea eta Justiziako Auzitegiekin kolaboratzea (Pena Beiroa, 2012). Diru zuritzearen Espainiako lehen prebentzio neurria 19/1993 Legea izan zen.

1993ko abenduaren 28ko 19/1993 Legea

Diru zuritzearen prebentzioko 91/308/CEE Lehen Zuzentaraua transponitu zuen legea izan zen. Legea erakunde finantzarioei zuzenduta egoteaz gain, diru zuritzea erraza zen enpresa jarduera zein jarduera profesionaleri ere aplikatzen zitzairen. Bertan gaur egungo legedian erabiltzen diren kontzeptuak azaldu ziren lehendabizikoz: Obligaziodun Subjektuak eta hauen Obligazioak.

19/2003 Lege bitartez 19/1993 Legean aldaketa batzuk barneratu ziren.

6.1 10/2010 Legea erakunde finantzarioetan

2010eko apirilaren 29an Europar Parlamentuko eta Kontseiluko 2005/60/CE eta 2006/70/CE (lehenengoaren osagarria) Zuzentarauak transponitu ziren 10/2010 Legearen bitartez. Hirugarren Zuzentarau honek 2003ko berrikusketa ondorengo GAFiren Gomendioak ditu oinarri eta xede ditu dirua zuritzeko finantza sistemaren erabilera eta terrorismoaren finantzazioa prebenitzea.

Hirugarren Zuzentarau hau transponitzeko azken data 2007ko abenduaren 15a zen, eta bi urte baino gehiagoko atzerapenarekin 19/1993 Legea indargabetu zuen 10/2010 Legea argitaratu zen. Atzerapen honen arrazoiak? Luis Manuel Lombardero Expósito hiru faktore identifikatzen ditu. Lehena Europako Banku Zentralak lege-proiektuari emaniko irizpenean aurkitzen du: SEPBLAC eta diru zuritze- terrorismoaren finantzaketa

uztartzeko zailtasuna. Bigarrena 2008ko Hauteskunde Nagusitan bilatzen du, ez baitzen komeni obligazioz beterik zetorren legea argitaratzea. Eta azken faktorea, legearen zehaztasun maila izan daitekeela aipatzen du (Lombardero Expósito, 2010).

Legearen oinarriko helburua **finantza sistema eta beste sektore batzuetako jarduera ekonomikoen integritatea babestea** da. Indargabeturiko legeak 16 artikuluko zituen, aldiz, 10/2010 Legeak 70, Obligaziodun Subjektu gehiago eta obligazio gehiago ezartzen baititu. Gainera, terrorismoaren finantzazioa ere barneratzen du. Zergatik? Nahiz eta dirua zuritzen duenak jarduera deliktiboetan jatorria duen kapitala legitimatu nahi duen; eta terrorismoa finantzatzen duenak, normalean, jarduera zilegietan jatorria duen kapitala erabiltzen duen, zuritzean eta finantzatzean erabilitako metodo edo sistemak antzekoak dira. Horregatik sistematizatzen dira bi jarduerak. Puntu honetan, ordea, ez dugu terrorismoaren finantziarioa landuko.

10/2010 Lege honen **xedea da jarduera ez zilegietan jatorria duten ondasunen transformazioa edo bihurtzea galaraztea**. Hau da, lege honek ez du aurretik buruturiko delitua eta diru zuritze delitua zigortzen, Kode Penalak arduratzen da ondasun eta ordena sozio-ekonomikoen aurkako delituak zigortzeaz (STS 811/2012 de 30 de octubre).

Legearen azken ezaugarria jada aurretik aipatu duguna da, 19/1993 edo 19/2003 Legeetan azaltzen ez zen moduan, edozein delitutatik datozen ondasunak 10/2010 aplikazio eremuan sartzen dira.

6.1.1 Diru zuritzearen definizioa eta objektua

10/2010 legeko 1.2 artikuluan diru zuritze moduan zein jarduera kontsideratzen diren aipatzen da:

- a) **Ondasunen jatorrian jarduera deliktibo** bat dagoela edo jarduera deliktibo baten parte hartzea dagoela **jabetzen** den orok, ondasuna transferitzen edo bihurtzen badu, dirua zuritzen ari dela kontsideratuko da. Gainera, dirua zuritzen ibiltzearen ondorio juridikoak saihesten laguntzea ere delitutzat hartuko da.
- b) Ondasunen jatorrian jarduera deliktibo bat dagoela edo jarduera deliktibo baten parte hartzea dagoela jabetuta, ondasunen edo ondasunen gaineko eskubideen izaera, jatorria, lokalizazioa, disposizioa, mugimendua edo ondasunen jabetza erreala edo eta ondasunen gaineko eskubideak **ezkutatu edo estaltzea**.
- c) Ondasunen hartze momentuan hauen jatorrian jarduera deliktibo bat dagoela edo jarduera deliktibo baten parte hartzea dagoela jabetuta, ondasunak eskuratu, eduki edo erabiltzea.
- d) Aurreko letretan aipaturiko jarduera batean parte hartzea, edo parte hartzeko elkartzea, ekintzak burutzen saiatzea edo norbaiti jarduerak burutzen laguntzea, bultzatzea edo aholkatzea. (L 10/2010 de 28 de abril)

Argi utzi behar da lege honek diru zuritzetzat kontsideratzen duela **edozein delitutan jatorria duten ondasun edo aktiboen eskurapen edo edukitzea**, izan hauek larriak edo ez hain larriak; edo Estatuaren baitan edo atzerrian burutu. Ogasunari eginiko iruzurraren kasuan, Kode Penalak 120.000€ gainditzen duen iruzurra delitu kontsideratzen du, beraz, delitu horretatik lorturiko aktibo edo ondasunak diru zuritzearen delitu aurrekari kontsideratuko da. Testuan hainbat aldiz errepikatu dugun “diru zuritzearen aurretik gertatzen den delitua”, edo “delitu aurrekaria”-ak horri egiten dio erreferentzia.

Honi lotuta, Ogasuneko teknikariek 2014an proposamen bat luzatu zioten gobernuari, delitu kontsidera zezan 50.000€tako iruzur fiskala (El Confidencial, 2014). Esan genezake neurri honek prebentzio sistema osatzen lagunduko lukeela.

6.1.2 Obligaziodun Subjektuak

Obligaziodun Subjektuak lege honek ezarritako informazio eta kolaborazio obligazioak bete behar dituzten pertsona fisiko eta juridikoak dira. Jarraian adierazten direnak dira:

- a) Kreditu erakundeak.
- b) Erakunde aseguratzaileak (bizi aseguru alorrekoak) eta aseguru artekariak, hauek bizi aseguru alorrean badabiltza, edo inbertsioekin erlazionaturiko zerbitzuak eskaintzen badituzte.
- c) Inbertsio zerbitzuetako enpresak.
- d) Inbertsio kolektiboetako sozietate kudeatzaileak eta inbertsio sozietateak, hauen kudeaketa ez badago sozietate kudeatzaile baten agindura.
- e) Pentsio funtsetako entitate kudeatzaileak.
- f) Kapital arriskueta erakunde sozietate kudeatzaileak eta kapital arriskuko sozietateak, hauen kudeaketa ez badago sozietate kudeatzaile baten agindura.
- g) Elkarrekiko berme sozietateak.
- h) Ordaintzeko entitateak eta diru elektronikoko entitateak.
- i) Profesionalki moneta aldatzen duten pertsonen jarduerak.
- j) Transferentziak eta igorpenak burutzen dituzten posta zerbitzuak.
- k) Profesionalki kreditu edo maileguak esleitzera dedikatzen diren bitartekariak.
- l) Higiezineta sustatzaileak eta profesionalki ondasun higiezineta salerosketetan agentzia, komisio edo bitartekari lanak burutzen dituztenak.
- m) Kontu auditoreak, kanpo-kontulariak edo zerga aholkulariak.
- n) Notarioak eta merkataritzako eta ogasun higigarrietako jabetzen erregistratzaileak.
- ñ) Abokatuak, prokuradoreak edo beste profesional independente batzuk, hauek jarraian zerrendatzen diren jarduerak sortu, burutu edo aholkatzen badituzte
 - Ondasun higiezin salerosketa.
 - Funts, balore edo beste aktibo batzuen kudeaketa.
 - Kontu korronteen, aurrezki kontuen edo balore kontuen irekiera edo kudeaketa.
 - Enpresen edo fideikomisoen (trust) eraketa, funtzionamendu edo kudeaketarako beharrezko antolaketa.
 - Bezeroen izenean eragiketa finantzario edo higiezineta eragiketak.
- o) Izaera profesionalean hirugarrenei ondorengo zerbitzuak eskaintzen dituztenak:
 - Sozietate edo beste pertsona juridikoak eratu.
 - Sozietate baten zuzendaritza edo idazkaritza funtzioak, edo asoziazio bateko bazkide bezalako funtzioak bete.
 - Sozietate bati helbidea, edo merkataritzarako helbide postala, administratiboa edo antzerako zerbitzuak eskaini.
 - Trust edo antzeko instrumentu juridiko batean fideikomisario funtzioak bete.
 - Beste pertsona baten izenean akziodun funtzioak bete (erregulaturiko merkatu batean kotizatzen duten sozietateak salbuespen).
- p) Kasinoak.

- q) Profesionalki bitxi, metal edo harri preziatuekin merkataritza jarduerak burutzen dutenak.
- r) Profesionalki artelan edo antigoaleko gauzekin merkataritza jarduerak burutzen dutenak.
- s) 43/2007 Legeko (Prezioen bihurketako eskaintzadun ondasunen kontratazioko kontsumitzaileen babesa) 1 artikuluan aipatzen diren jardueretara profesionalki dedikatzen diren pertsonak.
- t) Funts edo ordainketa bideen garraio, depositu edo zaintzara profesionalki dedikatzen diren pertsonak.
- u) Loteria edo zori jokoen kudeaketa, esplotazioa eta komertzializazioa dedikatzen diren pertsonak.
- v) 34.artikuluan ezarritako zehaztapenen arabera ordainketa bideen mugimenduak burutzen dituzten pertsona fisikoak.
- w) 38.artikuluan zehazturikoaren arabera ondasunekin profesionalki merkataritza jarduerak burutzen dituzten pertsonak.
- x) 39.artikuluan ezarritako zehaztapenen arabera, fundazio eta elkarteak.
- y) 40.artikuluan ezarritako zehaztapenen arabera, ordainketa sistemen, baloreen konpentsazio eta likidazio eta finantza deribatuen kudeatzaileak edo zordunketa/kreditu txartelak igorri dituzten beste erakunde batzuen kudeatzaileak.

Gainera, 2.artikuluan honako argitzeak egiten dira:

- Nahiz eta erakundeek establezimendu finkorik gabe goian azalduko zerbitzuak eskaintzen badituzte Espainian, erakunde hauek Obligaziodun Subjektuak izango dira. Beraz, esan genezake banku korrespontsala edo banka pribatua Obligaziodun Subjektuak direla.
- Pertsona juridiko baten langile gisa jarduten duten pertsona fisikoek ez dituzte obligazioak izango, pertsona juridikoaren obligazioak izango direlako.
- Erakunde finantzario kontsideratzen ditu legeak a)tik hasi eta i)rainoko Obligaziodun Subjektuak eta finantza jarduerak noizbehinka burutzen dituen pertsonak kasu puntualetan, soilik, bete beharko ditu obligazioak.

6.1.3 Eginbeharrezko egintzak eta Know Your Customer

10/2010 Legeak Obligaziodun Subjektuei bete behar dituzten egintza batzuk ezartzen dizkie II Kapituluari, eta egintza hauek normalak, sinplifikatuak eta sendotuak dira. *Know Your Customer* (ezagutu zure bezeroa) politikan oinarritzen dira egintzak eta helburua bakarra da: bezeroa ahalik eta hobekien ezagutzea honek burutzen dituen jarduerak eta eragiketen jatorria jakiteko.

6.1.3.1 Egintza normalak:

Identifikazio formala

Inolako negozio edo eragiketa hasi aurretik bezeroa identifikatu behar da. Identifikatzeko bideak dokumentu fede-emaileak izan behar dute eta zenbakitutako, zifratutako, anonimotasunean edo fikziozko izenarekin kontu, libreta, aktibo edo instrumentuak ireki, kontratatu edo mantentzea debekatuta dago.

Titular errealaren identifikazioa

Subjektuak titular errealaren identifikazioa jakitera behartuta daude, hauek euren izenean edo hirugarren batenean jarduten duten egiaztatu beharko dutelarik. Horretarako beharrezko neurriak hartuko dituzte eta ezingo da inolako eragiketa edo negozioirik hasi ez badago argi zein den enpresaren egitura. Titular errealtzat zein kontsideratzen den 10/2010 Legeko 4. artikuluan dago adierazita.

Negozioko erlazioaren helburua eta erlazioaren jarraipena

Obligaziodun Subjektuek eragiketa edo negozioen oinarrian dagoen jardueraren informazioa lortu eta egiaztatu beharko dute. Horretarako bezeroak eskainitako dokumentazioa edo beste informazio bide batzuk erabili ditzakete.

Gainera erlazioari jarraipen bat egin beharko diete, eragiketek arrisku eta enpresa perfilarekin bat egiten dutela baieztatuz.

6.1.3.2 Egintza sinplifikatuak:

Egintza sinplifikatuak diru zuritze arrisku txikia duten bezero, produktu edo eragiketetan beteko dira eta edonolako susmoa badago, jarraipen bat egin ondoren ebaluatuko da ea neurri zorrotzagoak hartuko diren. 304/2014 Errege Dekretuan daude adierazita zein diren hauek:

- Europar Batasuneko kide diren herrialdeetako eta hirugarren herrialde baliokidetako⁴ (Res. 10 de agosto de 2012) zuzenbide publikoko erakundeak.
- Europar Batasuneko kide diren herrialdeetako eta hirugarren herrialde baliokideetako zuzenbide publikoko erakundeek kontrolatzen edo nagusiki partehartzen duten sozietate edo pertsona juridikoak.
- Europar Batasuneko kide den herrialde batean edo hirugarren herrialde baliokide batean helbideratuta dauden erakunde finantzarioak, ordainketa entitateak ezik, beti ere diru zuritze prebentzioko obligazioen betearazpena bermatzen duen gainbegiraketa badago.
- Europar Batasuneko kide den herrialde batean edo hirugarren herrialde baliokide batean helbideratuta dauden sukurtsal edo filialak, ordainketa entitateak ezik, beti ere diru zuritzearen prebentziorako prozesuak matrizek badatorkie.
- Europar Batasuneko kide den herrialde batean edo hirugarren herrialde baliokide batean erregulaturiko merkatu batean kotizatzen duten sozietate, eta hauen sukurtsal edo filialak (RD 304/2014 de 5 de mayo).

6.1.3.3 Egintza sendotuak:

Obligaziodun Subjektuek neurri normalez gain, sendotuak aplikatu beharko dituzte negozio, jarduera, produktu, zerbitzu edo banaketa kanal jakin batzuetan, dirua zuritzeko arriskua handiagoa baita. Ondorengoak dira egintza sendotuak aplikatu behar dituzten subjektuak:

- Banka pribatua.
- Dirua bidaltzeko eragiketak, beti ere hiruhileko 3.000€ gainditzen badute.

⁴ Hirugarren herrialde baliokideak: Australia, Brasil, Estatu Batuak, Hego Afrika, Hego Korea, Hong Kong, India, Japonia, Kanada, Mexiko, Singapur eta Suitza

- Moneta aldatzeko eragiketak, beti ere hiruhileko 6.000€ gaintzen badute.
- Eramaile-akziotako enprekin negozioak edo eragiketak burutzen dituztenak.
- Arriskua duten herrialde, lurralde edo jurisdikzioetako bezero edo enprekin izandako harreman edo eragiketak, GAFIk neurri sendotuak eskatzen dituen kasuetan ere bai.
- Jarduera ekonomikoa burutzeko asmorik gabe eratu diren, eta eratzeko helburua hirugarrenei transmititzea izanda, enpresen akzio edo partizipazioen transmisioa (RD 304/2014 de 5 de mayo).

Jarduera hauek burutzen dituztenez gain, neurri sendotuak erabili beharko dira bezeroek eta eragiketen ezaugarri jakin batzuk dituztenean, hala nola, Espainian bizi ez diren bezero, edo ez ohiko inguruabar batean burutzen diren eragiketen kasuan (Mallada Fernández, 2012).

304/2014 Erregelamenduko 20. artikuluan adierazten dira jarraibideak, honela neurri normaletatik bereizten direla esan genezake informazio eta dokumentazio gehigarria eskuratzen delako, negozioaren jarraipen sendoagoa burutzen delako edo erlazioko datu guztiak fitxategi batean jasotzen direlako.

6.4 Komunikazio betebeharra eta dokumentuen kontserbazioa

Egin beharreko egintzak burutu ondoren, eta jarrera konplexuak, ez ohikoak edo inolako helburu ekonomiko gabeko eragiketak antzematen badira, Obligaziodun Subjektuek eragiketak baloratu beharko dituzte, eta dirua zuritzeko helburua dagoela ikusten bada SEPBLAC-eri jakinarazi beharko diote.

Dirua zuritzeko helburua dagoenaren zantzua ondorengo ez ohiko jarrerak erakuts dezakete, eta nahiz eta eragiketak ez burutu, intentzioa egon bada aztertu egingo dira.

- Aktiboko edo pasiboko eragiketen zenbatekoak edo izaerak ez duenean bat egiten aurretik burutu izan diren eragiketekin.
- Inolako justifikazio gabe, hainbat pertsonak edo pertsona batek, eskudirutan diru sarrera asko egiten dituztenean edo dituenean kontu batean.
- Erlazio komertzial gabe, atzeritik eginiko transferentziak Espainiako hainbat kontutan edo Espainiako hainbat kontutatik atzerriko kontu batera eginiko transferentziak.
- Arriskua duten herrialdeetara eginiko transferentziak, edo hauetatik jasotakoak.
- Agindu emailearen identitate daturik edo kontu zenbakirik gabeko transferentziak.
- Sektore batean ohikoak ez diren eragiketak, bai zenbateko, izaera, kokapen geografiko edo eragiketaren beste ezaugarri batzuk direla medio.

Jarraian erakusten den taulan, erakunde finantzarioek jakinarazitako eragiketa susmagarri kopurua adierazten da 2012 eta 2013 urteetan. Ikusten denez, bankuak dira eragiketa susmagarri gehien detektatzen dituzten erakunde finantzarioak eta gainera hauen jakinarazpenak %125 hazi ziren 2013 urtean. Kreditu erakundeetan azken urteetan eman den berregituraketak ondorio du datuetan emaniko aldaketa. Aurrezki kutxen kasuan, euren bezero eta negozioak beste erakunde batzuetara pasa dituzte, honela gaur egun ez dute komunikaziorik burutzen. Beraz, bankuek eginiko jakinarazpen horietan aurrezki kutxak barneratuta daude. Ordainketa entitateetako jakinarazpenak ere %75 inguru hazi dira. Hazkundearen zergatia erakunde hauetako sentsibilizazioa izan daiteke. Honela,

azken urteetan Zerbitzu Exekutiboak buruturiko presioak sentibilizazioko prozesuan lagundu duela esan daiteke

1.Taula:Zantzuengatik erakunde finantzarioen jakinarazpen kopurua SEPBLAC-eri


Erakunde finantzarioak	2012	2013
Bankuak	1792	2234
Aurrezki kutxak	13	0
Kreditu kooperatibak	128	116
Komunitateko kreditu erakundeen sukurtsalak	36	81
Komunitatez kanpoko kreditu erakundeen sukurtsalak	10	3
Kreditu erakunde finantzarioak	12	18
Moneta aldaketa etxeak eta transferentzia kudeatzaileak	9	10
Ordainketa entitateak	432	755
Inbertsio zerbitzuetako eta sukurtsalen enpresak	4	11
Aseguru sozietateak (bizitza)	10	20
Aseguru artekariak	1	0
Inbertsio kolektiboetako sozietate kudeatzaileak	2	0
Elkarrekiko berme sozietateak	0	1
Kreditu txartelen sozietate igortzaileak	0	0
Guztira	2.449	3.239

Iturria: elaborazio propioa, datuak SEPBLAC:

http://www.sepblac.es/espanol/acerca_sepblac/estadisticas/2013/pdf/cos_sujetosobligados_parrafos_a_i..pdf

2013ko eragiketa susmagarri hauek aztertu ondoren, %20 ezin izan zen jarduera deliktibo batekin erlazionatu. Gainerako %80 honela banatzen da.

8.Grafikoa:2013an zantzuengatik aztertutako eragiketa deliktiboen jarduerak



Iturria: elaborazio propioa, datuak SEPBLAC:

http://www.sepblac.es/espanol/acerca_sepblac/estadisticas/2013/pdf/cos_sujetosobligados_parrafos_a_i..pdf

Baina eragiketa susmagarriak jakinarazteaz gain, erakunde finantzarioek hileroko SEPBLAC sistematikoki komunikatzen dute, *reporting*-a egiten dute. 304/2014 Errege Dekretuko 27.1 artikuluan adierazten dira eragiketa hauek.

Dokumentuen kontserbazioari dagokionez, legeak ezarritako obligazioak betetzetik 10 urtez gorde beharko dute dokumentazioa Obligaziodun Subjektuek.

6.1.5 Barne kontrolerako neurriak

6.1.2 puntuan Obligaziodun Subjektuak zerrendatu ditugu a)tik hasi eta y) arte, eta aipatu dugu a)tik i) artekoak erakunde finantzarioak direla. 10/2010 Legeak erakunde finantzarioek eta 10 langile eta 2 milioi eurotako negozio zifra duten j) eta y) bitartean adierazitako jarduerak, barne kontrolerako neurriak aplikatu beharko dituztela aipatzen du. Diru zuritzearen prebentzio eta terrorismoaren finantzazioaren aurkako politika eta prozedurak Obligaziodun Subjektuetako administrazio organoan onartu beharko dira. Nahiz eta, urteko negozio zenbatekoa 50 milioi euro gainditzen duten subjektuen kasuan barne kontrolerako organoak onartu dezakeen.

Arriskuan oinarrituriko aurre analisi batean oinarrituko dira kontrol prozesuak eta analisia burutzeko bezeroak, herrialdeak, eskualde geografikoak, produktuak, zerbitzuak, eragiketak eta banaketa kanalak identifikatu eta ebaluatuko dira. Arrisku analisi hau aldizka berrikusiko da eta ongi dokumentatuta egon beharko du.

Arrisku analisia burutu ondoren, barne kontrolerako jardunbideak ezarriko dira eta **gidaliburu** batean dokumentatuko dira diru zuritzea prebenitzeko prozedurak. Gidaliburuan azaldu beharreko gutxieneko puntuak izango dira:

- Bezeroen onartze politika. Ongi deskribatu beharko dira bezeroak onartzeko edo ez onartzeko ezaugarriak eta hauen arriskuak.
- Egin beharreko egintzen prozedura egituratuak, berrikusketek garrantzia handia izanik.
- Arriskuaren arabera egokituriko egin beharreko egintzen prozedura egituratua.
- Diru zuritzearekin erlazionatuta egon daitezkeen eragiketa edo gertakizunen erlazio eta zerrenda.
- Erakunde barnean informazio fluxuen nondik norakoa, zuzendaritza, langile eta agenteek argi eduki beharko dutelarik eragiketa susmagarrien aurrean zein prozedura jarraitu.
- Barne kontrolerako organoen funtzionamenduaren azalpena, argi utzirik hauen osaketa eta eskumenak.
- Erakundeko zuzendari, langile, agente edo korrespondenteek prozeduren ezagutza izango dutela ziurtatzen duten neurriak.
- Barne kontrolerako neurrien eraginkortasun eta egokitasuna bermatuko duten berrikusketak.
- Dokumentuen kontserbaziorako prozedura.

Enpresa taldeek osotasunean bete beharko dituzte barne kontrolerako neurriak. Sukurtsal edo filialetan ere ezarriko dira prebentziorako politikak eta garrantzitsua izango da berauen arteko informazio partekatzea.

Barne kontrolerako neurrien **egokitasuna kanpoko azterketa batekin baloratuko** da eta identifikaturiko akats edo urritasunak konpontzeko beharrezko neurriak hartuko dituzte.

Barne kontrolerako arrisku analisia eta honen ondorengo diru zuritzea prebenitzeko gidaliburua aipatzeaz gain, guztia ebaluatzen duen kanpo azterketa aipatu dugu. Baina honetaz gain, barne kontrolerako ezaugarri garrantzitsuak izango dira formakuntza eta zuzendari, langile edo agenteen kontratazioa.

Formakuntza

Diru zuritze eta terrorismoaren finantzaketarako prebentzio alorrean Obligaziodun Subjektuek urtero formakuntza plan bat egin beharko dute. Honela erakundeko langile guztiek ezagutza espezifikoak eskuratuko dituzte eta aipatu dugun kanpo azterketa batek baloratuko du heziketaren egokitzapena.

Zuzendari, langile edo agenteen kontratazioa

Estandar etikoak, ibilbide profesionala eta egokitasun ezaugarriak hartuko dira kontuan langileak kontratatzerako orduan. Estandar etikoetan sartzen ez diren jarreratzat kontsideratzen dira ondasunaren, Ogasun Publikoaren, Gizarte Segurantzza edo gizarte edo ekonomiaren aurkako delituen ondoriozko aurrekari penalak edo ebazpen administratibo irmo bidez kargugabetua izatea (RD 304/2014 de 5 de mayo).

6.1.6 Finantza titulartasuneko fitxategiak

Kreditu erakundeek, kontu korrante, aurrezki kontu, baloreen kontu edo eperako deposituen datuak maiztasun jakin batean fitxategi berezi batean sartuko dituzte. Kontuekin erlazionaturiko irekiera edo itxierako datuak, edo titular edo baimendutako pertsonen identifikazioko datuak gordeko dira fitxategietan eta hauen erabilera egokia dela Fiskaltzak bermatuko du.


Diru zuritze edo terrorismoaren finantzazioaren susmoa dagoenean soilik erabili ahal izango dira datuak eta horretarako eskumena instrukzioko epaileek, Fiskaltzak, Segurtasun Gorpuek, SEPBLAC eta Zerga Administrazioako Estatu Agentziak dute.

6.1.7 Antolakuntza instituzionala

Organo eta erakunde ezberdinetako Obligaziodun Subjektuek SEPBLAC-eri datu eta informazioa helaraziko diote eta honek, inteligentzia finantzarioko informeak burutuko ditu. Txosten hauek ez dute balio frogatzailerik izango eta konfidentzialtasun osoz landuko dira. Autoritate eta funtzionario guztiek kolaboratu beharko dute SEPBLAC-ekin, beheko taulan agertzen ez direnek ere bai, hala izan ezean santzio penalak izan ditzaketelarik. Egmont Taldeko⁵ printzipioen arabera atzerriko FIU-ekin ere elkartrukatuko da informazioa (Lombardero Expósito, 2010).

⁵ Egmont taldea: munduko FIU-ak elkartzen dituen taldea da.

9.Grafikoa Informazio elkartrukea



Iturria: elaborazio propioa

6.1.7.1 SEPBLAC

Lan honetan askotan aipatu dugun organoa da *Servicio Ejecutivo de Prevención de Blanqueo de Capitales* edo SEPBLAC. Espainiako Finantza Inteligentzia Unitatea da eta Diru Zuritzearen Prebentziorako Batzordearen laguntza organoa da. Ekonomiako estatu-idazkaria da organo honen presidentea, eta diru zuritzearen prebentzioran ezinbesteko papera du (Banco de España, 2015).

Erakunde finantzarioekin eta Obligaziodun Subjektuekin kontaktuan dagoen bakarra da, eta *reporting* sistematikoak jasotzen ditu haiek ebaluatzeko eta delitu edo arau haustek dauden behatzeko. Bere funtzioen artean aurkitzen dira:

- Ministerio Fiskal, Polizia Judizial eta eskumena duten organo administratiboei laguntza eskaintze, droga trafiko, terrorismo, organizazio kriminal eta beste hainbat delitu larriren ikerketan autoritateei lagunduz.
- Beste herrialdeetako FIU-ekin informazio elkartrukea eta kolaborazioa bermatzea.
- Diru zuritzearen aurka ikuspegi global batetik borrokatzea, hau da, autoritateekin modu koordinatuan jokatzeko bide prebentibo eta zehatzailean.
- Dirua zuritzean erakunde finantzarioen erabilerak duen arriskua murriztea.
- Obligaziodun Subjektuek bidalitako informazioa jaso, ebaluatu eta aztertzea.

- Erakundeek barne kontrolerako ezarritako prozedura eta organoen egokitasuna ikuskatzea, eta behar den kasuetan aldaketak proposatzea.
- Terrorismoaren Finantzaketarako Jardueren Zaintza Batzordeari behar duen laguntza eskaintzea, honek bere jarduerak eta funtzioak modu egokian burutu ditzan (Mallada Fernández, 2012).

SEPBLAC-ek burutzen dituen txostenek, esan dugun moduan, ez dute balio frogatzailerik eta dokumentu konfidentzialak dira. Azterketak burutu ondoren bi polizia unitate izango ditu: Delitu Monetarioen Ikerketa Lantaldea eta Guardia Zibilaren Ikerketa Unitatea.

6.1.8 Araubide zehatzailea

Bide administratiboan, **sistemaren ordena mantendu nahi da, bide hertsagarriak erreprimituz**, administrazioko politiken aurkako jokaerak santzionatuz (Vargas López, 2008).

10/2010 Legea ez betetzearen ondoriozko arau hauste administratiboak oso larriak, larriak eta arinak izan daitezke eta Obligaziodun Subjektuak edo bertako zuzendaritza eta administrazio karguak burutzen dituztenak izango dira zigor hauek jasoko dituztenak. Arau hauste oso larri eta larriak 5 urtetan preskribatzen dira, aldiz, arinak 2 urtetan.

6.1.8.1 Arau hauste oso larriak

Arau hauste oso larriei santzioak jartzeaz Ministroen Kontseilua arduratuko da, Ekonomia eta Ogasun Ministroek hala proposaturik (El Derecho Editores, 2011). Ondorengo jarrerak arau hauste oso larriak izango dira:

- Komunikazio bete beharra ez burutzea (6.4 atala). Langile edo zuzendari batek erakunde barnean jakinarazten badu eragiketa bat diru zuritze edo terrorismoaren finantzaketarekin loturik egon daitekeenaren zantzua duela, eta SEPBLAC-eri ez jakinaraztea.
- SEPBLAC-eko Batzordearekin obligaziozko kolaborazioa ez betetzea.
- Prozesua agerraraztearen debekua ez betetzea.
- Inspekzioko lanari trabak jartzea.
- Batzordeak ezarritako neurri zuzentzaileak ez betetzea.
- Arau hauste larria burutu aurreko bost urteetan santzio administratiboa jaso izana.
- Funts, aktibo finantzario edo baliabide ekonomikoak izoztu edo blokeatzeko egin beharra ez betetzea.
- Funts, aktibo finantzario edo baliabide ekonomikoak pertsona fisiko edo juridiko, zein erakundeen esku jartzea, jokaera hau debekatuta egonik.

Arau hauste oso larriek izan ditzaketen santzioak dira:

- a) Kargu-hartze publikoa.
- b) 150.000€ko gutxieneko isuna eta gehienekoari dagokionez, Obligaziodun Subjektuaren ondare garbiaren %5 edo eragiketaren zenbatekoaren bikoitza edo 1.500.000€.
- c) Entitateek duten administrazioaren jarduteko baimenaren errebokatzea.

Beti egongo den b) letrako santzioaz gain, a) edo c) letrako santzioak ere jarri ahal izango dira. Aurretik aipatu ditugunak Obligaziodun Subjektuen santzioak dira, baina bertan zuzendaritzako edo administrazioko funtzioak burutzen dituztenek ere ondorengo santzioak izan ditzakete:

- a) 60.000 eta 600.00€ bitarteko isuna bakoitzari.
- b) Kargugabetzea, entitate berean, 10 urterako gehienez.
- c) Kargugabetzea, edozein entitatetan, 10 urterako gehienez.

Beti egongo den a) letrako santzioaz gain, b) edo c) letretan adierazitakoak ere ezarri ahal izango dira.

Har dezagun Auzitegi Goreneko 472/2013 sententzia arau hauste larriak aztertzeko. Bertan, “xyz” bankuak Ministro Kontseiluko AM/7750/2011 Akordioaren aurrean kasazio errekurtsua tarteratu zuen. Izan ere, Ministro Kontseiluak ebatzi zuen aipaturiko bankuak 10/2010 Legeko 18 eta 51.1a) artikuluetan jasotzen diren arau hauste oso larriak burutu zituela. Ondorioz, 150.000€ eta 960.000€ isuna eta bi desgaiakuntza publiko ezarri zizkion.

Bi arau hausteez komunikazio betebeharrak ez betetzeari egiten diote erreferentzia. Lehenengoari dagokionez, Obligaziodun Subjektuek diru zuritze edo terrorismoaren finantzaketa zantzua duten eragiketen aurrean SEPBLAC-eri jakinarazi beharra. Bigarrenak aurrenekoa du oinarri eta kasu honetan zigorra ezartzen da nahiz eta zuzendari edo langile batek barne egituran diru zuritze edo terrorismoaren finantzaketa zantzuaren eragiketaz jakinarazi, ondoren SEPBLAC-eri ez jakinarazteagatik.

Baina bankuak kontentzioso administratiboaren aurrean errekurtsua tarteratu zuen alegatuz 10/2010 legean zuzendari edo langileak aipatzen direnean barne kontrolerako organoak (Diru zuritzearen prebentzioko unitatea) ezin direla Lan Zuzenbideko eta Merkataritza Zuzenbideko kategoria konkretu batekin identifikatu. Bestetik alegatzen da 18. artikuluari erreferentzia eginez objektibotasunaren elementua falta dela. Izan ere, entitate finantzarioko barne kontrolerako organoak ez omen zuen diru zuritze edo terrorismoaren finantzaketako eragiketen inguruko inolako susmorik.

Auzitegi Gorenaren sententziak errekurtsu kontentzioso-administratiboa ezetsi egiten du ondorengo oinarri juridikoak azalduaz:

Diru zuritzearen prebentzioko arautegi erregulatzailaren helburua, interes kolektiboen kalterako diren jarduera ez zilegiei finantza sistemako sarrera galaraztea da. Horregatik Obligaziodun Subjektuez gain, erakundea osatzen duten kontrolerako langile zein administrazio eta zuzendaritzako organoan daudenek ere jakinarazteko betebeharra dute. (STS de 17 de octubre de 2014)

Bestetik, eragiketetan elementu objektiboa ez zegoenaren alegazioa ezezten da:

Erakundearen bezeroek BEZaren itzulketa jasotzeko sortu ziren sozietate instrumentaletatik funtsen mugimendua burutu zuten eramaile-txeke bidez. Gainera diru kantitate handi bat ingresatzeko erabiltzen zen dokumentazioan irregulartasunak zeuden. Horregatik, Obligaziodun Subjektuak eragiketaz jakinarazteko bete beharra zuen. (STS de 17 de octubre de 2014)

Era honetan, erakunde finantzarioak 10/2010 Legean jasotako arau hauste oso larriengatik, aurretik aipaturiko isunak ordaindu beharko ditu eta bi desgaiakuntza publiko izango ditu zigor moduan.

6.1.8.2 Arau hauste larriak

10/2010 Legeko 52 artikuluko zerrenda luze batean adierazten da zein diren arau hauste larriak. Ekonomia eta Ogasun Ministroek ezarri ahal izango dituzte santzio hauek, SEPBLAC-ek hala proposaturik (El Derecho Editores, 2011). Arau hauste hauen santzioak izango dira:

- a) Kargu-hartze pribatua.
- b) Kargu-hartze publikoa.
- c) 60.001€-tako gutxieneko isuna eta Obligaziodun Subjektuaren ondare garbiaren %1 edo eragiketaren zenbatekoa bider 1,5 edo 150.000€.

Beti egongo den c) letrako isunaz gain, a) edo b) atalean adierazitako santzioak ere ezarri ahal izango dira.

Zuzendaritza edo administrazio funtzioak dituzten eta arau haustearen erantzule direnek santzioak izango dituzte:

- a) Kargu-hartze pribatua.
- b) Kargu-hartze publikoa.
- c) 3.000€ eta 60.000€ bitarteko isuna bakoitzari.
- d) Kargugabetzea denboraldi baterako (urte bat gehienez).

c) letran adierazitako santzioa obligaziozkoa izango da eta a) b) edo d) ataletan adierazitakoekin batera ezarri ahal izango da.

6.1.8.3 Arau hauste arinak

Arau hauste arinak izango dira legeak ezarritako egin beharrak ez burutzea eta arau hauste oso larri edo larriak ez direnak. Politika Finantzarioko eta Altxorreko Zuzendari Orokorrari dagokio santzio arinak ezartzea, instruktoarek hala proposaturik.


Santzioei dagokienez:

- a) Kargu-hartze pribatua.
- b) 60.000€ arteko isuna.

6.1.9 Diru zuritze prebentzio neurrien aplikazioa eta eraginkortasuna

Lombardero Expósito juristaren iritzia da lege honek bi arazo dituela. Aurreko legearekin alderatuta, Obligaziodun Subjektu gehiago daude eta hauen egin beharrak ere ugaritu egin dira. Honela, diru zuritzearen prebentzioaz arduratzen diren organo administratiboen lan karga handitu da. Legearen aurreproiektuaren memoria ekonomikoan adierazi zen sektore publikoak ez zuela SEPBLAC finantzatu beharrik izango eta SEPBLAC legera egokitzeak izango zuen kostua mugatuta zegoela. Baina GAFI-k 2006an eginiko ebaluazio baten arabera, SEPBLAC-eko baliabide tekniko eta pertsonalak oso urriak ziren honelako lege bat aplikatzerako orduan. Grafikoan ikus daitekeenez aurten 11.090.000€-ko kostua diru zuritzearen prebentzioko zerbitzu exekutiboak.

10.Grafikoa:SEPBLAC aurrekontua milaka €-tan



Iturria: elaborazio propioa, datuak: SEPBLAC

http://www.sepg.pap.minhap.gob.es/Presup/PGE2015Proyecto/MaestroDocumentos/PGE-ROM/doc/4/4/2/1/N_15_A_G_4_BC_P_1.PDF helbidetik berreskuratuta.

Bigarren arazo moduan ikusten du juristak **Obligaziodun Subjektuen kostuen gehikuntza**. 1993ko legean 10 kategoriatan banaturik zeuden Obligaziodun Subjektuak, aldiz, indarrean dagoenean 26. (Lombardero Expósito, 2010).

Erakunde hauen kostuei dagokionez, KPMG kontsultoretza enpresak 2014ean argitaraturiko txosten batean erakunde finantzarioen (a-tik i bitartekoak) diru zuritzearen prebentzioko urteko gastu globala 10.000 milioi \$ izaten jarraituko duela aurreikusi zuen. Erakunde hauen diru zuritzearen prebentziorako aurrekontuan kosturik handiena duten arloak dira:

- Eragiketen monitoretzarako sistemak: eragiketa susmagarriak detektatzeko softwarea eta ondoren egin beharreko aldaketak.
- *Know your customer*: bezeroa ezagutu behar da eragiketak egiten hasi aurretik. Honen arrisku profila aztertu ondoren, egintza normal edo sendotuak aplikatu behar direnean zalantzak sortzen dira. Ondorio dira inbertsio handiko erremediatze proiektuak.
- Kontratazioa: diru zuritze prebentzio alorrean adituak diren langileak enpresa barnean mantentzeak kostu handia suposatzen du, baita hauen formakuntzak ere (KPMG, 2014).

Beste ikuspuntu batetik aztertzen du eraginkortasuna Blanco Corderok. Honen esanetan ezinbestekoa da kriminologiako ikuspuntu batetik aztertzea sistema prebentiboa, eta gaur egun Espainian ez dago arlo honetako ikerkuntzarik. Hala ere, egungo sistema prebentiboan Naylor kriminologo eta ekonomialariak adierazitako “*follow the money*” filosofia jarraitu dela dio, hau da, diruaren arrastoa jarraituz konfiskazioa burutzea. Delitugileak, gizaki arrazionala izaki, arrisku eta emaitzen ponderazio bat jarraiki jokatzen du, hots, delitu batetik lor daitekeen onura arriskua baino handiagoa dela ikusten duenean burutuko du delitua (Blanco Cordero, 2009). Juristaren aburuz, sistemaren

eraginkortasuna ebaluatzea oso zaila da, **prebentzio sistemaren aplikazioarekin saihestu dena kuantifikatzean dauden mugak** kontuan hartuta. Baina hala ere, arlo pribatuari dagokionez, neurriak hein batean eraginkorrak direla dio.

Arlo pribatuari dagokionez, azter dezagun testuan jada aipatu ditugun bi banku, BPA eta Banco Madrid (BPAREN filiala). Bi hauek diru zuritzean izan duten ustezko kolaborazioagatik ikertuak izaten ari dira. Ikerketak irekita jarraitzen du bai Andorran eta baita Espainian. Diru zuritzea finantza erakunde hauetan instituzionalizatuta zegoela, hau da, bankuak dirua zuritzeko egituran barneratuta zeudela adierazi dute. Honen ondorioak? Testu honetan aipatu dugunarekin bat eginez, inbertitzaileengan beldurra sortu da eta ondorio izan du Banco Madrideko 124 milioi euroren ihesa eta honen kaudimen gabezia. Fernando Andreu Auzitegi Nazionaleko Epaileak adierazi zuen ustezko jarduera ez zilegi hauek gordailugileak, inbertitzaileak, erakundea eta ekonomia nazionala kalte zitzaketela (Arechederra, 2015). *Fondo de Reestructuración Ordenada Bancaria*-k (FROB) Banco Madrid ez zuela erreskatatuko adierazi zuen, legeak ezarritako baldintzak ez zituelako betetzen (FROB, 2015). Ondorioz konkurtsoan sartu zen Banco Madrid eta likidazio fasea hasi da (Edicto de 8 de abril de 2015, BOE núm 84). Bezero bakoitzak 100.000€ arte du bermatuta erakundean zuten kapitala eta asko borrokatu ondoren, masa kontsurtsaletik kanpo geratuko dira inbertsio funtsetako, pentsio planetako eta sicav-eko efektiboak (250 milioi euro) (Invertia, 2015).

Banco Madridek legeak diru zuritzearen prebentziorako ezarritako neurriak ez betetzeagatik, Espainiako sistema finantzarioa kolokan jarri du.

Beraz, esan genezake sistema prebentiboak ez duela guztiz funtzionatzen bertan ezarritako neurriak ez direlako aplikatzen. Hortaz, legearen eraginkortasuna bermatzeko zer egin behar da?

SEPBLAC-ek adierazten du **diru zuritzearen prebentzioko unitate teknikoak, barne auditoriak eta kanpo aztertzaileek ezinbesteko papera** dutela prebentzioko sisteman. Ezinbestekoa izango da sistemaren eraginkortasunerako unitate teknikoak beharrezko giza baliabide eta baliabide teknikoak izatea. Barne auditoriari dagokionez, Obligaziodun Subjektuek eta hauen egituran prebentzio sisteman parte hartzen dutenek egin beharreko egintzak betetzen dituztela bermatu beharko dute. Eta azkenik, kanpo aztertzaileei dagokionez, sistemaren funtzionamendua deskribatu eta ebaluatzeaz gain, sistemaren eraginkortasunean duten iritzia azaldu beharko dute txostenean, beharrezko aldaketak adieraziz (SEPBLAC, 2013).

7. Proposamen berria: Danimarka

2015eko maiatzean Danimarkako Merkataritza Ganbarak proposamen berri bat eraman zuen Parlamentura: jarduera jakin batzuetan **eskudirua ez onartzea ordainketa bide** moduan. Txikizkari, jatetxe eta gasolindegia eskudirua ez onartzeko eskubidea izango lukete 2016 urtetik aurrera parlamentuan proposamena onartu ezker, eta itxura guztiaren arabera hala gertatuko da (Redder, 2015). Azter dezagun Danimarkako gizartea.

5,6 milioi biztanle dituen herrialde txikia da. Barne Produktu Gordina (BPG) per capita 2014 urtean 46.255,05 \$ (Trading Economics, 2015) izan zen eta ongizate estatuaren adibide garbia dugu gainerako herrialde eskandinaviarrekin batera. Hezkuntza, osasun eta garraio sistema bikainak, prestazio sozialak eta aberastasunaren banaketa dira Danimarkako gizartearen adierazgarri. Adibide moduan esan genezake unibertsitate mailako ikasketak burutzen dituen ikasle daniar guztiek (aberats edo pobre) gobernuaren diru laguntza jasotzen dutela, 800€/hilean beraien etxetik kanpo bizi direnentzat, 400€/hilean euren etxeetan bizi direnentzat. Lan merkatuko malgusegurtasuna (*flexicurity*) kontzeptua bertan sortu zen eta gaur egun %6,4 ko desenplegua du (Eurostat, 2015). Bere moneta propioa du *kroner* (1€~7,45kr.) deitua, eta Europar Batasuneko ERM II (*Exchange Rate Mechanism*) sistemaren bitartez EB-ko moneten, kasu honetan daniar koronaren fluktuazioa limite batzuen barnean ematen da, euroa +/- 2,25. Billeterik handiena 1.000 koronakoa da, kanbioan 135 € direnak.

Ordainketa sistemei dagokionez, 2014an erosketen %25 soilik ordaindu zen eskudirutan (Lauzirika, 2015) eta populazioaren herenak “*MobilePay*” aplikazioa erabiltzen du ordainketak eta transferentziak egiteko (Danish payments council, 2014). “*Danske Bank*” erakunde finantzarioak eginiko adierazpen batean mugikor bidezko ordainketa sistemak 2 milioi erabiltzaile zituela (5,6 milioiko biztanleria duen herrialdean) esan zuen. Duela bi urte sortutako ordainketa metodoa 200.000 transakzio egiteko erabiltzen da egunero, batz bestea 45 milioi kr. (6 milioi €) mugituz.

Baina posible izango litzateke eskudirua zirkulaziotik ateratzea?

Danimarkako Ordainketen Kontseiluaren arabera, biztanleri helduaren %100ak kreditu txartela du, burutzen diren transakzio guztien %25 soilik egiten da eskudirutan eta merkataria ia guztiek txartelak onartzen dituzte edozein prezioetako produktu edo zerbitzuak erosterako orduan. Beraz, biztanleria honelako aldaketa baterako prestatua dagoela esan genezake.

Eskudirua ez onartzeko aukera izatearen proposamenaren atzean, ordea, zein abantaila eta desabantailak daude?

Desabantailen artean **pribatutasuna** dugu. Transakzio guztiak txartel edo mugikorrek aplikazio bidez burutuko balira, biztanleria kontrolaturik egongo litzateke. Kontsumo ohiturez gain hauen egunerokotasunaren berri izatea posible izango litzateke, momentu edo kokapen jakinetan burututako ekintzak erregistraturik geratuko liratekelako.

Abantailak ugariak dira *Finansraadet* finantza lobby-aren aburuz, merkatariek segurtasunean diru gutxiago gastatuko luketelako, **kostuak murriztuz** eta egunero kaxa kontatzen denbora ez luketelako galduko, **produktibitatea handituz** (Reuters, 2015).

Baina gure gaiarekin lotzeko, Danimarkako Merkataritza Ganberaren baieztapen bat aztertuko dugu: “proposamena **ezkutuko ekonomiaren aurka borroka** egiteko modua izan daiteke, eskudiru bidez ezkututzen dena” (Dansk Erverh, 2015). Eskudiruak erraztu egiten badu ezkutuko ekonomia, iruzur fiskala eta honen ondorio den diru zuritzea, azter

dezagun zer nolako eragina izango lukeen eskudiruaren ezabatzeak gizartean eta jarduera ez zilegien burutapenean.

8. Irtenbide bat: eskudiruaren amaiera

Sistema finantzarioak sarrera legeak erregulatzen du, dirua zuritu nahi duenak sarrera mugatua du, kontrolatuta dago. Baina aurrez aipatu ditugu dirua zuritzeko beste sistema batzuk, besteak beste, transferentzia informalak, ondasunen erosketa edo modulu bitartez zergak ordaintzen dituzten enpresen sorrera. Eskudiruak edo transferentzien anonimotasunak paper garrantzitsua du guzti honetan. Aurretik aipatu dugun moduan, SEPBLAC-ek dio banku sistemaren garapenak eskudiruaren erabileraren murrizketa nabarmena izan beharko zukeela ondorio, baina ez da hala izan.


Horregatik, azter dezagun eskudiruaren desagerpenak ze ondorio izango zituen eta honen abantaila eta desabantailak.

Europako Banku Zentralaren (EBZ) funtsezko funtzioa moneta politika definitu eta exekutatzea da, helburua inflazioaren kontrola izanik. Europar Batasunean inflazioa %2koa izatea du helburu EBZ-ak eta hori lortzeko moneta politikako tresnak erabiltzen ditu. Hiru dira moneta politikaren tresnak:

- Kutxa koefizientea: bankuak behartuta daude Banku Zentralaren aginduz erreserba bat Banku Zentralean gordetzera.
- Erraztasun iraunkorra: xede du likidezia ematea edo xurgatzea, honekin egun bateko interes tasak kontrolatzen dituelarik. Bi motatako erraztasun iraunkorrak daude:
 - Krediturako erraztasun marjinala: likidezia emateko erabiltzen da eta banku zentralak egun baterako maileguak ematen dizkie erakunde finantzarioei. 2015eko maiatzean %0,3 da.
 - Gordailurako erraztasun marjinala: likidezia xurgatzeko erabiltzen da eta banku zentralean erakunde finantzarioek egun baterako gordailuak egiten dituzte. 2015eko maiatzean %-0,2 da (Banco de España, 2015).
- Merkatu irekiko eragiketak: eragiketa hauen bitartez, interes tasak kontrolatzea, moneta politikaren orientazioa zehaztea eta moneta merkatuaren likidezia egoera kudeatzea du helburu EBZ-ak. Eragiketa hauek lau taldetan banatzen dira:
 - Finantzaketa eragiketa nagusiak: likidezia emateko.
 - Epe luzeagorako finantza eragiketak: likidezia emateko.
 - Doitze eragiketak: likidezia emateko edo xurgatzeko.
 - Egiturazko eragiketak: likidezia emateko edo xurgatzeko.

Azpian ikusten dugun grafikoan, merkatu irekiko eragiketetako interes tasen eboluzioa ikusten dugu, alde batetik Danimarkarena eta bestetik Espainiarena (EBZ-ak finkaturik). Espainiaren kasuan ikusten dugu gaur egun %0,05 dela, Danimarkaren kasuan, aldiz, %-0,75.

11.Grafikoa:Danimarka eta Espainiako merkatu irekiko interes tasak



Iturria: <http://www.tradingeconomics.com/denmark/interest-rate>

Aipatu dugun moduan, eta grafikoan ikus daitekeen bezala, gordailurako erraztasun marjinala $\% -0,2$ da eta interes tasak $\% 0$ inguruan dabilta, baina zergatik?

Gordailurako erraztasun marjinala negatiboa izatearen helburua gordailuak penalizatzea da, honela bankuek diru hori ekonomia produktiboan mailegatu dezake. Ekonomia erreaktibatzeko ezinbestekoa da **kontsumoa handitzea**. Kontsumoa handitzearen helburua du baita ere interes tasa negatiboen ezarpenak. Aurreztu edo kontsumitu aukeren artean, kontsumoa bultzatu nahi da interes negatiboekin. Baina beste aukera bat irekita geratzen da: eskudirutan aurrezte, finantza sistemara jo gabe eta iruzurra erraztuz.

Interes tasa negatiboek dakarten eragin negatiboen adibide dugu Bankinter banketxea. 2006an Bankinterren Libor (*London interbank offered rate*) erreferentziako interes tasa oinarri zuten hipotekak kontratatu zituztenek, libor (hilabete baterako franko suitzarretako iterazioa) $\% 0,5$ itzultzea akordatu zuten. Baina banku-arteak merkatuan izandako interes tasen jaitsierak, Libor erreferentzia tasa $\% -0,8$ eraman dute. Beraz, Libor $\% 0,05$ zutenei maileguaren nagusia txikiagotu behar izan diete (Kowsmann & Neumann, 2015).

Interes tasa negatiboak amaitzeko bidea eskudiruaren desagerpena dela baieztatzen duten bi ekonomialari ditugu Willem H. Buiter, Erresuma Batuko Moneta Politikako Batzordeko kide ohia eta Citigroup-eko ekonomialaria, eta Kenneth Rogoff, Harvard unibertsitateko ekonomialaria. Biek bat egiten dute eskudirua krisitik ateratzeko oztopo handiena denaren baieztapenean. Kontsumoa handitu behar da eta horretarako interes tasak jaitsi dira, aurreztu edo kontsumitu aukeren artean kontsumitzea aukeratzeko. Baina eskudirutan aurrezteko aukera izanda, interes tasa negatiboak izatearen zentzua galtzen da, ez delako gordailatzen ez kontsumitzen.

Buiterrek eskudiruaren desagerpenak izango lituzkeen 5 desabantaila aipatzen ditu, azalduz eskudirua desagertzearen aurkako argumentuak ahulak direla, baina kontuan hartuz baita ere interes tasa negatiboen irtenbide bakarra ez dela:

1. Transakzio globalen %85a eskudirutan egiten da, eta ohitura hauek aldatzea zaila izango da.
2. Eskudirua pobreek eta edadetuek erabiltzen duten ordainketa bidea da. Baina, gehienezko 5 euroko nominala duten billete eta txanponak mantendu ezker arazo hori konponduko litzateke.
3. Señoreaje irabazirik ez litzateke egongo, hau da, banku zentralak dirua inprimatzetik lortzen duena. Baina gobernuen benetako kostua, señoreaje irabazien galera baino txikiagoa izango litzateke, iruzur fiskala zailduko litzatekelako.
4. Eskudiruaren desagerpenak pribatutasunaren galera ekarriko luke, gobernuaren kontrol handiagoa. Baina kontrol honek **ekonomia ezkutua eta ekonomia kriminalean** eragingo luke baita ere.
5. Ordainketa elektronikoen segurtasun eta eragiketa arazo berriak ekar ditzakete eta gainera hackeatuak izan daitezke. Teknologia garapenak, ordea, arazo hauek konpon ditzake, eta ez da ahaztu behar eskudirua lapurtua izan daitekeela (Buiter, 2015).

Kenneth Rogoff-en aburuz, eskudiruaren desagerpenak **interes tasa negatiboak desagertuko** lituzke, interesak negatibora iritsi aurretik kontsumoa handituz joango litzatekeelako. Eta beste aldetik, batez ere billete handiek errazten duten **jarduera ez zilegiak eta iruzur fiskala saihestuko** lirateke (Rogoff, 2014). Estimazioen arabera AEBko ezkutuko ekonomia BPGren %7-8 ingurukoa da, aldiz Europako batz bestekoa BPGren %18,5da (Schneider, Kearney, & VisaEurope, 2013). Horregatik Rogoff-ek dio nahiz eta ordainketa elektronikoen pribatutasuna kendu ezinbestekoa dela kontrol hori iruzur eta krimenarekin amaitzeko.

Beraz, bi ekonomialari hauek beharrezkotzat ikusten dute eskudiruaren desagerpena, alde batetik krisi ekonomikotik ateratzeko ezinbesteko neurri moduan interes tasa negatiboekin amaituz, eta beste aldetik ezkutuko ekonomia, iruzur fiskal eta diru zuritzearekin amaitzeko.


Bi ekonomialari hauetaz gain, azter dezagun beste iturri batzuk zer dioten.

Behean ikusten dugun grafikoan, ekonomia ezkutua eta ordainketa elektronikoen korrelazio negatiboa (sendoa -0.74) dutela erakusten da, hots, ekonomia ezkutu handiagoa duten herrialdeetan ordainketa elektronikoen erabilera txikiagoa da.

12.Grafikoa:Ekonomia ezkutua eta ordainketa elektronikoak

Share of shadow economy

(% of GDP)



Iturria: AtKearney&VisaEurope&Friedrich Schneider, PhD(2013) The shadow economy in Europe.

Ekonomia ezkutua inguruan eginiko txosten berean, ez da eskudiruaren amaieraren aipamenik egiten, baina Friedrich Schneider irakasleak eginiko azterketa baten arabera, datozen lau urtetan, urteko %10eko hazkundera badute ordainketa elektronikoek, ekonomia ezkutua %5 murriztu daitekeela aipatzen da.

Suedian dauden 780 sukurtsaletatik 530etan ezin da eskudirua atera eta eskudirua BPGaren %3a da soilik, Eurogunean BPGaren %10 denean. Delinkuentzia kasuak gutxitu egin dira *Swedish Bankers' Association*-en arabera eta 2008ko 110 banku lapurretak 2011an 16ra jaitsi dira (Schneider, Kearney, & VisaEurope, 2013).

Beraz, esan genezake gaur egun bultzatu nahi den joera ordainketa elektronikoak burutzea dela. Helburu bera dute baita ere eskudirutan ordaintzeko mugek. Beheko taulan ikus daitekeen moduan ezberdintasun handiak daude Europa barnean. Iruzur fiskala eta ezkutuko ekonomia murriztea dute xede muga hauek, baina legedi ezberdinak egotearen ondorioz, muga hauen eraginkortasuna murrizten da. Adibide moduan jar genezake Alemaniara kotxe berri bat eskudirutan erosten duen espainiarra. Alemanian ez dago mugarik eskudirutan ordaintzeko, beraz, Espainiatik hamar mila euro pertsonako inolako deklarazio gabe ateratzea badagoenez, posible egingo zaio Alemanian eskudirutan kotxea erostea. Eskudiruaren jatorria ez bada zilegia, erosketarekin zuritzea lortu du.

2.Taula:Eskudirutan ordaintzeko mugak Europan

Herrialdea	Eskudirutan ordaintzeko muga
Frantzia	1.000€
Alemania	Ez du mugarik
Espainia	2.500€, atzerritarrentzat 15.000€
Grezia	1.500€
Belgika	3.000€
Islandia	Ez du mugarik
Danimarka	Ez du mugarik
Suedia	Ez du mugarik
Italia	999,99€
Txekia	14.000€
Eslovakia	15.000€
Bulgaria	5.112€

Iturria:elaborazio propioa, datuak: European Consumer Centre France.
<http://www.europe-consommateurs.eu/en/consumer-topics/buying-of-goods-and-services/cash-payment-limitations/> helbidetik eskuratua.

Ondorio moduan esan genezake finantza sistemako sarrera erregulatuta dagoela, Espainiaren kasuan 10/2010 Legearen bitartez. Horregatik, eskudirua desagertzen bada, transakzio guztiak kontrolaturik geratuko lirateke. Baina ezinbestekotzat jotzen dugu herrialdeak bat etortzea euren legedia egiterakoan, ezberdintasunek neurrien eraginkortasuna murrizten dutelako. Beraz, esan moduan honakoak izango lirateke eskudirua ezabatzearen ondorioak:

1. Ekonomialari batzuen aburuz, eskudiruaren amaierak ekonomiaren errekupeazioan lagunduko du.
2. Moneta politikaren kontrola erraztuko litzateke.
3. Ekonomialari batzuen aburuz, eskudiruaren amaierak negozioen segurtasuna eta produktibitatea handituko du.
4. Eragiketa guztien kontrola emango litzateke.
5. Ordainketa elektronikoak ordainketa bide bakar bihurtzen badira, pribatutasuna galduko da, eta gizabanakoen informazio guztia estatuaren edo finantza erakundeen esku geratuko litzatekeelako.
6. Iruzur fiskala murriztuko litzateke.
7. Ekonomialari batzuek uste dute jarduera ez zilegi gutxiago burutuko liratekeela. Hala ere, metal preziatu, beste dibisa batzuetan edo espeziatan ordaintzen jarraitzeko aukera egongo litzateke.

9. Etika eta koordinazioa

Ekonomia, politika eta etika gizarteko sistemaren egonkortasuna bermatzen duten zutabeak dira. Sistema honek porrot egiten du ondorengo kasuetan:

- Arrisku moral, politika makroekonomiko ezegoki, gehiegizko espekulazio, gainbaloraturiko moneta edo merkatu beltzaren ondoriozko **merkatuen porrota**.
- Erregulazioko eta jagoletzako sistemen funtzionamendu ez eraginkorra, banku eta finantza sistemako irregulartasuna, gardentasun eza edo kontabilitate arau ez egokien ondoriozko **instituzioetako porrota**.
- Mafia, ustelkeria eta eroskeria, konfiantza eta erantzukizun sozial falta eta instituzioen eta inbertitzaileen abariziaren ondoriozko **moral porrota**.

Sistema ekonomiko honen funtzionamendu justu eta zuzena bermatzeko **marko morala** edukitzea beharrezkoa da. Marko moralak “jarduteko modua erakusten du” eta merkatu, gobernu, bitartekaritzako elkarte, organizazio supranazional eta gizartearen konpromiso eta interdependentziarekin garatzen da (de Alba, 2006).

Prestigioa, influentzia, kontrola eta boterea lortzeko helburuarekin burutzen dira delitu ekonomikoak. Profil psikologikoa aztertuz, ego handiko eta besteen existentziaz ahazten diren pertsonak dira, nartzisistak (Muiño, 2014). Beraz, delinkuenteen morala ez da gizartearen konpromisoarekin garatzen, eta horrek sistema kolokan jartzen du.

Delikuentzia ekonomikoa da dirua zuritzea, eta merkatuen segurtasuna eta egonkortasuna arriskuan jartzeaz gain, gizarteko egitura ere arriskuan jartzen du. Ez dira bere efektuak modu isolatuan kontuan hartu behar, diru zuritzean erabiltzen diren instrumentuek, hala nola, trafiko ez zilegiak, terrorismoa, organizaturiko delinkuentzia edo merkatuen espekulazioak zuzenean eragiten dutelako gizarteko egituran.

Estimazio batzuen arabera, urtero 3 bilioi dolar zuritzen da, munduko BPGaren %5 inguru dena eta Euroguneko batz besteko ezkutuko ekonomia BPGaren % 18,5 da.

Honi aurre egiteko, Segurtasun Gorpu, Ministerio Fiskal, Epaile eta parlamentarien funtzioa eta eskumena da diru zuritzeari aurre egitea, prebentzioa xede izanik. Gainera, Banku Zentral, erakunde finantzario publiko, merkatuen gainbegiratzaile, Altxor Publikoko erantzule eta Finantza, Zerga, Aduana zein Kanpo transakzioetako Administrazioak dira sistemaren funtzionamendua bermatzeko prebentzio prozesuan kolaboratu behar dutenak.

Guztia martxan jartzeko **eskualde, nazio eta nazioarteko koordinazio, eta kudeaketa eta kontrol organoen elkarrekintza ezinbesteko** dira (Hernández, 2009).

Sindikatu kriminalek gainerako enpresa legalen moduan aurrera egin nahi izaten dute, eta horretarako ezinbesteko dituzte goi karguetan dauden lagunak. Egungo mundu finantzarioan krimen organizatuari loturiko talde klandestinoak gobernutako politiko eta goi funtzionarioekin harremanak dituzte. Gainera, hau ez da garapen bidean dauden herrialdeetan soilik gertatzen, Europar Batasuna, AEB eta Japonian ustelkeria geldiezina da. (United Nations, 2006)

Diru beltzak eta ekonomia ezkutua boterea dakarte, politiko, enpresari, funtzionario, abokatu nahiz artistak erakartzen dituen boterea. Diru zikin hori zuritzea, boterea eta aberastasuna lortzeko tresnarik eraginkorrena da (Vargas Hernández, 2009).

Beraz nola lortu eskualde, nazio eta nazioarteko organoen elkarrekintza delinkuentzia ekonomikoari eta honen atzean dagoen botere, influentzia eta prestigio nahiari aurre egiteko?

Espainiaren kasuan, 5/2010 Lege Organikoarekin Kode Penala aldatu zen, **nazioarteko konpromisoei jarraiki**, diru zuritze delituaren aplikazio eremua handituz. Organizaturiko delinkuentzia, droga eta arma trafikoa, terrorismoa edo diru zuritzeari modu eraginkorrean aurre egiteko bide bakarra politika kriminal **homogeneoa** da (del Carpio Delgado, 2012). Ezinbestekoa da arazo komunei aurre egiteko, herrialde ezberdinek **erantzun komuna** ematea, honela Kode Penaleko aspektu batzuk harmonizatu dira. Herritarren askatasuna murriztu da eta aldi berean segurtasuna handitu da.

Hortaz, esan genezake sistemaren egonkortasuna kolokan jar dezaketela botere, influentzia zein kontrol nahiak. Sistemaren egonkortasuna lortzeko eskumena duten erakunde edo administrazioen elkarrekintza ezinbestekoa da, hala ere erakunde hauetan botere nahia dago. Baina elkarrekintza horrek bultzaturiko konpromisoek eragingo dute benetako elkarrekintza lortzea.

Levi-k dio nazioarteko erakundeek euren influentzia, funtsak eta prestigioa galdu nahi ez dituztenez diru zuritzearen aurkako borroka hasi dutela (Levi, 2005). Testuan aipatu dugu Europar Batasuneko herrialde guztiek, Suitza, Austria eta Luxenburgo barne, ustez banku sekretuarekin amaituko duen informazio partekatzea sinatu dutela. Lehenago, 2014an Suitzak AEBekin informazio fiskala elkartrukatu zuela onartu zuen FATCA Legea berretsiz. Hau lortzeko AEBk **presio** ikaragarria egin zion Suitzari, dolarretan buruturiko eragiketak bertan behera utzi beharko zituela eta AEBko balore eta kapitalen merkatuan parte hartzen debekatuko ziotela esanez (Mombelli, 2013). Levi-k esanikoari jarraiki, herrialde moduan duen influentzia eta prestigioa kolokan ez dira jarri nahi. Gidalerroa hau izanik, OECD eta Europar Batasuna dira gaur egun herrialde ezberdinekin informazio elkartrukea lortzeko asmotan, presiopean dituztenak Hong Kong eta Singapur (Olaverri, 2014).

Beraz esan genezake, orokorrean, indibidualki edo erakunde moduan dauden interesak berdinak direla: boterea, prestigioa, kontrola edo influentzia. Botere publikoa arduratu behar da sistema prebentibo eraginkorraz, eta honen interesak eraisteko bide bakarra elkarrekintzak, kolaborazioak eta koordinazioak ondorio duten presioa da.

10. Eranskina: estatistikak

Diru zuritzearen aurkako politikak burutzeko ezinbestekoa da datuetan oinarritutako ezagutza garatea. Zenbat eta datu errealagoak izan eskuartean, analisi zehatzagoa burutzeko aukera egongo da, sistema prebentibo eraginkorragoa lortuz.

Diru zuritzea delitua denez gero, ezinezkoa da zenbaki errealez hitz egitea. Ondorioz, jarraian adieraziko diren datuak hurbilketak edo zeharka lortutako datuak dira, hots, zantzuengatik jakinarazitako eragiketak, buruturiko konfiskazioak edo amaituriko prozedura judizialen zigorrak.

Datu hauek eskuratzeko bi iturri ditugu, Espainiako kasuan SEPBLAC-ek urtero argitaratzen dituen datuak, eta beste aldetik Europa mailan eskuragai dugun Eurostaten “*Money Laundering in Europe 2013*” txostena.

10.1 Espainia

10.1.1 Bide penala

3.Taula:Diru zuritzeagatiko kondenaren iraupena

	2011	2012	2013
6 hilabete	43	30	30
6 hilabete-1urte	5	9	12
1-2 urte	20	40	19
2-3 urte	4	7	10
3-4 urte	15	11	33
4-5 urte	7	10	9
5-6 urte	1	2	3
7-8 urte	-	2	-
Guztira	95	111	116

Iturria: elaborazio propioa, datuak: Memoria de información estadística 2010- 2013, SEPBLAC

4.Taula:Kondenetan ezarritako isunen zenbatekoa

	2011	2012	2013
Guztira	183.597.883,23€	556.088.442€	655.870.149,75€

Iturria: elaborazio propioa, datuak: Memoria de información estadística 2010- 2013, SEPBLAC

2013 urtean 116 pertsona izan ziren kondenatuak, eta kondena hauetan ezarritako isunak %20 handitu ziren 2012 urtearekin alderatu ezker. 2010ean Kode Penala erreformatu zenetik, ezarritako zigorrak handitu egin dira. Kontuan hartu behar da kondenetan ezarritako isunei dagokienez, diru zuritzea delitu nagusi moduan edo erlazionaturiko delituei ezarritako zenbatekoak direla.

10.1.2 Bide Administratiboa

Bide administratiboan, askotan esan dugun moduan Obligaziodun Subjektuak ditugu. 6.4 atalean erakunde finantzarioek zantzuengatik jakinarazitako datuak eta eragiketa hauek aztertu ondoren detektaturiko jardura deliktiboak aipatu ditugu. Azken urteetan igo egin dira komunikazio hauek.

5.Taula:Komunikazio sistematikoko eragiketa kopurua

	2012	2013	Hazkundera
Komunikazio sistematikoa guztira	799.886	801.267	%0,17

Iturria: elaborazio propioa, datuak: Memoria de información estadística 2010- 2013, SEPBLAC

Komunikazio sistematikoari dagokionez, ez da aldaketa nabarmenik eman.

6.Taula:Bide administratiboan eginiko arau haustegatik ezarritako santzio kopurua

	2010	2011	2012	2013
Egin beharreko egintzak	5	1	4	9
Dokumentuen kontserbazioa	-	4	2	1
Analisi berezia	2	6	1	17
Komunikazio bete beharra	1	7	4	6
Erantzun eza eskakizunei	1	-	2	-
Kontrolerako prozedurak edo eta organoak falta	5	5	6	17
Formakuntza falta materialian	4	2	3	3
Gomendioen aplikazio eza	2	-	-	-
Kanpo adituen txosten falta	-	-	-	2
Guztira santzioak	21	25	22	55

Iturria: elaborazio propioa, datuak: Memoria de información estadística 2010- 2013, SEPBLAC

Taula honek 10/2010 Legean ezarritako obligazioak ez betetzeagatik ezarritako santzio kopurua jasotzen du. Ikusten dugunez, urtetik urtera goraka doa antzemandako Obligaziodun Subjektuek betetzen ez dituzten egin beharrak.

7.Taula:Bide administratiboko prebentzio neurriak ez betetzeagatik ezarritako santzioen zenbatekoak

	2010	2011	2012	2013
Obligaziodun Subjektuei prebentzio neurriak ez betetzeagatik	1.940.000€	1.496.000€	3.242.010€	5.257.472€
Aitortu gabe 100.000€ baino gehiago mugitzea	4.897.795€	6.190.920€	7.515.375€	7.829.355€
Aitortu gabe atzerrira 10.000€ baino gehiago	13.023.476€	11.325.247€	10.737.976€	14.027.868€
Guztira	19.861.271€	19.012.167€	21.495.361€	27.114.695€

Iturria: elaborazio propioa, datuak: Memoria de información estadística 2010- 2013, SEPBLAC

Santzioen zenbatekoei dagokienez, aipatu behar da Obligaziodun Subjektuei ezarri zaizkien santzioetako datuak 2013 urtean emaniko ebazpenetako datuak jasotzen dituela.

Aldiz, aitortu gabeko eskudiruaren mugimenduko datuak 2013 urtean buruturiko arau hausteak dira, administrazioko ebazpenetik independenteki.

Taula honi so egin ezker, santzioen guztizko zenbatekoak 2012tik %80 egin du gora.

10.2 Europa

Eurostatek 2013an argitaraturiko txostenaren helburuak lau dira:


- Estatu kideen arteko datuak alderatzean oztupoak identifikatzea.
- Diru zuritze bezalako gai konplexu bati gardentasuna ematea.
- Estatu kideak datuak modu zorrotzean jaso (batez ere fase judizialekoak), eta datu estatistiko hobekak lor ditzaten sustatzea.
- Estatu kideak diru zuritzearen borroka suposatzen duen kostu/irabazi analisia garatu dezaten sustatzea (Eurostat, 2013).

Espainiako FIU-k datu asko argitaratzen ditu urtero bere memorian. Aldiz, Eurostatek bi edo hiru urtetik behin argitaratzen ditu herrialde ezberdinetako FIU-k garaturiko datuak barneratzen dituzten txostenak. Txostenean helburuetako bat estatu kideek datuak alderatzea adierazten bada ere, ezinezkoa da jarduera hau burutzea. Arrazoiak ondorengoak dira:

- Herrialde bakoitzean modu ezberdinean tratatzen da informazioa. Adibidez, zantzuengatik eginiko jakinarazpenetan herrialde batzuk jarduera gehiago barneratzen dituzte; edo eragiketa susmagarri guztiak ikertzen dituzte.
- Datu zaharkituak dira. 2013ko txosten honetan 2010eko datuak dira berrienak. Espainiaren kasuan zuzentaraua 2 urte beranduago ezarri zenez (2010ean), ezinezkoa da konparaketa egitea, baldintzak ezberdinak dira.
- Herrialde batzuk ez dute arlo jakin batzuetako adierazleerako daturik.

Hala ere, grafiko bat atxikitzea erabaki dugu. Bertan herrialde batzuk faltan sumatzen dira eta ezberdintasunak nabariak dira.

13.Grafikoa: 2010ean zantzuengatik eginiko jakinarazpen kopurua



Iturria: elaborazio propioa, datuak: Eurostat

Aurretik aipatutakoaz gain, taula hau interpretatzerakoan kontuan hartu behar da herrialde bakoitzeko biztanlerian eta Obligaziodun Subjektu kopuruan dauden ezberdintasunak. Datu hauek behin Finantza Inteligentziako Unitateak eragiketak aztertu ondoren, prozesu judizialean sartzen diren datuak dira, normalean askoz gutxiago direnak.

11. Ondorioak

1. Jakinaren gainean egonik **ondasunek delitu batean dutela jatorria**, ondasunok eskuratu, bihurtu, transferitu, ezkutatu, eduki edo erabiltzea diru zuritzetzat kontsideratuko da.
2. Diru zuritzeak herrialde baten ekonomian eta gizartean eragin oso kaltegarria izan ditzake, sistema ekonomikoa ere kolakan jar dezakeelarik.
 - I. Merkatuan desorekak sor ditzake.
 - II. Lehiarako askatasuna murriztu dezake.
 - III. Parametro distortsiona ditzake, politika ekonomikoaren kontrolaren galera ondorio izanik.
 - IV. Diru zuritzea prebenitzean gastu bat du administrazioak.
 - V. Legezketasun jarrera ez izatea sustatu dezake.
 - VI. Merkatu finantzarioaren integritatea kolokan jar dezake.
3. 80ko hamarkadan droga trafikoa murrizteko helbururekin hasi ziren Ameriketako Estatu Batuetan diru zuritzearen prebentzio politikak garatzen. Nazioarteko prebentzio politiken garapenean bi gertakizunek izango dute eragina:
 - I. 2001eko Torre Bikien atentatuan finantza sistemaren erabilera egin zen eta sentsibilizazio orokortu bat eman zen mundu mailan.
 - II. Globalizazioa.
4. **Globalizazioa** izan da diru zuritzearen faktore nagusia. Dirua zuritzeko prozesuan zuzen-zuzenean eragina duten faktoreak ditu ondorio globalizazioak:
 - I. Finantza sistemaren nazioartekotze progresiboa.
 - II. Desarauketa prozesuak finantza arloan eta bankan. Gainera finantza fluxuen kontrolen liberalizazioa eman da.
 - III. Produktu finantzario berrien sorrera.
 - IV. Teknologia garapena.
 - V. Telekomunikazioetan garapena.
 - VI. Paradisu fiskaletako sarbidea erraztu du.
5. Diru zuritzearen ezaugarri nagusia **legegintzan erabateko koordinazioa falta** dela da. Europar Batasunean diru zuritzea prebenitzeko hiru zuzentarau eman dira, laugarrena bidean da, baina banku sekretuak existitzen jarraitzen du 2015 urte honetan eta eskudiruarekin ordaintzeko mugak ezberdinak dira. Gainera **jarduera hauek profesionalizatuta** daude, geroz eta teknika sofistikuagoak erabiltzen dituzte, sarritan **finantza sistemako sarbidea errazten** zaielarik (Banco Madrid zein BPA).
6. Europar Batasunean 2017an banku sekretuarekin amaituko da, banku informazioaren elkartruckerako hitzarmena sinatu baitute estatu kide guztiek. Gaur egun, hitzarmen hau sinatu aurretik, **salakeria da informazioa eskuratzeko bide bakarra**, Falciani zerrenda adibide dugularik.

Espainiako gobernuak 2012an diru zuritzearen aurkako borrokan jarraitzen den gidalerrotik irten zen erregularizazio fiskala burutzeko aukera emanez. Baina

- osterantzean, paradisu fiskalei amaiera emateko neurriak hartzen ari direla esan daiteke.
7. Diru zuritzearen prozesua eta tipologia nazioarteko ikuspuntu batetik analizatzen dira eta lan honetan diharduen erakundea GAFI da. Bere txostenak oinarri izanik eta diru zuritzea murriztea helburutzat hartuz, metodo ezberdinei Espainian ezarri zaizkien mugak edo neurriak ondorengoak izan dira:
 - I. Pitufeo metodoan dirua zuritzeko erabiltzen diren erakunde edo negozioak Obligaziodun Subjektuak bilakatu dira.
 - II. Dirua zuritzeko metodo moduan sariak erostea zaildu da, %20ko zerga ezarri baitzaie. Ondorioz metodo honen erabilera murrizten ari da.
 - III. Kasinoak Obligaziodun Subjektu bilakatu dira.
 - IV. BEZaren karruselean parte hartzen duten enpresa pantailen desagerpena saihesteko, zergaren sortzapena aurreratu da.
 - V. Produktu edo zerbitzuak eskaintzen dituzten eta zergak modulu bitartez ordaintzen dituzten enpresek bete beharreko baldintzak gogortu dira. Honela iruzurra murriztu nahi da, baina enpresari txikiei ere kalte egin zaie.
 8. Nazioartean 2012ko berrikusketa ondorengo GAFIren 40 Gomendioak dira sistema prebentiborako neurri eguneratuenak. Europar Batasuna prestatzen ari den Laugarren Zuzentarauak oinarri ditu gomendio hauek eta *Risk Based Approach* ikuspuntuan oinarritzen da. Sistema prebentiboa indartzeko estatuen arteko **kooperazioa** ezinbestekoa dela azpimarratzen da.
 9. Espainian diru zuritzearen aurka borrokatzen duten bi sistema daude, elkar kolaboratzen duten bi sistema sendo:
 - I. Sistema errepresibo penala: helburu nagusia diru zuritze aurretik gertatzen den delituari errentagarritasun ekonomiko edo ondare errentagarritasuna kentzea da. Ogasunari eginiko iruzurra 120.000€ denean iruzurra delitu kontsideratuko da, baina muga hori 50.000€-tara aldatu beharko litzatekeenaren ustea dago.
 - II. Sistema prebentibo edo administratiboa.
 10. Sistema prebentibo administratiboan indarrean dagoen 10/2010 Legearen **helburua finantza sistema eta beste sektore batzuetako jarduera ekonomikoen integritatea babestea** da, hori lortzeko jarduera ez zilegietan jatorria duten ondasunen transformazioa edo bihurketa galaraziz.

Legearen eraginkortasunari dagokionez, sistema prebentiboaren kostua igo eta neurrien aplikazioaren ondorioz saihestu dena kuantifikatzea oso zaila dela esan dugu. Gainera Obligaziodun Subjektuek neurriak ez dituztela guztiz aplikatzen ikusi dugu Banco Madriden kasua aztertuz. Hori horrela izanik, **diru zuritzearen prebentzioko unitate teknikoak, barne auditoriak eta kanpo aztertzaileek prebentzio sisteman duten papera indartzea** ezinbestekoa da.
 11. Finantza sistamarako sarrera 10/2010 Lege bitartez erregulatuta dago baina, erregulazio honen aplikazio eremutik kanpo geratzen diren dirua zuritzeko metodoekin eta ezkutuko ekonomiarekin amaitzeko irtenbide moduan aztertu

dugu eskudiruaren amaiera. Proposamenak honako abantaila eta desabantailak dituela aipatu dugu:

- I. Ekonomialari batzuen aburuz, eskudiruaren amaierak ekonomiaren errekupeazioan lagunduko du.
 - I. Moneta politikaren kontrola erraztuko litzateke.
 - II. Ekonomialari batzuen aburuz, eskudiruaren amaierak negozioen segurtasuna eta produktibitatea handituko du.
 - III. Eragiketa guztien kontrola emango litzateke.
 - IV. Ordainketa elektronikoak ordainketa bide bakar bihurtzen badira, pribatutasuna galduko da, eta gizabanakoen informazio guztia estatuaren edo finantza erakundeen esku geratuko litzatekeelako.
 - V. Iruzur fiskala murriztuko litzateke.**
 - VI. Ekonomialari batzuek uste dute **jarduera ez zilegi gutxiago burutuko liratekeela**. Hala ere, metal preziatu, beste dibisa batzuetan edo espeziatan ordaintzen jarraitzeko aukera egongo litzateke.
12. Prestigioa, influentzia, kontrola edo boterea lortzeko helburuarekin burutzen dira iruzurra, ustelkeria eta dirua zuritzeko jarduerak. Ekintza hauekin amaitzeko guztien **elkarrekintza, kolaborazio eta koordinazioak** ondorio duten presioa ezinbestekoa da.

Baditugu tresnak, orain guztion borondate eta lana falta da.

Bibliografia

(d.g.). datarik gabe

- Alvarez, D., & Eguidazu, F. (2007). *Manual de prevención del blanqueo de capitales*. Madrid: Marcial Pons.
- Aninat, E. (2002). Contra el lavado de dinero y el financiamiento del terrorismo. *Finanzas y desarrollo: publicación trimestral del Fondo Monetario Internacional y del Banco Mundial*(39).
- Arechederra, L. (2015eko apirilak 28). La Audiencia Nacional investigará a Banco Madrid por blanqueo de dinero. *ABC.es*.
<http://www.abc.es/economia/20150428/abci-andreu-banco-madrid-201504281147.html> helbidetik eskuratua.
- Argandoña, A. (2000). *Corrupción: El punto de vista de las empresas*. IESE Business School.
- Banco de España.(2015).
http://www.bde.es/clientebanca/es/Menu_Botonera/Glosario/S/Sepblac.html helbidetik eskuratua.
- Banco de España. (2015.eko maiatza). *Tipos de interés*.
http://www.bde.es/webbde/es/estadis/infoest/ti_1_1.pdf helbidetik eskuratua.
- Blanco Cordero, I. (2009). Eficacia del sistema de prevención del blanqueo de capitales, estudio del cumplimiento normativo (compliance) desde una perspectiva criminológica. *Eguzkilore*, 117-138.
- Bonatti, F. (d.g.). *Foro jurídico iberoamericano, la revista internacional de derecho práctico*. <http://www.forjib.org/delito-de-blanqueo-de-capitales-y-el-ejercicio-de-la-abogacia> helbidetik eskuratua.
- Brot, L. (2002). *Lavado de dinero: delito transnacional*. La ley.
- Buiter, W. (2015). *High time to get low. Getting rid of the lower bound on nominal interest rates*. City Research: <http://willembuiter.com/ELB.pdf> helbidetik eskuratua.
- Calvo, J. (2007). *Conocimiento, innovación y emprendedores: camino al futuro*. Universidad de la Rioja.
- Cervera, C. (2015.eko apirilak 29). El origen histórico de los paraísos fiscales: los antiguos refugios de piratas y corsarios. *ABC.es*:
<http://www.abc.es/economia/20150429/abci-origen-historico-paraissos-fiscales-201504281929.html> helbidetik eskuratua.
- Cesano, J. (d.g.). *Error de tipo, criminalidad económica y delito de lavado de activos de origen delictivo*. <http://ciidpe.com.ar/area1/blanqueo.pdf> helbidetik eskuratua.
- Cordero Blanco, I. (1997). Criminalidad organizada y mercados ilegales. *Cuaderno del Instituto Vasco de Criminología*(213).
- Danish payments council. (2014). *Report on new payment solutions*. Copenhagen.
- Dansk Erhverv, D. (2015.eko maiatzak 6). *Ja tak til afgiftslettelser og kontantløse butikker*.
<https://www.danskerhverv.dk/Nyheder/Sider/Ja-tak-til-afgiftslettelser.aspx> helbidetik eskuratua.

- de Alba, U. (2006). Ética y control ante la corrupción y el blanqueo de capitales. *Revista española de control externo*, 13-26.
- de Pozuelo, E. (2014.eko Apirilak 5). Cae una red de financiación de terroristas y narcos en España. *La Vanguardia*: <http://hemeroteca.lavanguardia.com/preview/2014/04/05/pagina-14/93715276/pdf.html> helbidetik eskuratua.
- del Carpio Delgado, J. (2012). Aspectos básicos del delito de blanqueo de capitales en la legislación española. *Due In Altum*, 4(6), 79-156.
- del Cid Gómez, J. (2009). *Prevención del blanqueo de capitales. Un enfoque basado en el riesgo para contables*. Partida Doble.
- Department of the Treasury. (2015). *Notice of finding that Banca Privada d'Andorra is a financial institution of primary money laundering concern*.
- El Confidencial. (2014.eko ekainak 29). La otra reforma de Hacienda: delito fiscal a partir de 50.000 euros defraudados. *El Confidencial*. http://www.elconfidencialdigital.com/dinero/reforma-fiscal-Hacienda-considerar-defraudados_0_2297770213.html helbidetik eskuratua.
- El Derecho Editores. (2011). *Legislación Notarial*. El derecho y Quantor.
- ElEconomista. (2014.eko otsailak 19). 300.000 autónomos serán expulsados de la tributación por módulos. *elEconomista.es*: <http://www.eleconomista.es/empresarios-pymes/noticias/5553621/02/14/300000-autonomos-seran-expulsados-de-la-tributacion-por-modulos.html#.Kku8u4mRftEFFwq> helbidetik eskuratua.
- El-Oochi, M. (2002). How does this informal fund transfer system work, and should it be regulated? *Finance and Development*, 39(4).
- España. Tribunal Supremo (Sala de lo Penal, Sección 1). Sentencia núm 974/2012.
- España. Tribunal Supremo (Sala de lo Penal, Sección 1). Sentencia núm 265/2015.
- España. Tribunal Supremo (Sala de lo Penal, Sección 1). Sentencia núm 286/2015.
- España. Tribunal Supremo (Sala de lo penal, Sección 1). Sentencia núm. 811/2012.
- España. Ley 37/1992, de 28 de diciembre, del Impuesto sobre el Valor Añadido.
- España. Tribunal Supremo (Sala de lo Contencioso-Administrativo, Sección 3ª), sentencia núm 472/2013.
- España. Ley 19/1993, de 28 de diciembre, sobre determinadas medidas de prevención del blanqueo de capitales. *Boletín Oficial del Estado*, núm 311, p37327.
- España. Orden EHA/1439/2006, de 13 de mayo, de la declaración de movimientos de medios de pago en el ámbito de la prevención del blanqueo de capitales. *Boletín oficial del Estado*, 13 de mayo de 2006, núm 114, pp. 18498-18505.
- España. Ley 10/2010, de 28 de abril, de prevención del blanqueo de capitales y de la financiación del terrorismo. *Boletín Oficial del Estado*, 29 de abril de 2010, núm. 103, p.37458

- España. Real Decreto-ley 12/2012, de 30 de marzo, de introducción de diversas medidas tributarias y administrativas dirigidas a la reducción del déficit público. *Boletín Oficial del Estado*, 31 de marzo de 2012, núm 78, pp. 26860.
- España. Resolución 10 de agosto de 2012 de la Secretaría General del Tesoro y Política Financiera, por la que se publica el Acuerdo de 17 de julio de 2012, de la Comisión de Prevención del Blanqueo de Capitales e Infracciones Monetaria, por el que se determinan las jurisdicciones que establecen requisitos equivalentes a los de la legislación española de prevención de blanqueo de capitales y de la financiación del terrorismo. *Boletín Oficial del Estado*, núm 202, p 60331.
- España. Real Decreto 304/2014, de 5 de mayo, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 10/2010, de 28 de abril, de prevención del blanqueo de capitales y de la financiación del terrorismo. *Boletín Oficial del Estado*, núm 110, p 34775.
- España. Orden HAP/2222/2014, de 27 de noviembre, por la que se desarrollan para el año 2015 el método de estimación objetiva del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y el régimen especial simplificado del Impuesto sobre el Valor Añadido. *Boletín Oficial del Estado*, de 29 de noviembre de 2014, núm. 289, pp. 97848 - 97949.
- España. Edicto de 8 de abril de 2015 Juzgados de lo mercantil. *Boletín oficial del Estado* núm 84, p 14871.
- España. Ley Orgánica 1/2015, de 30 de marzo, por la que se modifica la Ley Orgánica 10/1995, de 23 de noviembre, del Código Penal. *Boletín Oficial del Estado*, 31 de marzo de 2015, núm 77, p 27162.
- Eurostat. (2015.eko apirilak). *Unemployment statistics*.
http://ec.europa.eu/eurostat/statistics-explained/index.php/Unemployment_statistics helbidetik eskuratua.
- Fernández, J. (2008). *Crimen Organizado*. Noticias Jurídicas:
<http://noticias.juridicas.com/articulos/55-Derecho-Penal/200810-98765412359874.html> helbidetik eskuratua.
- Flores, F. (2013.eko urriak 5). Un maletín de Balenciaga, clave en la resolución de "Malaya". *ABC.es*: <http://sevilla.abc.es/andalucia/malaga/20131005/sevi-maletin-balenciaga-clave-resolucion-201310051355.html> helbidetik eskuratua.
- FMI. (2000). *Fondo Monetario Internacional*. La globalización: ¿Amenaza u oportunidad?: <https://www.imf.org/external/np/exr/ib/2000/esl/041200s.htm> helbidetik eskuratua.
- Fothergill, M., & Coke, C. (2001). Funds of hedge funds: an introduction to multi-manager funds. *The Journal of Alternative Investments*(4(2)), 7-16.
- FROB. (2015.eko martxoak 18).
<http://www.frob.es/es/Lists/Contenidos/Attachments/407/BancodeMadrid.pdf> helbidetik eskuratua.
- GAFI. (2012). Las 9 Recomendaciones especiales contra la financiación del terrorismo:
http://www.uif.gov.ar/uif/images/9_FATFGAFI_sp.pdf helbidetik eskuratua.
- GAFI. (2012). <http://www.fatf-gafi.org/pages/aboutus/> helbidetik eskuratua.

- GAFI. (2012). *Estandares internacionales sobre la lucha contra el lavado de activos y el financiamiento del terrorismo y la proliferación. Las Recomendaciones del GAFI*. GAFISUD.
- GAFI. (2012.eko Otsailak). *Estándares internacionales sobre la lucha contra el lavado de activos y el financiamiento del terrorismo y la proliferación. Las Recomendaciones del GAFI*. GAFISUD. <http://www.fatf-gafi.org/media/fatf/documents/recommendations/pdfs/FATF-40-Rec-2012-Spanish.pdf> helbidetik eskuratua.
- GAFI. (2012). *Las Recomendaciones del GAFI*. GAFISUD.
- GAFI. (2014). *Virtual currencies, key definitions and potential AML/CFT risks*. <http://www.fatf-gafi.org/topics/methodsandtrends/documents/virtual-currency-definitions-aml-cft-risk.html> helbidetik eskuratua.
- García, B., & González-Tablas, A. (2001). Reflexión crítica sobre la globalización financiera. *Ekonomiaz: Revista vasca de economía*(48), 58-91.
- Garrigues. (2013.eko apirilak 11). *El delito fiscal y el delito de blanqueo. La Sala Segunda del Tribunal Supremo se pronuncia*.
- Gómez, C. (2009). La prevención del blanqueo de capitales: una aproximación en el contexto de la UE. *Boletín Elcano*, 7(116).
- Guindal, C. (28 de Apirila de 2015). La Audiencia Nacional investiga por blanqueo a Banco Madrid y siete consejeros. *El Confidencial*: http://www.elconfidencial.com/espana/2015-04-28/la-audiencia-asume-la-investigacion-por-blanqueo-a-banco-madrid-y-siete-consejeros_784069/ helbidetik eskuratua.
- Hernández, O. (2009). El blanqueo de dinero: una economía entre lo ético y lo técnico. *Apuntes del CENES*, 81-98.
- Invertia. (2015.eko maiatzak 29). Los gestores de Banco Madrid liberarán el efectivo de fondos y planes de pensiones. *Invertia*: <http://www.invertia.com/noticias/gestores-banco-madrid-liberaran-efectivo-fondos-planes-pensiones-3034608.htm> helbidetik eskuratua.
- J.T. (2015.eko martxoak 17). *Paso a paso del blanqueo de dinero a través de la compra de lotería*. ABC.es: <http://www.abc.es/economia/20150317/abci-blanqueo-loteria-paso-paso-201503161701.html> helbidetik eskuratua.
- Jost, P., & Sandhu, H. (2003). *The hawala alternative remittance system and its role in money laundering*. Interpol.
- Jourova, V. (2015.eko otsailak 18). *Abogacía Española*. <http://www.abogacia.es/2015/02/18/hacia-la-cuarta-directiva-contra-el-blanqueo-de-capitales/> helbidetik eskuratua.
- Kowsmann, P., & Neumann, J. (2015.eko apirilak 13). Tumbling interest rates in Europe leave some banks owing money on loans to borrowers. *The Wall Street Journal*: <http://www.wsj.com/articles/as-interest-benchmarks-go-negative-banks-may-have-to-pay-borrowers-1428939338> helbidetik eskuratua.
- KPMG. (2014). *Estudio Global sobre Prevención del Blanqueo de Capitales*. <http://www.kpmg.com/ES/es/ActualidadyNovedades/ArticulosyPublicaciones/Documents/20140929-estudio-global-blanqueo-capitales.pdf> helbidetik eskuratua.

- Lauzirika, N. (2015.eko maiatzak 24). Dinamarca está dispuesto a acabar con el dinero físico en 2016. *Deia*: <http://www.deia.com/2015/05/24/economia/adios-al-dinero-fisico> helbidetik eskuratua.
- Levi, M. (2005). Controlling the international money trail: what lessons have been learned? *Transnational Institute (TNI)*.
- Lexdir. (2014). <http://es.lexdir.com/guia/definicion-conceptos-blanqueo-de-capitales-1658/> helbidetik eskuratua.
- Llorente, C. (2014.eko irailak 23). Hay una falta de voluntad política de los gobiernos para luchar contra el fraude. *GESTHA*: <http://www.gestha.es/index.php?seccion=actualidad&num=357> helbidetik eskuratua.
- Lombardero Expósito, L. (2010). Ley 10/2010, de 28 de abril de prevención del blanqueo de capitales y de la financiación del terrorismo. *Quincena Fiscal*(13).
- Lombardero Expósito, L. (2015). *Canal Uned*. <https://canal.uned.es/mmobj/index/id/15707> helbidetik eskuratua.
- Luna, A. (2015.eko otsailak 19). Las empresas huyen de España por falta de una legislación clara sobre el bitcoin. *El Confidencial*: http://www.elconfidencial.com/tecnologia/2015-02-19/las-empresas-huyen-de-espana-por-la-falta-de-una-legislacion-clara-sobre-el-bitcoin_713973/ helbidetik eskuratua.
- Mallada Fernández, C. (2012). *Fiscalidad y blanqueo de capitales*. Oviedo.
- Miguel, J., & Gómez, C. (d.g.). El uso de las nuevas tecnologías en el blanqueo de capitales: los nuevos métodos de pago. *Autores*, 411.
- Ministerio de Economía y Competitividad. (2015.eko ekainak 2). http://www.cpbc.tesoro.es/index/index_blanqueo.htm helbidetik eskuratua.
- Ministerio de Hacienda. (2014). Informe nº 14. *Agencia tributaria*: http://www.agenciatributaria.es/static_files/AEAT/Contenidos_Comunes/La_Agencia_Tributaria/Segmentos_Usuarios/Empresas_y_profesionales/Foro_grandes_empresas/Criterios_generales/Lista_paraisos_fiscales_DGT.pdf helbidetik eskuratua.
- Miranda, N. (2012). El fraude del IVA en las operaciones intracomunitarias. Medidas propuestas para combatirlo. *Cuadernos de Formación*, 15/2012.
- Mombelli, A. (2013.eko maiatzak 28). FATCA, el arma mortal contra el secreto bancario. *swissinfo.ch*: http://www.swissinfo.ch/spa/transparencia-fiscal_fatca--el-arma-mortal-contra-el-secreto-bancario/35955992 helbidetik eskuratua.
- Muiño, L. (2014.eko Azaroak 11). Psicología del corrupto: narcicista, “disfruta de lo robado y se jacta de sus hazañas”. *ABC.ES*. <http://www.abc.es/espana/20141111/abci-psicologia-corrupto-201411031155.html> helbidetik eskuratua.
- Nazio Batuak. (1988). *Convención de las Naciones Unidas contra el tráfico ilícito de estupefacientes y sustancias sicotrópicas*.
- OECD. (1998). *Harmful Tax Competition: An Emerging Global Issue*. Paris.

- OECD. (2009). *Qué hay que saber sobre el blanqueo de capitales. Guía para el control fiscal*.
- OECD. (2010). List of Unco-operative Tax Havens: <http://www.oecd.org/countries/liechtenstein/listofunco-operativetaxhavens.htm> helbidetik eskuratua.
- Olaverri, J. (2014.eko apirilak 19). ¿El fin del secreto bancario?. *El País*. http://ccaa.elpais.com/ccaa/2014/04/19/paisvasco/1397926801_353415.html helbidetik eskuratua.
- Peláez Martos, J. (2015.eko martxoak 17). Blanquear un millón con sólo una llamada. *elEconomista.es*: <http://www.economista.es/interstitial/volver/240878542/noticias/noticias/6559427/03/15/Blanquear-un-millon-con-solo-una-llamada.html#.Kku8n7esXgP7IgX> helbidetik eskuratua.
- Pena Beiroa, J. (2012). *Manual de prevención del blanqueo de capitales para profesionales: abogados, auditores y economistas*. Santiago de Compostela: Andavira editora.
- Prado, M., & Illera, C. (2013). *Invertir en Hedge Funds: Análisis de su estructura, estrategias y eficiencia*. Ediciones Díaz de Santos.
- Prieto del Pino, A., García, D., & Martín, A. (2010). La deconstrucción del concepto blanqueo de capitales. *InDret Revista para el análisis del derecho*.
- Quirk, P. (1997). El blanqueo de dinero: repercusiones macroeconómicas. *Ekonomiaz: Revista vasca de la economía*(39), 187-195.
- R.R. (2014.eko apirilak 4). Así funciona el "hawala", un método de financiación del terrorismo yihadista. *teinteresa.es*: http://www.teinteresa.es/espana/funciona-metodo-financiacion-terrorismo-yihadista_0_1114089683.html helbidetik eskuratua.
- Redder, H. (2015.eko maiatzak 6). *Regeringen: Butikker skal kunne sige nej til kontanter*. TV2 Politik: <http://politik.tv2.dk/2015-05-06-regeringen-butikker-skal-kunne-sige-nej-til-kontanter> helbidetik eskuratua.
- Reuters. (2015.eko maiatzak 6). Denmark proposes cash-free shops to cut retail costs. *Mail Online*: <http://www.dailymail.co.uk/wires/reuters/article-3070427/Denmark-proposes-cash-free-shops-cut-retail-costs.html> helbidetik eskuratua.
- Rodríguez, A., García, J., & Peña, M. (2005). La metodología científica en economía de la empresa en la actualidad. *Investigaciones Europeas de Dirección y Economía de la Empresa*, 11(2), 143-162.
- Rogoff, K. (2014.eko maiatzak 28). Paper money is unfit for a world of high crime and low inflation. *Financial Times*: http://scholar.harvard.edu/files/rogoff/files/paper_money_is_unfit.pdf helbidetik eskuratua.
- Roxin, C. (1999). La estructura de la teoría del delito. *Derecho penal, parte general, fundamentos*, Civitas.
- Salvados, R. (2007). Los paraísos fiscales y la lucha contra el fraude fiscal. *Cuadernos de Formación Colaboración*(14).

- Sampedro, J., & Sequeiros, S. (2002). *El mercado y la globalización* (103. bol.). Destino.
- Schneider, F., Kearney, A., & VisaEurope. (2013). *The shadow economy in Europe*. Linz: Johannes Kepler Universitat.
- SEPBLAC. (2008). *Tipologías de blanqueo de capitales*.
- SEPBLAC. (2013.eko apirilak 4). *Recomendaciones sobre las medidas de control interno para la prevención del blanqueo de capitales y de la financiación del terrorismo*. http://www.sepblac.es/espanol/informes_y_publicaciones/documento%20recomendaciones_sobre_medidas%20control_interno_PBCFT.pdf helbidetik eskuratua.
- SEPBLAC. (2014). *Análisis del proyecto de presupuesto para el año 2014*. http://www.sepg.pap.minhap.gob.es/Presup/PGE2014Proyecto/MaestroDocumentos/PGE-ROM/doc/4/4/2/1/N_14_A_G_4_BC_P_1.PDF helbidetik eskuratua.
- Souto, M. (2012). Blanqueo, innovaciones tecnológicas, amnistía fiscal de 2012 y reforma penal.
- TaxConsultor. (2013). *Cambios en la fecha del devengo del IVA intracomunitario*. Barcelona.
- Tobin, G., & Walsh, K. (2013). What makes a country a tax haven? An assessment of international standards shows why Ireland is not a tax haven. *The Economic and Social Review*, 44(3), 401-424.
- Trading Economics. (2015.eko ekainak 3). <http://www.tradingeconomics.com/denmark/gdp> helbidetik eskuratua.
- U.S. department of the treasury. (2015). *Money Laundering*. <http://www.treasury.gov/resource-center/terrorist-illicit-finance/Pages/Money-Laundering.aspx> helbidetik eskuratua.
- United Nations, P. I. (2006). *United States InterAmerican Community Affairs*. <http://interamerican-usa.com/articulos/Crim-org-terr/Crm-org-Glob-fin.htm> helbidetik eskuratua.
- Vargas Hernández, O. (2009). El blanqueo de dinero: una economía entre lo ético y lo técnico. *CENES*, 81-98.
- Vargas López, K. (2008). Principios del procedimiento administrativo sancionador. *Revista Jurídica de Seguridad Social*, 59-70.
- VISA. (2015). <http://www.visaeurope.es/su-tarjeta-visa/particulares/eleccion-de-tarjetas/prepago> helbidetik eskuratua.
- World Wide Banking. (2015). <http://www.bancaoffshore.info/> helbidetik eskuratua.